

EDESTI DEUNA



IBARGUTXI'TAR J. G.

6.000

EDESTI DEUNA



M-63386

F-64184

AFJ
27775

JAUNGOIKO - ZALE - BAZKUNAREN IDAZTIAK

EDESTI DEUNA

IBARGUTXI'TAR JON GURUTZ

JAUPARIAK IDATZITA



ZORNOTZA'N

Jaungoiko-Zale-Bazkuna'ren irarkolan

1936

NIHIL OBSTAT

Ignacio Istueta

CENSCR

IMPRIMATUR

Victoriae, die 13 februarii 1936

Matthæus, Episcopus

Victoriensis

sigillum

Irakasleai

«Edesti Deuna» ta «Kristiñau-Ikasbidea», biok alқаrи deustsela, irakasteko lagun-bidetzat dozue idazti au. Ume kosқonduentzako da, Ikasbidearen lenengo ta bigarren maіa beintzat, ondo dakiezan umientzako.



«Edesti Deuna» ez dogu ipuin antzo irakatsi bear. Jesukristo dogu gure Erosle, gure Irakasle, Jaungoiko ta gizonen Bitarteko, gizadi ta Eleizearen Buru. Gizarteko gora-bera guztiak Jesukristo'rengana joten dabe. Jesukristo'renganako gerta-bide izan zan Itun Zafа. Gure lenengo gurasoak jausi ordukoxe, egin eutsen Jauna'k Eroslearen agintza. Ta urteak joanaz, geroago ta biziago agertzen yaku Itun Zafean Jesukristo'ren irudia, arek eta aingeruak Maria'ri Jaungoiko-Semea'ren gizakundea iragarri arteragiño.

Baita gure Eleizaren azi ta zustraya be, Israael-erian dogu. Arei jazoten yaken guztia gure irudi zala, diñosku Paul deunak. (Korint. 1.^a, 10, 11)


Jesukristo ta bere Eleiza, diran bezain eder, sendo ta maitegarri ikusi ta irakasteko bide dogu, ba, Itun Zafа.

Auxe izan da gure asmoa Itun Bariko jazokunetan be: Jesukristo'ren al-izate ta edertasuna umeai adierazi: **Guztia Jesus'ek eia Jesus'entzat egiña bai da. Bera da guztien aufen eta guztien izatea Beragan dago. Bera da Eleizaren Buru: Bera sorburua, ilartetik lenen biztua, danetan lenen izateko.** (Kol, 1, 17) Ta Jesukristo atzo ta gaur ta betiko berbera (Eb 13, 8)

Burua argitzea bear-beaña da. Baña ez da naikoa. Ez da ori Jkasbidearen elburua. Burutik biotzera ta gogora jatsi bear dau Jkasbideak. Jkasten dabenez bizi izaten irakatsi bear yake umetandik. Eta onetarako, eredu ta jañabide adiñon eta egoki-egokiak doguz Edesti Deunean. Onein jardunbidea ikusiaz, umeak bere, euron antzeko izateko leyatuko dira. Ofetarako bultz-eragin begie Irakasleak. Neke ta abar Jkasbidea buruz ikastez ase ba-dira, ez dogu gure ikastaldietatik onura aundirik atarako. Kistar-bizitzaz umeak zaletu; kistar-arnasaz azi; kistar gogoaz sendotu, auxe dogu Jkasbidearen elburu bikaña.



«Itun Jañean, batez bere Soñera edo Genesis deritxon idaztian, egia ta irudikiak, bitzuok naste dabiliz. Egi utsa irakatsi bear gara umeai. Siñistu bear doguna, siñistu beañekotzat. Ta Eleizak gizonen eretxipecan itxi daroazenetan, eleizgizon jakitunai jañaitu. Gai oni buruz asko idatzi ta irakurten da gaur egunecan. Ez dagiezala, biar edo etzi, umekeritzat artu gure siñiskayak, siñiskai ta irudiki, bitzuok naste ta era berean irakatsi dautseguzalako. Ona emen Eleizak siñistu beañekotzat ebatzita daukana: «Jaungoikoa dogula gauza guztien Egile; Jaungoikoa'k bereziki egin ebala gizona; lenengo emakumea, lenengo gizonagandikoa dala; gizadiaren batasuna; lenengo gurasoak, jatoriz zoriontsu, zuzen eta ilezkor zirala; menbetasuna erakusteko agindua ezari eutsela; txerrenak, suge-antzez, zirikatuta, agindua ausi ebela; jatorizko zuzendasuna galdu ta Jauna'k Eroslea agindu eutsela». (Comm. Pont. Bibl. d. d. 30 junii 1909) Gañerako zertzeladetan, gizon jakitunen eretxiari jañaitu.



EDESTI DEUNA

ITUN ZAÑA



I

LUDIGINTZA

1. Jaungoikoa betikoa da, beti izan da ta izango bere bai.
2. Enparau gauza guztiak Jaungoikoa'k irazan (egin) ebazan.

3. Zeru-lurak sei egun edo ekiñalditan izan-azo ebazan Jaungoikoa'k.
4. Lenengo egunean argia egin eban Jaungoikoa'k.
5. Bigarren egunean zabalgunea edo ortzi urdiña.
6. Irugarren egunean, beko urak leku baten batu; itxaso ta legoía banandu, ta legoíari bedar ta zugatzak sortu eragin.
7. Laugarren egunean, eguzkia, igitargia ta izañak egin ebazan Jaungoikoa'k.
8. Boskarren egunean, itxaso-uretako arañak eta eguratseko egaztiak egin ebazan Jaungoikoa'k.
9. Seigarren egunean, enparau abere ta pizti guztiak egin ebazan Jaungoikoa'k, eta azkenez gizona.
10. Saspigarren egunean, lan - egitez atsedean izan zan Jaungoikoa.

IKASBIDEA

Jaungoikoa'k irazan gaitu. Baita enparau izakiak be Jaungoikoa'k izan-azo ditu, ta guretzat izan-azo be. Jaungoikoa dogu, beraz, gure ongilerik lenena. Garean eta dogun guztia Jaungoikoa'ri zor dautsoqu. Goizero - goizero Jaungoikoa'ri esker egin eta geure buruak Berari eskiñi.

ITAUNAK

1. Jaungoikoa beti izan ete da?—2. Nok irazan ditu enparau izakiak? Zer esan nai dau «irazan» itzak?—3. Zeinbatzuk egun edo ekiñalditan izan-azo ebazan Jaungoikoa'k zeru-lurak?—4. Zer egin eban Jaungoikoa'k lenengo egunean?—5. Zer bigarren egunean?—6. Zer irugarren egunean?—7. Zer egin eban Jaungoikoa'k laugarren egunean?—8. Zer egin eban Jaungoikoa'k boskarren egunean?—9. Zer egin eban Jaungoikoa'k seigarren egunean?—10. Zerbait egin ete eban Jaungoikoa'k saspigarren egunean? Egunok gureak lako egunak ete dira?

.....

Nor da gure Jaungoikoa?... Nondik dakigu Jaungoikoa ba-dana?...

Zelan erakusten dausku gure adimenak Jaungoikoa ba-dana...? Zegaitik deritxo egilea Jaungoikoa'ri?

II

AINGERUAK

1. Aingeruak eta gizona dira Jaungoikoa'k egindako izakirik bikañenak.

2. Jaungoikoa'k goyan egindako gogo-uts edo gorputz bakoak dira aingeruak.

3. Jaungoikoa'k, zor yakon menbetasuna Berari erakusteko agindu eutsen aingeruai.

4. Aingeruetatik batzuk Jaungoikoa'ri menbetasuna ukatu egin eutsoen;

beste geyenak, bañiz, Jauna'ren esanera jañi ziran.

5. Jaungoikoa'ri menbetasuna erakutsi eutsoen aingeruai **gotzonak** deritxegu; menbetasuna ukatu eutsoenai, goteunge, txeren edo deabruak.

6. Gotzon edo aingeruen Buru Mikel deuna izan zan; goteungiena, Luzbel edo Argitsua.

7. Betiko atsegiñetara eroan ebazan Jaungoikoa'k go-



tzonak; goteungeak, bañiz, betiko su-leizera amildu ebazan.

8. Gotzonak Jaungoikoa ikusi ta goosten dabe zeruan, eta gizona zaindu luéan.

9. Goteungeak betiko sutzaíetan dagoz gaiztokian, eta gizona obenerako zirikatzen daragoyoe luéan.

IKASBIDEA

Jaungoikoa zuzen-zuzena dozu. Zintzo iraun eben aingeruak, betiko atsegiñez saritu ebazan. Aingeru gaiztoentzako inpernua sortu eban. Ez obenik egin, aingeru gaizto eta goteungeak dagozan toki izugarí atara joan ez zaitezán.

ITAUNAK

1. Zeintzuk dira Jaungoikoa'k egindako izakirik bikañenak.—2. Zer dira aingeruak?—3. Zer agindu eutsen Jaungoikoa'k aingeruai?—4. Erakutsi ete eutsen aingeruak Jaungoikoa'ri, Berari zor yakon menbetasuna?—5. Zelan deritxe Jaungoikoa'ri menbetasuna erakutsi eutsoen aingeruai, ta zelan menbetasuna ukatu eutsoenai?—6. Nor izan ete zan gotzonen Buru ta nor goteungiena?—7. Nora eroan ebazan Jaungoikoa'k gotzonak eta nora amildu goteungeak?—8. Zer egiten dabe gotzonak zeruan eta zer luéan?—9. Non dagoz goteungeak eta zetan daragoyoe luéan?

.....

Aingeruak zer dira?... Zetarako egin zituan Jaungoikoa'k aingeruak?... Zetarako bialtzen ditu Jaungoikoa'k aingeruak?... Zer dira deabruak?

III

ADAN ETA EBE (1)

1. Gizona egiteko, Jauna'k esan eban: «Geure irudi ta antzeko egin daigun gizona. Abere ta luáren jabe izan bedi».

2. Ta bustiñaz giza-soña atondu, ta soin edo gorputzari gogoa ezaí eutson.

(1) Gai oni buruz siñistu-beaíekoa zer dan, ikusi Itzauféan.

3. Adan-izena ezañi eutson Jauna'k lenengo gizonari: bustiñaz egiña, esan nai dau.

4. Adan lo-zoñoan etzala, aren sayetzaz atondu eban Jaungoikoa'k emakumea, ta Adan'i aurkeztu, ta emaztetzat emon eutson.



5. Adan'ek, itxartu zanean, Ebe ikusita esan eban: *au nire azuřetiko azuřa ta neure aragitiko aragia.*

6. Adan'ek bere emazteari Ebe edo «bizien ama» eritxi eutson.

7. Baratz-edeřean ipiñi ebazan Jaungoikoa'k Adan eta Ebe.

8. Zoriontsu bizi ziran Adan eta Ebe atsegin-baratzean. On-onak ziran; gaiztakeria zer zanik be ez ekien. Ez eben, ez nekerik, ez gexorik, ezta eriotzaren bilduřik be.

IKASBIDEA

Jaungoikoa'ren irudi ta antzeko zara. Ez egikezu irudi ori obenez loitu.

ITAUNAK

1. Gizona egiteko, zer esan eban Jaungoikoa'k?—2. Zelan egin eban Jaungoikoa'k gizona?—3. Zer izen ezañi eutson Jaungoikoa'k gizonari?—4. Zelan egin eban Jaungoikoa'k emakumea?—5. Zer esan eban Adan'ek Ebe ikusita?—6. Zelan eritxi eutson Adan'ek bere emazteari?—7. Non ipiñi ebazan Jaungoikoa'k Adan eta Ebe?—8. Zoriontsu bizi ete ziran Adan eta Ebe atsegin-baratzean?

.....

Gizona zer da?... Zer da gure arimea?... Zelan da gure arimea Jaungoikoa'ren antz-irudi?... Zegaitik diñozu arimea il-eziña dala?... Arimea ba-dogula ziur ete dakigu?... Ikusi ta ikutu ete daikegu gure arimea?

IV

ADAN ETA EBE'REN OBENA ⁽¹⁾

1. *Zugatz guztitariko igaliak jan zengikiez, esan eutson Jauna'k Adan'i. Baña Baratz-erdian dagon zugatzekorik ez dozu jango, jan ordukoxe ilgo zara-ta.*

2. *Sugea zan Jaungoikoa'k egindako pizti guztietatik maltzuřena.*

3. *Suge-antza artu eban, ba, txerēn edo deabruak, eta Ebe baratz-erdiko zugatzera eldu zan baten esan eutson: Zer dala-ta debekatu dautzue Jaungoikoa'k baratz-ederēko zugatzetatik jatea?*

4. *—Baratz-ederēko zugatzetatik jan gengike, baratz-erdiko zugatzetik jatea debekatu dausku Jauna'k, il ez gaitezan, erantzun eutson Ebe'k.*

5. *—iBai zera! ez zarie ilgo, esan eutson txerēnek. Ba-daki Jaungoikoa'k zugatz ořetatik jan ezkeru, zuen begiak idigiko dirana,*

(1) Sinistu-beareko zer dan jakiteko, Itzaurea irakuři.

ta Jaungoikoa'ren antzeko izango zariena, on eta txararen jakitun.

6. Orduan, igali a gozo ta atsegin-atsegiña zala ikusi eban emakumeak eta jan egin eban, eta bere senařari be emon eutson eta onek be jan egin eban.



7. Janaz batera begiak zabaldu yakezan, eta euren bu-ruak bilosik ikusirik, lotsatu egin ziran, eta piku-oriekaz so-ñekoak egin ebezan.

8. Jauna'k ots-egin eta esan eutson Adan'i: *Non zara?*

9. Adan'ek erantzun eutson: *Jauna, zure deya entzun dot, bai, ta bilosik nengoan-da, lotsatuta ezkutau egin naz.*

10. — *Ta zelan igari dozu bilosik zengozala, Neuk galazo neutzun igalia jan dozulako baño? esan eutson Jauna'k.*

11. — *Ara ba, Jauna, Zuk laguntzat emondako emakumeak emon eustan eta jan egin neban, erantzun eban.*

12. — *Ta zuk zegaitik egin dozu ori? esan eutson emakumeari.*

13. — *Jauna, sugeak atzipetu nindun, bai, ta jan egin neban.*

14. Sugeari esan eutson orduan: *Abere ta piztietan zori-*



txarekoa izango zara. Etsaikeriak ipiñiko ditut zure ta emakume bitartean, eta zure ondorengo ta aren ondorengoan artean, eta berak zapalduko dau zure burua.

15. Gero emakumeari: *Oñazez izango dozuz zure se-*

meak eta gizonaren menbeko izango zara.

16. Uréngo gizonari: *Zure bekokiko izerdiz jango dozu eguneroko ogia, auts biurtu arteraño. Autsaz ara, ba, ta auts biurtuko zara.*

17. *Ta baratz ederetik jaurti ebazan.*

18. Jauna'ren agindua bete ba'lebe, onixek eskubideok izango ebezan lenengo guraso ta arein oñordekoak: Jaungoikoa'ren semetzakoa; zerurako eskubidea; ez neke-loñik, ez eriotzarik ez eben izango; griña ta gurari ta ifitsak eskupean izango ebezan, baita abere ta gauza guztiak be,

19. Jauna'ren agindua ausi ezkeroz, eskubide guztio-
k galdu ebezan eurentzako ta ondorengo guztientzako.

20. Sugearen edo txereenen burua zapalduko ebana, Je-
sukristo zan, Andra Maria'ren Seme ta gure Eroslea.

21. Adan eta Ebe oben-egiñaz damutu ziran, eta neke
gogoñak eroan ebezan oben-ordaingaritzat.

22. Adan eta Ebe Jesukristo'ren eta Andra Maria'ren
irudi doguz. Gizadiaren iturburu izan zan Adan. Baña Adan'en
eruz galdu zan gizadia, gurutzeko eriotzez erosi eban Jesu-
kristo'k. Bizien Ama zan Ebe. Baña askoz Amago Andra
Maria. Andra Maria'k ekañi euskun Jesukristo, bizitz-ituñia.

IKASBIDEA

**Gaitz guztien sorburua obena dogu. Gofoto izan obena,
ta Jesukristo maite izan, obenetik azkatu gaitu-ta.**

ITAUNAK

1. Zer esan eta zer debekatu eutson Jaungoikoa'k Adan'i.—2. Jaun-
goikoa'k egindako pizti guztietatik maltzuñena, zein ete zan?—3. Zeren
antza artu eban txereñak eta zer esan eutson Ebe'ri baratz-erdiko zuga-
tzera eldu zan baten?—4. Zer erantzun eutson Ebe'k?—5. Zer esan txere-
nek.—6. Zer egin eban orduan Ebe'k?—7. Janaz batera zer jazo yaken?
—8. Jauna'k ots egin eta zer esan eutson Adan'i?—9. Zer erantzun Adan'
ek?—10. Zer esan Jauna'k?—11. Zer erantzun Adan'ek?—12. Zer esan
eutson emakumeari?—13. Zer erantzun eutson emakumeak?—14. Zer
esan eutson orduan sugeari?—15. Gero, zer esan emakumeari?—16. Zer
urengo gizonari?—17. Baratz-ederetik jaurti ete ebazan Jauna'k?—18.
Zeintzuk eskubide izango ebezan lenengo guraso ta euron oñordekoak
Jauna'ren agindua bete ba'lebe?—19. Zer galdu eben Jauna'ren agindua
ausi ezkeroz?—20. Nor izan zan sugearen burua zapaldu ebana?—
21. Oben-egiñaz damutu ete ziran Adan eta Ebe?—22. Nortzuen irudi
doguz Adan eta Ebe?

.....
Gure lenengo gurasoak beti iraun ete eben graziazko izaeran?... Zer

da, beraz, jatorizko obena?... Jatorizko obenagaitik zer galdu eban gizonak?... Zor ete yakozan gizonari emaitz oneik?... Adan'en ondorengo artean ete da iñor, jatorizko oben ori barik Jaungoikoa'k egin dauanik?... Bertan-bera itxi ete eban Jaungoikoa'k gizona oben egin ebanean?

V

KAIN, ABEL ETA SET

1. Seme-alaba askoren guraso izan ziran Adan eta Ebe. Lenengo seme biai Kain eta Abel eritxen.

2. Kain nekazaria zan; Abel artzaña. Kain gaiztoa zan-da,



luřeko gauzarik matxařenak eskintzen eutsozan Jau-na'ri. Abel, oster, onazan-da, ardi ta bildotsik gurienak eskintzen eutsozan.

3. Kain'en eskintzak ez ebazan ontzat artu Jaungoi-

koa'k, eta aren luřak elkor ta antzu egin ebazan. Abel'en eskintzak, bařiz, onetsi ta bere artaldeak ugaritu ebazan.

4. Begi txařez ikusten eban Kain'ek bere anayaren ugaritasuna ta biotza gořotoz bete yakon.

5. Beñola esan eutson Abel'i: *Zatoz goazen biok landara.*

6. Abel'ek, ezeren susmo txařik ez eban-da, pozik la-

gundu eutson. Baña Kain'ek jo ta bertan erail (il) eban.

7. Orduan Jauna'k ots-egin eutson esanaz: *Non da Abel zure anaya?*

8. Kain'ek, lotsa gitxigaz, erantzun eutson: *Nik zer dakit, ba? Anayaren inñude nozu ni ala?*

9. *Zer egin dozu?* esan eutson Jauna'k. *Zure anayaren odola luřetik oyuka dagokit. Zorigaiztokoa izango zara, beraz, zeure eskuz izuritako zure anayaren odola irunsiteko agoa zabaldu dauan lurganean. Ara ta ona igesi ibiliko zara beti.*

10. *Jaungoikoa'k parkatzeko baño oben astunagoa da nire gaiztakeria, esan eban Kain'ek. Iges egingo dot eta aurkitzen nauan edonok il egingo nau.*

11. *Ez, ez zaitu ilgo, erantzun eutson Jauna'k. Zu ilten zaituanak, saspi bider geyagoz ordainduko dau.*

12. Abel Jesukristo'ren irudi dogu. Abel ona anai gaiztoak erail eban legez, Jesus on-ona be, anai gaiztoak gurutzeratu eben.

13. Abel'en ordezt Set izan eben Adan eta Ebe'k, Abel lakoxe ona ta zintzoa.

14. Set'en ondorengoak onak izan ziran; Kain'en ondorengoak, ostera, gaiztoak. Eta areik oneikaz nastauta, guztiak gaiztotu ziran.

IKASBIDEA

Gogoan euki Jaungoikoa begira dogula. Inñoren onik ez begi txarrez ikusi.

ITAUNAK

1. Seme-alaba askoren guraso izan ete ziran Adan eta Ebe, ta nortzuk izan ziran lenengo seme biak?—2. Zer ta zelakoa zan Kain eta zer ta zelakoa Abel?—3. Ontzat artu ete ebazan Jaungoikoa'k Kain'en eskintzat eta

zelan zigortu ete eban? Onetsi ete ebazan Abel'en eskintzak eta zelan saritu?—4. Begi txaréz ikusten ete eban Kain'ek anayaren ugaritasuna ta zegaz bete yakon biotza?—5. Zer esan eutson beñola Kain'ek Abel'i?—6. Lagundu ete eutson Abel'ek eta zer egin eutson Kain'ek?—7. Jauna'k orduan, ots-egin eta zer esan eutson Kain'i?—8. Zer erantzun Kain'ek lotsa gitxigaz?—9. Zer esan Jauna'k?—10. Zer Kain'ek?—11. Zer erantzun Jauna'k?—12. Noren irudi dogu Abel?—13. Nor izan eben Adan eta Ebe'k Abel'en ordeztu?—14. Zelakoak izan ziran Set'en ondorengoak eta zelakoak Kain'en ondorengoak?

.....

Zein da Jaungoikoa'ren Legeko boskañen agindua?... Zer agintzen dausku boskañen aginduak?... Zer eragozten dausku boskañen aginduak?... Edozelako obenak, asko ta aundienak izanañen be, parkatzeko eskubide osoa emon ete eutson Jesukristo'k bere Eleizeari?

VI

URIOLA

1. Gizonen gaiztakeriz asaratuta, ludia uriolez ondatzeko asmoa artu eban Jauna'k.

2. Gizon gaizto arein artean bazan bat, Noe, zintzoa ta deuna. Noe'ri esan eutsan, ba, Jauna'k: *Kutxa aundi bat egizu, ta bertan sartu zaitez zeu, ta zure etxekoak, eta abere mota guztietatik biña, luñasua uriolez galtzeko asmoa artu dot-eta.*

3. Kutxa egiten ziarduan bitartean, Noe'k alegiñak-alegin egin ebazan gizon gaizto areik bide onera ekarteko, baña Noe'ren esanik ez eben aintzakotzat artu, ta iri-ta bare egioen.

4. Noe ta bere iru seme Sen, Kan eta Yabet, ta lauron emazteak, eta mota guztitariko abereak ontzi baruan sartu ziranean, Jaungoikoa'k berogei gau ta eguneko euri-jasa egin eban; itxaso ta ibayak ganez egin eben eta mendi garayak estaltzeraño igon ziran urak.

5. Urtebetean egon zan luñasoa urez eztaleta; ta gizakume, ta mota guztitariko abereak ito ziran, ontzian egozanak izan ezik.



6. Urtebetegarenean Noe'k, leyoa zabaldu ta bela bat jarei eban, eta ez zan atzera biurtu. Saspi egun geroago usoa bialdu eban, eta ostro samuía mokoan ebala itzuli zan kuxtara. Beste saspi egun baru, bariro amain emon eta, ez zan usoa geyago itzuli.

7. Ontzitik jatsi zanean, arizko opamaya egin eta abere garbiak oparitzat eskiñi eutsozan Noe'k Jaungoikoa'ri.

8. Oso atsegin izan yakon Jaungoikoa'ri opari au, ta ez ebala bañiro uriolez luñik ondatuko agindu eutson; eta agintza onen agiritzat ostadaña ipiñi eban.

9. Jesukristo'ren irudi dogu Noe. Gaizto arein artean, Noe bakañik zan zintzo ta deun: on-ona ta deun-deuna, bere-nez, Jesukristo bakañik da. Gizonak gaizkatzeko kutxa bat egin eban Noe'k: gizonak zeruratzeko, Eleiza irasi eban Jesukristo'k; eta Noe'ren kutxan sartu ziranak bakañik gaizkatu ziran legez, Jesukristo'ren Eleizan dagozanak bakañik zeruratu daitekez.

IKASBIDEA

Jaungoikoa zintzoa da, bai onak saritzeko, bai gaizkoak zigortzeko

ITAUNAK

1. Gizonen gaiztakeriz asafatuta, zer asmo artu eban Jauna'k?—
2. Gaizto arein artean zintzorik ba-ete zan, eta zer esan eutson Jauna'k Noe'ri?—
3. Kutxa egiten ziarduan bitartean, gizon gaizto areik bide onera ekarteko alegiñik egin ete eban Noe'k?—
4. Noe ta bere iru seme Sen, Kan eta Yabet, eta lauron emazteak, eta mota guztitariko abereak ontzi bañuan sartu ziranean çzer jazo zan?—
5. Zenbat denporan egon zan luñasoa urez estalita?—
6. Zer egin eban Noe'k urtebete garénean?—
7. Ontzitik jatsi zanean çzer egin eban?—
8. Atsegin izan ete yakon Jaungoikoa'ri Noe'ren oparia?—
9. Noren irudi dogu Noe ta zetan?

.....

Gure Ama Eleiza Deuna nok irasi eban?... Zeruan sartu ete daiteke Eleiza katolikoan bizi ez danik?...

VII

BABEL'GO TOÑEA

1. Ontzitik jatsi ezkeroz, luña lantzen ekin eutson Noe'k, eta mastia ipiñi eban,

2. Ardaoa zer zanik be ez ekian Noe'k, eta lařegitxo edanda, moskortu egin zan, eta txabolan bilosik etzan.

3. Kan'ek bere aita lotsagaři ikusita, baře ta iseka egin eutson.

4. Baňa Sen eta Yabet'ek itzalkiro ta begirunez estali eben.

5. Itxartu zanean eta Kan bere semeak egin ebana jakin: «Zoritxařekoa Kan! Zorionekoak Sen eta Yabet!» esan eban Noe'k.

6. Noe'ren ondorengoak eřuz ugaritu ziran, eta zintzoak gaiztoakaz batuta, uriola auřetik baizen gaizto biurtu ziran.

7. Alkařegandik banandu baňo len, ařokeriz esan eben: «Laňoe-taraňoko etxe garaya jaso daigun, gure izena ospetsu izan daiten».

8. Baňa Jaungoikoa'k arein ařokeria zapuztu eban esanaz: *Jatsi gaitezán eta izkuntza nastau daigun, lagunak lagunari aitu ez dagien.*

9. Ordurarte izkuntza batekoak ziran gizonak; ařezkero eřitan aňa izkuntza sortu zan eta alkařegaz aitu ezinda, or-emen banandu ziran.



10. Sen'en jatorikoak Asi'n geratu ziran eta eurokandik sortu zan Israel Jaungoikoa'ren eña; Kan'en ondorengoak Apirka'ra jo eben eta Yabet'en semeak Europa'ra etoñi ziran.

11 Eñirik geyen-geyenak Jaungoikoa'gaz aztuta, batzuk eguzkia, ta igitargia, ta izañak eta, jainkotsat artu ebezan; beste batzuk gizona ta abereak eta, edo eskuz egindako irudiak, zurezko, añizko, zidañezko ta uñezko irudiak gur-egiten ebezan. Eta jainko-izunoi edozertariko opariak eskintzen eutsezan, baita ume txikiak be.

IKASBIDEA

Zure aitari ta amari dedu ta lotsa izan egiezu, ondo ibili ta lurganean luzaro bizi zaitez. ¡Zoritxañekoak gurasoak aintzakotzat artzen ez dabezan seme-alabak.

ITAUNAK

1. Zetan ekin eutson Noe'k ontzitik jatsi ezkeru?—2. Ba-ete ekian Noe'k ardaoa zer zan eta zer jazo yakon?—3. Zer egin eban Kan'ek bere aita lotsagañi ikusita?—4. Zer egin eben Sen eta Yabet'ek?—5. Itxartu ta Kan'ek egiña jakin ebanean, zer esan eban Noe'k?—6. Eñuz ugaritu ete ziran Noe'ren ondorengoak?—7. Alkañegandik banandu baño len, zer esan eben?—8. Zapuztu ete eban Jaungoikoa'k arein añokeria ta zelan?—9. Izkuntza batekoak ete ziran ordurarte gizonak eta gero, zer?—10. Non geratu ziran Sen'en jatorikoak, nora jo Kan'en ondorengoak eta nora etoñi Yabet'en semeak?—11. Eñirik geyen-geyenak aztu ete ziran Jaungoikoa'gaz ta zertzuk artu ebezan Jaungoikotsat?

.....

Zein da Jaungoikoa'ren legeko laugañen agindua? Gurasoai dedu ta lotsa ñnok ete dautse? Zer debekatzen dausku laugañen aginduak? Zer agintzen dausku lenengo aginduak?... Zertara beartzen gaitu, oñezaz gañera lenengo aginduak?... Zer debekatzen dausku lenengo aginduak?... Jainko-izunkeria zer da?

VIII

ABRAHAN

1. Gizon gaizto arein artean ba-zan bat zintzo ta Jaungoikozalea; Abrahan eritxon eta Aran'en bizi zan.



2. Beñola Jaungoikoa'k dei egin eutson Abrahan'i ta esan eutson: *Atera zaitte zure aberitrik, eta zure senitarte ta gurasoen etxetik, eta erdu neuk erakutsiko dautzudan luraldera. Eri aundiaren buru egingo zaitut eta zure izena ospetsu izango da, ta zugañ onetsiko ditut lurasoko eri guztiak.*

3. Jesukristo gure Eroslea Abraham'en odolekoa izango zalako esan eutson: *Zugan onetsiko ditut luñasoko éri guztiak.*

4. Atera zan, ba, Abraham, Sare bere emazte, Lot bere loba, moíoi-mirabe ta abere guztiakaz, ta Kanaan aldera jo eban.

5. Moíoi-mirabe ta aberetan asko be asko ebazan Abraham'ek, baita Lot bere loba be, aberatsa zan.

6. Abere guztiok laíatzeko lain baster ez ebelako, saítan alkaíregaz asaíe izaten ziran Abraham'en eta Lot'en moíoyak.

7. Asaíeok zirala-ta, min artzen eban Abraham'ek, eta Lot'i esan eutson: «Ez-pedi gure artean asaíerik izan, ezta zure ta nire artzañen artean bere, anayak gara-ta. Oía or luíalde ori zure betaúean; zu, ezkeíera joaten ba-zara, nik eskumaldera egingo dot, eta zuk eskumaldera egiten ba-dozu, ni ezkeíera joango naz».

8. Lot'ek Jordan ibai-baster yori ta aberatsak aukeratu ebazan eta Abraham Ebron'en geratu zan.

9. Andik geroago, érege batzuk Sodoma ta Gomoía artu ebezan, baita Lot eta bere aberaski guztiak be.

10. Au jakin ebanean Abraham'ek, 318 moíoigaz jaíaitu eutsen érege arei, ta gabaz atomau, ta azpiratu, ta triskatu ebazan, eta Lot beregandu eban.

11. Etxeruzkoan, Melkisedek, Salen'go éregeak, bidera urten eta ogia ta ardaoa oparitzat eskiñi eutsozan.

12. Melkisedek, Jesukristo'ren irudi dogu ta bere oparia, gure altaretan ogi ta ardaoaren eraskipean egiten dan Jesukristo'ren gorputz ta odol-oparien irudi.

13. Abraham'ek 99 urte ebazala, baíiro agertu yakon Jaungoikoa ta alkartasun edo itunbena egin eban Abraham'egaz, ta alkartasun onen agiritzat, mutil guztiak jayo ta zortzi egun baíu erdaintzeko agindu eutson.

14. Oñen orde, Sare'gandik seme bat izango ebala ta Isaak-izena ezarteko agindu eutson Jauna'k.

15. Erdaikuntza gure bateoaren irudi zan.

IKASBIDEA

Jaungoikoa gogoan erabili ta on-ona izango zara.

ITAUNAK

1. Gizon gaizto arein artean, ba-ete zan zintzo ta Jaungoikozale zan norbait eta zelan eritxon?—2. Zer esan eutson beñola Jaungoikoa'k Abraham'i?—3. Zergaitik esan eutson Jauna'k: Zugar onetsiko ditut luñasoko eñi guztiak?—4. Atera ete zan Abraham eta noruntz egin eban?—5. Moñoi-mirabe ta abere asko ete ebezan Abraham eta Lot'ek?—6. Abere guztiok laíatzeko beste bazter ez ebelako, zer jazoten zan?—7. Asaíeok zirala-ta, zer esan eutson Abraham'ek Lot'i?—8. Zeintzuk toki aukeratu ebazan Lot'ek eta non geratu zan Abraham?—9. Andik geroago zer jazo zan.—10. Au jakin ebanean, zer egin eban Abraham'ek?—11. Etxeruzkoan, nok bidera urten eta zer eskiñi eutson?—12. Noren irudi dogu Melkisedek eta zeren bere oparia?—13. Noz agertu yakon bañiro Jaungoikoa Abraham'i eta zer egin eban Abraham'egaz?—14. Oñen orde, zer, agindu eutson Jaungoikoa'k Abraham'i?—15. Zeren irudi zan erdaikuntza?

IX

SODOMA TA GOMOÑA'REN ZIGOÑA

1. Egun batez, txabolako atarian, *zugazpean* abarotan zala Abraham, iru gaste arotz ikusi ebazan.

2. Jaiki ta bidera urten, eta luñeraño makurturik esan eutson batari: *Zugazpe onetan geratu zaitze, ta zuen oñak garbitzeko ura ekañiko dautzuet, baita zuen indañak azkortzeko ogia bere.*

3. Ta ariñeketan joan txabolara, sutauspéan ogia eñetako agindu eutson Sare'ri ta, txalik guriena artu ta bazkaria gertau eutsen.

4. Janda gero, iruretatik nagosiena zirudianak esan eutson: *Urtebete bañu biurtuko naz ta ordurako Sare'k semea izango dau.*

5. Abraham'ek igarri eban Jauna bera zala bidezti antzez ta aingeru bi lagun.

6. Sodoma'rako bidean lagun egin eutsen Abraham'ek iru gaste arei ta Jauna'k esan eutson: *Geroago ta iguingarriago*



dira Sodoma ta Gomo'ra'ko gaiztakeriak, eta zigor-eske dagoz.

7. Abraham izutu zan eta erukiz beterik, biozperatuta, esan eutson: *Jauna, zintzoa gaiztoagaz batera joko al dozu? Be'rogetamar zintzo ba'litzoz Sodo-*

ma'n, ez ete zeunskio euron ederez uriari parkatuko?

8. Jauna'k erantzun eutson: *Bai, be'rogetamar zintzo bai'litzoz Sodoma'n, euron ederez enparauai parkatuko neuskioe.*

9. Jauna, autsa ta erautsa baño enaz baña, bein asi nazan ezkerro, bañiro diñotzut: *Ta bost gitxiago ba'litzoz?*

10. *Be'rogetabost zintzo ba'litzoz be, ez dot ondatuko.*

11. Ta jatsiaz-jatsiaz amañeraño eldu zan. Jauna'k esan eutson: *Baita amar zintzo ba'litzoz be parkatuko neuskio uriari.*

12. Orduan, Jauna ostendu edo ayenatu zan, eta Abraham bere txabolara itzuli zan.

13. Amar zintzo be ez ziran Sodoma uritzaíean. Jauna' ren lagun etoíi ziran aingeru biak joan ziran uri zantaíera, ta Lot'i bere etxekoekaz berialaxe urteteko agindu eutsoen.

14. Muker-samar ebiñan Lot, eta uréngo goizean, eskutik eldu ta atara eben, esanaz: *Ez, gero, atzera begiratu*

15. Lot'en emazteak, uritik urteyeran atzera begiratu eban eta bertantxe gatzezko irudi biurtuta geratu zan.

16. Bost uri zantar areik etzazan tokian Itxaso Ila deritxona dago aírezkero.

17. Irutasun Deun-deunaren irudia ikusi daroe Guraso deunak iru gaste areitan.

IKASBIDEA

Oía or lizunkerí ta zantarkeriaren ondorenak. Gogoz, biotzez ta gorputzez garbí izan. Ikasi Abrahan'engandik eíukior ta biozpere izaten.

ITAUNAK

1. Nortzuk ikusi ebazan Abrahan'ek, egun batez, txabolako atarian zala?—2. Zer egin eban Abrahan'ek iru gasteok ikusitakoan eta zer esan eutsen?—3. Nora joan zan ariñeketan eta zelako bazkaria gertau?—4. Janda gero, iruretatik nagosiena zirudianak, zer esan eutson?—5. Igaíi ete eban Abrahan'ek Jauna bera zala bidezti antzez?—6. Sodoma'rako bidean lagun egin ete eutsen Abrahan'ek iru gasteai ta zer esan eutson Jauna'k?—7. Abrahan'ek izututa, eíukiz beterik, zer esan eutson?—8. Zer erantzun Jauna'k?—9. Zer erantzun eutson baíiro Abrahan'ek?—10. Zer erantzun Jauna'k?—11. Jatsiaz-jatsiaz, zeinbateraño eldu zan Abrahan eta zer erantzun Jauna'k?—12. Jauna ayenatu ete zan orduan eta nora itzuli Abrahan?—13. Amar zintzo be ez ete ziran Sodoma'n eta zer egin eben Jauna'ren lagun etoíi ziran aingeru biak?—14. Zelan atara eben Lot uréngo goizean?—15. Zer jazo yakon Lot'en emazteari uritik urteyeran?—16. Zer dago aírezkero bost uri zantar areik etzazan tokian?—17. Noren irudia ikusi daroe Guraso deunak iru gaste areitan?

ISAAK'EN JAYOTZA TA OPALGUNTZA

1. Urtebetegañenean semea izan eban Sare'k eta Isaak-izena ezañi eutson. Kutun-kutun eban Abraham'ek zartzaroko seme au.



2. Baña Bera ala semea maiteago ete eban ikusteko, Jau-na'k esan eutson gau batez: *Abraham*, artu egizu zuk ainbeste maite dozun seme bakaña, ta *Moria-mendira* eroan ta antxe oparitzat eskiñi egidazu.

3. Txitik be ez eban egin Abraham'ek. Eguna baño len jagi, ta opalguntzarako egur-txorta astoari ezañi, ta bere seme ta moñoi bigaz bidean jañi zan.

4. Irugañen egunean mendia begiztau eban eta moñoyai esan eutsen: *Itxoin emen, ni neure semeagaz, otoi egiteko, mendira noan bitartean.*

5. Egur-sendoña Isaak'i leporatu eutson, eta berak eroazan sua ta aiztoa.

6. Mendiruntz joyezala, Isaak'ek itandu eutson: *Aita, sua ta eguñ emen doguz, baña coparia non da?*

7. Biotza erdibituta erantzun eutson Abraham'ek: *Jauna'k zuzenduko dausku oparia, ene seme.*

8. Mendi-garaira eldu ziranean, añiekaz altarea atondu, eguñ ezañi, ta Isaak lotuta egurgañean ipiñi eban.

9. Aiztoa sartzeko eskua jaso ebanean, Jauna'ren aingearuak deadar egin eutson esanaz: *Geldi, Abraham, ez egizu mutila jo. Ointxe erakutsi dozu, ba, Jaungoikoa'ren bildur zareana, ta bere maitez zeure semeari be ez dautsazula parkatu.*

10. Orduan, nartzartean arito bat ikusi eban Abraham'ek eta seme-ordez, Jaungoikoa'ri eskiñi eutson.

11. Abraham'en siñismen eta menbetasun au, bere ondorengoak ortziko izañak baño ugariago izango zirala ta Mesia bere odolekoa izango zala bañiro aginduaz saritu ebazan Jauna'k.

ISAAK'EN EZKONTZA

12. Abraham'ek Eliezer moñoi zintzoa bialdu eban Aran'era, Isaak'entzako emaztegei-bila.

13. Aran-aldera eldu zanean, oxin-ondoan geratu zan Eliezer, ta Jaungoikoari otoi-egin eutson, ureske etoñiko ziran

neskatiletatik zein zan Isaak'entzako aukeratuta ebana adirazteko aŕen.

14. Otoyá amaitu ordukoxe, oŕa nun datoŕen Érebeke, neskatilá lirain eta lotsoŕa. Suilá ede pitxaŕa buruan ekaŕan eta urez



betetako oxinera jatsi zan.

15.—*Ur pizka bat ekatzu, aŕen, esan eutson Eliezer'ek.*

16.—*Bai, pozik be, cdan jauna, erantzun eutson Érebeke'k. Eta gameluak be edan egien ubaskak bete ebazan.*

17.—*Noren alaba zara? itandu eutsan Eliezer'ek.*

18.—*Ni Batuel'en alaba naz, Abraham'en loba.*

19.—*Zure aitarenean tokirik ete dago?*

20.—*Bai jauna, gurean tokia ugari da ta gameluentzako lastoa bere bai.*

21. Orduan Batuel'en etxera joan zan Eliezer, baña ezer artu baño len, bere asmoa agertu eutsen, eta bayetza edo ezetza eskatu.

22. Jaungoikoa'ren gauza da au, erantzun eutson Batuel'ek; emen dozu Érebeke, artu ta eroan zeugaz.

23. Érebeke'ri itandu eutsoen joango ete litzakean; Bai, joango naz erantzun eban.

24. Eliezer'ek auzpez jañi ta Jaungoikoa'ri esker-egin eutson, eta zidañezko ta úrezko bitxi ta soñeko ederak emon eutsezan Eñebeke'ri, ta bere ama ta nebañebai.

IKASBIDEA

Jaungoikoa'gan itxaropena daukanik ez da lotsatuko. Gure lañialdi ta estutasunetan gure Aita'rengana jaso biotza.

ITAUNAK

1. Noz izan eban Sare'k semea ta zer izen ezañi eutson?—2. Zer agindu eutson Jauna'k Abrahan'i?—3. Zer egin eban Abrahan'ek?—4. Zeinbakañen egunean begiztau eban mendia ta zer esan eutsen moñoyai?—5. Zer leporatu eutsan Isaak'i, ta zer eroyan berak?—6. Zer itandu eutson Isaak'ek mendiruntz joyezala?—7. Biotza erdibituta zer erantzun eutson Abrahan'ek?—8. Mendi-garaira eldu ziranean, zer egin eban Abrahan'ek?—9. Aiztoa sartzeko eskua jaso eban, zer esan eutson Jauna'ren aingeruak?—10. Zer ikusi eban Abrahan'ek nartzartean eta zer egin aritoagaz?—11. Zelan saritu ebazan Jauna'k Abraharen siñismena ta menbetasuna?

ISAAK'EN EZKONTZA

12. Nor ta nora bialdu eban Abrahan'ek Isaak'entzako emaztegei-bila?—13. Aran aldera eldu zanean, non geratu ta zer egin eban Eliezer'ek?—14. Otoya amaitu ordukoxe, nor eldu zan oxinera?—15. Zer esan eutson Eliezer'ek?—16. Zer erantzun Eñebeke'k?—17. Zer itandu Eliezer'ek?—18. Zer erantzun Eñebeke'k?—19. Zer itandu bañero Eliezer'ek?—20. Zer erantzun Eñebeke'k?—21. Norenera joan zan, orduan, Eliezer, ta bere asmoak, ezer artu baño len, agertu ete eutsezan? 22. Zer erantzun eban Batuel'ek? 23. Itandu ete eutsen Eñebekeri joango ete litzakean eta zer erantzun? 24. Zer egin eban, oñezkero, Eliezer'ek?

.....

Zein da gure geideaganako dogun eginbeaía?... Nor da gure geidea?... Zelan maitatukodoguz geideak gure buruak legez?... Zertarako dira eñuki-egintzak?... Zertarako dira gorputzagazko eñuki-egintzak?... Zer da siñismena?... Zer da itxaromena?

XI

ESAU ETA JAKOB

1. Ogei urtean ez eben umerik izan Isaak eta Érebeke'k. Isaak'en otoyá entzun eban Jauna'k eta birkiak izan ebezan; lenen-jayoari Esau ezañi eutsen, eta bigañenari Jakob.

2. Esau, uletsua ta izakeraz latza zan: Jakob, osterá, urdiña ta otzana.

3. Esau'k nekazaritzan eta eizan eragoyon; Jakob'ek, artzaintzan.

4. Isaak'ek Esau maiteago eban eta pozik jaten eban arek ekartson eizakia. Érebeke'k, osterá, Jakob eban kutun; Esau'ren jaun izango zala Jauna'k agertu bai eutsan.

5. Beñola, katilukada-txiliste jaten ziarduala Jakob'ek, Esau eizatik eldu zan eta esan eutson: *Katilukada txiliste ori ekatzu, gosez aulduta nator-da.*

6. —*Bai, emongo dautzut, baña lenen-jayoaren eskubideak saldu egistazuz, erantzun eutson Jakob'ek.*

7. —*Gosez ilten naukazu, zertarako dot, ba, lenen-jayotza?*

8. —*Zin-egidazu, ba, esan eutson Jakob'ek.*

9. Zin-egin eban Esau'k, eta jan-edanda, pozik joan zan lenen-jayoaren eskubidez ezer ez eutsala.

10. Onetan, zañaren - zañez itsututa geratu zan Isaak. Egun batez, Esau'ri deitu ta esan eutson: *iÉne seme! zar egin nazala ba-dakutzu ta nire eriotz-eguna noz izango dan ez dakit, Zoaz, ba, eizara, ta niri atsegin yatan zerbait ekañi egidazu, il baño len onetsi zagidazan.*

11. Esau berealaxe atera zan eizara.

12. Bitartean, Érebeke'k, Esau'ren soñekorik edeñanakaz

jantzi eban Jakob, ta aume-na'uz eskuak estali, ta janariaz bialdu eban aitarengana.

13. —*Nor zaitut zu, ene seme, itandu eutsan Isaak'ek.*

14. —*Esau, zure lenen-jayoa nozu ni, erantzun eutson Ja-*



kob'ek. Zuk esana egin dot, jan egizu, ba, orain eta onetsi nagizu.

15. —*Erdu ona ikutu zagidazan eta Esau zarean ala ez igari dagidan.*

16. *Ikutu ebanean, esan eban: Abotsa Jakob'en abotsa da, baña eskuak Esau'renak dira. Ez eban, ba, ezagutu Isaak'ek.*

17. *Jan ezkerro, onetsi eban esanaz: Garia ta ardaoa ugari*

bemotzuz Jauna'k zure lurretan. Menbeko izan bekizuz eriak eta jaun-
tzat autortu ondorengoak.

18. Jakob urten ordukoxe eldu zan eizatik Esau ta esan
eutson: *Jaiki zaitte, ene aita, ta jan egizu.*

19. Isaak'ek arituta esan eutson: *Baña, nor zaitut zu? Igañi
eban, ba, Isaak'ek Esau'ren ordezt joan izan yakola Jakob.*

20. Esau'k negaitez oñoaka ekin eutson, orduan, esanaz:
*Len, jayotz-eskubideak bereganatu eustazan, eta orain onespina be ostu
daust. Baña, ene aita, ez al dozu niretzako onespenik?*

21. *Luraren ugaritasunean izan bedi zure onespina. Ezpataz
biziko zara ta zure anayaren moñoi izango zara, erantzun eutsan
aitak.*

22. Jesukristo'ren irudi dogu Jakob. Esau'ren soñekoaz
jantzirik, Jakob'ek aitaren onespina jadetsi eban legez, baita
Jesukristo'k bere gure gaiztakeriz jantzirik Aita'ren parka-
mena jaritxi euskun.

IKASBIDEA

**Jakob zekenegi agertu zan bere anayagazko. Gose dan edo-
nori jaten emon beaña dogu, areago geure anayari. Ondasun-
ak dirala-ta, ez egundo asaretu zure anayakaz. Baita guzuña
esan eta bere aitari iruzur-egiñaz be, oben-egin eban Jakob'
ek. Asmo onez jardun eben Jakob eta Eñebeke'k, baña asmo
onez ezin daiteke egite txarik zuritu ta zintzotu. Gose-iritsa
edo jangalea asetearen, saldu ta galdu ebazan Esau'k bere len-
-jayotz-eskubideak. Laster, baña berandu, garbatu zan bere
erokeriz. Atsegin pizka baten ordezt saldu ta galtzen dogu guk
be betiko zoriona oben-egiten dogunean. Goñoto izan obena,
ta adionez damutu, gero alpeñik izan ez daitezcan gure negañak.**

ITAUNAK

1. Zeintzuk seme izan ebezan Isaak eta Eñebeke'k?—2. Zelakoa zan
Esau ta zelakoa Jakob?—3. Zetan eragoyon Esau'k eta zetan Jakob'ek?—

4. Zein eban maiteago Isaak'ek eta zein Érebeke'k?—5. Beñola, katilukada-txiliste egosten ziarduala Jakob'ek, zer eskatu eutsan Esau'k?—6. Zer erantzun Jakob'ek?—7. Zer esan Esau'k?—8. Zer eskatu Jakob'ek?—9. Zin-egin ete eban Esau'k?—10. Onetan, zañaren-zañez itsututa, zertarako dei egin eutson Isaak'ek Esau'ri?—11. Berealaxe atera ete zan Esau eizara?—12. Bitartean, zer egin ete eban Érebeke'k?—13. Zer itandu eutson Isaak'ek Jakob'i?—14. Zer erantzun Jakob'ek?—15. Zer esan Isaak'ek?—16. Iku-tu ebanean, zer esan eban Isaak'ek?—17. Jan ezkerro onetsi ete eban Isaak'ek?—18. Jakob urten ordukoxe eldu ete zan Esau, ta zer esan aitari?—19. Añitu ete zan Isaak eta igañi ete eban Esau'ren ordezt Jakob onetsi ebala?—20. Zer esan eban, orduan, Esau'k negañez-oñoaka?—21. Zer onespen emon eutson Isaak'ek Esau'ri?—22. Noren irudi ta zetan dogu Jakob?
.....

Zin-egitea zer da?... Zer eragozten dausku zortzigañen aginduak?...
Alpeñik zin-egitea zer da?... Zer da bear izan barik zin-egitea?...

XII

JAKOB, LABAN'ENERA IGESI

1. Esau'k goñoto eban Jakob. Érebeke'k igañi eban Esau'ren asañe zitela ta Jakob'i esan eutson: *Zoaz, ene seme, Laban zure osabarenera ta an egon zaite zure anayari goñotoa joan arteraño.*
2. Gabak bidean artu eban Jakob ta añiz aurdiko ipiñita, lotaratu zan.
3. Amesetan, luñetik zerurañoako zurg uedo mañadia ikusi eban, eta Jauna'ren aingeruak gora-ta-bera ebiltzala. Zurguburuan zan Jauna ta esan eutson: *Neu nozu Abraham eta Isaak'en Jaungoikoa. Lo zatzazan luñaldea zeuri ta zure ondorengoai emongo dautzuet, zure oñordekoak luñeko autsa baizen ugari izango dira, ta zure jatorikoa izango da eñi guztiak onetsiko dituan Eroslea.*
4. Añiturik itzartu zan Jakob eta esan eban: *Bene-benetan*

toki onetantxe dago Jaungoikoa. ¡Toki au bai dala izugaria! Auxe, bai, ziñez, Jaungoikoa'ren etxe ta zeruko atari!

5. Eguna zabaldu ezkeroz, aña artu ta olioaz igortzi, ta donetsi eban, eta tokiari Betel edo jauretxe-izena ezañi eutsan.



6. Bideari jañaituz, añiaz estalita zan oxinera eldu zan, eta bertan iru artalde ziran abarotan.

7. Artzaiñai itandu eutsen Jakob'ek: *Nongoak zarie, anayok?*

8. — *Aran'goak*, erantzun eutsoen.

9. — *Laban, Batuel'en semea ezagutzen al dozue?* itandu eutsen Jakob'ek.

10. *Ezagutuko ez dogu, ba? Oía ortxe dator Érakel bere alaba artaldeagaz.*

11. Jakob'ek maitekiro agurtu eban Érakel, ta Érebeke' ren seme ta bere lengusu zala adirazo eutsan.

12. Ariñeketan joan zan Érakel etxera ta aitari esan eutson jazotakoa. Laban berealaxe agertu zan eta bere loba besarkatu ta etxera eroan eban.

13. Ogei urte buruan egon zan Jakob, bere osabarenean eta aren bidez ugaritu ebazan Jauna'k Laban'en ondasunak.

ETXERUNTZ'

14. Laban'en alaba bigaz ezkondu zan Jakob, lenengo Lia'gaz ta gero Érakel'egaz.

15. Baeban Jakob'ek moíoi-mirabe ta aberaskitan ugari, ta ainbesteraño aberastu zalako bekaitzez ikusten eban Laban'ek.

16. Etxera biurtzeko asmoa artu eban, ba, ta bere moíoi-mirabe ta abere guztiak batu, ta eíirako bidean jaíri zan.

17. Gabaz Jauna're^{ri} aingerua gertu yakon eta goizalde-raño aingeruagaz buíukan jardun eban.

18. Aingeruak izteko iñotson, baña Jakob'ek esan eutson: *Onetsi arteraño ez zaitut itxiko.*

19. Orduan aingeruak esan eutson: *Gaurgeroz ez zara Jakob izango, Israel edo garaitu-eziña baño.* Ta onetsi eban.

20. Eguzkia urteyeran, Esau bere anaya laureun gizonezkogaz etorkiola begiztau eban Jakob'ek.

21. Taldetan banandu ebazan bere ume, moíoi-mirabe ta abereak, eta bera auferatu ta saspi bider auzpeztuz, agur-egin eban bere anaya.

22. Esau atxintxiketan joan yakon eta besarkatu, ta laz-

tandu, ta pozaren-pozez negaía erion. Umetxoak ikusi ebazanean, itandu eutson: *Norenak dituzu oneik umeok?*

23. — *Jaungoikoa'k emonak ditut umeok, erantzun eutson Jakob'ek.*



24. Jakob'ek artalde bi eskiñi eutsozan Esau'ri; Esau'k ez ebazan artu nai, baña nai-ta ez artu - eragin eutsozan Jakob'ek.

25. Esan be ezin Isaak eta Eébeke'ren poza euron

semea baíro etxean ikusi ebenean. Zartzaro onean eta bake-tsu il ziran, seme-alaba ta iloba artean Isaak eta Eébeke.

IKASBIDEA

Lotsaz ta begirunez ibili Jauna'ren etxean. Toki ari baño obeto yagokoz gure jauretxeari Jakob'en itzok: «Toki au bai izugaí dala! Jauna'ren etxea da au, ziñez, ta zeruko atari!» Ikasi anayen gaizki-egiñak parkatzen, Jakob'ek Esau'ri parkatu eutsan legez. Gurasoak Jaungoikoa'ren ordezeko dira. «Jaungoikoak emonak ditut umeok». Jaungoikoa'ren ordezkotzat artu gurasoak. Gurasoak, baíz, Jaungoikoa'k emonak legez azizuen umeok.

ITAUNAK

1. Goñoto ete eban Esau'k Jakob bere anaya ta zer esan eutsan Érebeke'k?—2. Non artu ete eban Jakob gabak eta zelan lotaratu zan?—3. Zer ikusi eban amesetan?—4. Añiturik itzartuta, zer esan ete eban Jakob'ek?—5. Eguna zabaldu ezkeroz, zer egin eban?—6. Bideari jaraituz, nora eldu zan?—7. Zer itandu eutsen artzaiñai?—8. Zer erantzun artzañak?—9. Zer itandu bañiro?—10. Zer erantzun?—11. Maitekiro agurtu Érakel eta nor zan adirazi ete eutson?—12. Zer egin eban Érakel'ek?—13. Zeinbat urtetan egon zan Jakob bere osabarenean?

ETXERUNTZ

14. Nogaz ezkondu zan Jakob?—15. Moñoi-mirabe ta aberetan asko ete eban Jakob'ek?—16. Etxera biurtzeko asmoa artuta, zer egin eban?—17. Nor agertu yakon gabaz ta zetan jardun eban?—18. Zer iñotsón aingeruak eta zer erantzun Jakob'ek.—19. Zer esan eutsan, orduan, aingeruak?—20. Noz begiztau eban Jakob'ek anaya etorkiola?—21. Zer egin eban orduan Jakob'ek?—22. Abegi ona egin ete eutsan Esau'k Jakob'i?—23. Zer erantzun Jakob'ek?—24. Zer eskiñi eutson Jakob'ek Esau'ri?—25. Pozik ikusi ete eben Jakob bere gurasoak?

.....

Aingeruak zer dira?... Zertarako bialtzen ditu Jauna'k aingeruak?... Ba-dozu, beraz, zuk be zeure aingeru Yagolea?... Gurasoai dedu ta lotsa, nok ete dautse?... Zein da gurasoen umeakazko eginbeaía?... Seme-alabak ondo azteko, zer egin bear dabe gurasoak?... Zer irakatsi bear dautse, batez bere, gurasoak seme-alabai?...

XIII

JOSE, ANAYAK SALDU TA ATZERIRA DAROE

1. Amabi seme ta alaba bat izan ebazan Jakob'ek: Éruben, Simeon, Lebi, Juda, Dan, Netali, Gad, Aser, Isakar, Zabulon, Jose ta Benjamin, eta Diñe.

2. Jakob'ek kutun - kutun eban Jose ta soñeko nabar apaiña egin eutsan. Augaitik bekaitzez ikusten eben anayak.

3. Beñola, ardiak lafatzen ziarduela, gaiztakeri naska-gaíria egin eben anayak, eta Jose zintzoak aitari esan eutson. Aitak asaíre egin eutsen. Au zala-ta, anayak gaírtzago artzen eben Jose.

4. Ames aígaria izan eban Jose'k eta anayai esan eutsen: Ara zer ames egin dodan: Gari-eskutak egiten giñarduela uste neban, bai, ta nire eskutada zutunik eta lerden zan; zuonak, osterá, nireari makurtu egiten yakozen.

5. Anayak asaíre erantzun eutsoen: *Zer, ba? gure nagosi ta jaun izango zareala uste dozu ala?* Ta geroago ta goíotoago eben.

6. Beste ames bat izan eban Jose'k eta bere guraso ta anayai azaldu eutsen: «Eguzki, igitargi ta amaika izaírek gur-egiten ninduela uste neban».

7. Aitak asaíre egin eutson esanaz: *Zer, seme, zure ama, anai ta nik auzpeztuta gur-egingo zaitugula uste dozu ala?*

8. Baña aitak bere kautan erabiltzan amesok eta Jaungoikoa'k egikizun bikañen baterako aukeratu ebala Jose susmetan eban.

9. Anayak, etxetik urin, artzaintzan ziran baten, aitak deitu ta esan eutsan Jose'ri: *Zoaz ta zure anai ta artaldeak ondo ete dabiltzan ikusi egizu.*

10. Berealaxe atera zan Jose ta anaiakana joan zan.

11. Anayak ikusi ebenean, alkaíri esan eutsen: *Emen dator ameslaria, il daigun, ba, ta osiñera jaurti, ta piztien batek garbitu izango dauala esango dogu, orduan agiriko da non geratzen diran óren amesak.*

12. Eruben'ek esan eutsen: *Ez mutilak, ez egizuez zuen es-*

kuak anai-odolaz loitu, jaurti egizue orako osin oretara. Au iñoan osiñetik atara ta aitari bialtzeko asmoz.

13. Erantzi eben, ba, ta osin utsera sartu eben.

14. Bazkariten ziarduela, ismaeldar batzuk begiztau ebe-



zan, eta Juda'k esan eutsen: Zer irabazten dogu gure anayaren eriotzaz? Obe da saldu, ta ez loitu gure eskuak, anai dogu-ta.

15. Ismaeldarai saldu eutsen, ba, ta negar'ak-negar egiñaren Jose'k, anayen biotzak ez ziran samurtu.

16. Eruben ez zan anayakaz bazkaritan; eldu zaneko osiñera joan zan, eta Jose an aurkitu ez ebanean, samiñez

soñekoa uratu eban esanaz: *Mutikoa ez da emen agiri, ta nora jo
nik orain?*

17. Anayak ez eutsoen jaramonik egin. Aume - odolez
soñekoa goñitu ta aitari bialdu eutsoen esanaz: *Soñeku ori aur-
kitu dogu, ikusi zure semearena ete dan ala ez.*

18. Aitak, Jose'ren soñekoa ezaguturik, miñaren-miñez
jantziak uratu ebazan esanaz: *Bai, ene semetxoaren soñekoa da
au, pizti txaren batek garbitu dau Jose, ene semea. Ta zurdatzez
jantzi ta luzaroan negarez ekion.*

19. Enparau semeak etxeratu ziranean, aitaren naibagea
eztitu edo beintzat arinduteko alegin egiten eben. Baña Ja-
kob'en atsekabea gozatzekorik ez zan. *Negarez jatsiko naz il
obira ta neure semeagaz batuko naz, iñoan.*

IKASBIDEA

**¡Begiko egiten yakula, bai, bein, Jose mutil zintzoa ta ona!
Ikasi zuek be, aren antzera, garbi ta on izaten, eta ez egundo
zuen gurasoen biotzik mingoztu!**

ITAUNAK

1. Zeinbat seme-alaba izan ebazan Jakob'ek?—2. Semetarik zein ete
eban kutunen?—3. Zer egin eben, beñola, anayak eta nori esan eutson Jo-
se'k?—4. Zer ames izan eban Jose'k?—5. Anayak, asafe erantzun ete eu-
tsoen?—6. Beste amesik izan ete eban Jose'k?—7. Asaferik egin ete eutson
aitak?—8. Bere kautan ete erabiltzan aitak Jose'ren amesok?—9. Anayak
etxetik urin artzaintzan ziran baten, zer agindu eutsan aitak Jose'ri?—10.
Berealaxe atera ete zan Jose?—11. Anayak ikusi ebenean, zer esan eutsen
alkari?—12. Zer esan Eruben'ek bere anayai?—13. Erantzi ta zer egin eu-
tsoen?—14. Bazkaritan egozala, nortzuk begiztau ebezan?—15. Nortzuei
saldu eutsen?—16. Eruben areikaz ete zan eta zer esan eutsen eldu za-
nean?—17. Zer egin eben anayak?—18. Zer egin eban aitak Jose'ren so-

ñekoa ezagaturik?—19. Eztitu edo arindu ete eben anayak Jakob'en atsekabea?

.....

Zer da gaitzoimena edo griña txar... Griña txar nagosiak zeinbat dira?... Griña txarétatik, zein ete eben Jose'ren anayak?

XIV

JOSE, AIGITO'N

1. Aigito'n, Putipar eritxon gudari-buruari saldu eutsoen Jose ismaeldarak.

2. Jose'k bere zintzotasunez, beingoan bereganatu eban ugezabaren biotza, ta onek aren ardurapean ipiñi ebazan etxeko ondasun guztiak.

3. Putipar'en emazteak gaiztakeri bat eragin gura izan eutson Jose'ri, baña onek erantzun eban: *Zelan egin neike nik ori eta Jaungoikoa iraindu ta naibagetu?*

4. Emakume gaizto zetatsu arek, oben-eragiteko estalki bañenetik oratu eutson, baña Jose'k, estalkia bertan-bera itxi ta iges egin eban.

5. Orduan, Putipar'en emazteak estalkia bere senarari erakutsi, ta guzuzerz salatu eban Jose, ta Putipar'ek espetxe edo baitegian sartu eban.

6. Jose'gaz batera Paraon'en moñoi bi ziran espetxean, bata ogigiña ta bestea ontziduna edo Paraon'i edaten emon oi eutsona.

7. Ames lañi bana izan eben moñoi biok. Ontzidunak. «mastia ikusten eban eta mats-orpoari iru ayen erne yakoan; azi ta polito-polito loratu zan eta mats-mordo edeñak ekañi ebazan. Nik mats-mordoak sakatu ta eñegeari edaten emon

neutsan». Iru ayenak iru egun dira, esan eutsan Jose'k; iru egunok ezkeroz, éregek lengo egikizunean ipiñiko zaitu, ta len legez éregeri edaria emoten jañaituko dozu. Gomuta ni-



tzaz ta baitegi onetatik atera nagiala esayozu éregeri, érubarik nago emen-da».

8. Ogigiñak esan eutson: «Ona emen nire amesa: Burugañean iru otaíe neroazan urunez beteta, ta txoriak etoí, ta jan egiten eusten». Iru otaíok iru egun dozuz, esan eutson Jose'k; iru egunok ezkerok, éregek burua mostuko dautzu, ta gurutzean eskegiko zaitu, ta egaztiak jango dabe zure gorpua».

9. Iru egun bañu, éregeren seme-jayotza ospatzeko jayak zirala-ta, Jose'k iragañi eban legez, ontziduna baitegitik atera ta ogigiñari burua moztu eutson Paraon'ek. Baña ontziduna ez zan Jose'gaz gogoratu.

10. Urte bi geroago, ames laña izan eban Paraon'ek. Nil ibaitik sasaki bei lodi-lodi ta beste sasaki makal-erkiñak urten zirala zirudion. Sasaki erkiñok, bañiz, sasaki lodiak iruntzi ebezan. Baita lasto batetiko sasaki galburu mardul be, beste sasaki zimur'ek itsustu ta iruntsi ebezan.

11. Jagi zanean, Aigito'ko asmatzale ta jakitun guztiak deitu ebazan Paraon'ek, baña iñortxok be ezin azaldu izan eutsozan amesok.

12. Orduan, arako ontzidun arek esan eutson éregeri: *Jauna, gu baitegian gintzazala, ebetar gaste batek asmau euskuzan ogigiñak eta nik izan genduzan amesak.*

13. Jose ekañi eben, ta, onek esan eutson: *Ames biok gauza bat iragarten dabe. Sasaki bei lodi-lodi ta sasaki galburu mardulak, sasaki urte ugari-ugariak izango dirala adirazten dabe, sasaki bei makal ta sasaki galburu zimur'ak, ugarien ur'engo etor'iko diran sasaki urte ur'iak. Gosete izugaria izango da alde guzti onetan eta sasaki urteko ugartitasunak urtuko dira. Gizon zur ta eraiña jari begi, ba, buru éregek, sasaki urte ugarietan ur'engo sasaki ur'ietarako garia kutxetan batu dagian.*

14. Atsegin izan yakon Paraon'i Josu'ren onua ta esan eban: *Non aurkitu berau legez Jaungoikoa'ren arnasaz beteta dagon gizonik? Ta Jose'ri eban eutson: Oñ Aigito osoaren Buru jarten zaitut, ta eri guztia zeure menbeko izango da, éregetzan bakari nagosi izango nayatzu. Ta bere eskutik erestuna atara, ta Jose'ri ezañi eutson, eta soñekorik edeñena jantzita, kalerik kale erabili eben, aur'etik deadar egiten ebala gizonak: Belauniko jarita, Aigito'ko Agintari ta Jaurletzat artzeko Jose. Izena bere aldatu eutsan eta Gaizkatzalea ezañi.*

15. Jesukristo'ren irudi agiri-agiria dogu Jose. Jose eruega bere anayak bekaitzez saldu eben legez, Jesus on-ona Beldu batek saldu ta bere odolekoak arrotzen eskuetan ipiñi,



ta gurutzean josi eben. Guzuzez salatua izan zan Jose; guzuzez salatua Jesus. Gaizkin bigaz egon zan Jose baitegian; batari zoriona ta besteari eriotza iragañi eutsen; lapur bien erdian egon zan Je-

sus gurutzean eta batari betiko zoriona emon eutson, bestea bere eruz galdu zan. Jose'ri Aigito'ko Gaizkatzalea eritxon; Jesus gizadi osoaren Gaizkatzalea dogu. Jose neke ondoren goi-gora jaso eban Jauna'k; Jesus eriotz-ondoren biztu ta zerura igon zan.

IKASBIDEA

Apal izan. Garbi ta apalak Jaungoikoa'k bereziki zaintzen ditu ta neke ondoren gora jaso.

ITAUNAK

1. Nori saldu eutsoen Jose ismaeldar'ak?—2. Jose'k bere zintzotasunez bereganatu ete eban ugezabaren biotza?—3. Zer eragin gura izan eutson

Jose'ri Putipar'en emazteak eta zer erantzun Jose'k?—4. Emakume gaizto zetatsu arek, zer egin eutson Jose'ri ta zer egin eban Jose'k?—5. Zer egin eban, orduan, Putipar'en emazteak eta non sartu eban Jose Putipar'ek?—6. Nortzuk ziranbaitegian Jose'gaz batera?—7. Zer ames egin eban ontzidunak?—8. Zer ames ogigiñak?—9. Éregeren seme-jayotza ospatzeko jayak zirala-ta, zer egin eban Paraon'ek mo'roi biokaz?—10. Urte bi ge-roago, zer ames izan eban Paraon'ek?—11. Jagi zanean, nortzuk deitu ebazan Paraon'ek?—12. Zer esan eutsan, orduan, ontzidunak Paraon'i?—13. Asmau ete eban Jose'k Paraon'en amesa?—14. Atsegin izan ete yakon Paraon'i Jose'ren onua ta zer esan eta egin eban?

.....

Zeintzuk onoinen dagoz saspigriña txa'eren aurka?... Zer egin bear da aragikeritik iges egiteko?... Zer da gaizpidea?... Zein da gaizpide guztietatik Jesukristo'k geyen txa'ersten dauana?... Ba-ete dogu iñori emondako gaizpidea kendu bearik?

XV

JOSE'REN ANAYAK, AIGITO'RA

1. Saspiguri urte ugarietan, Aigito'n ziran kutxak gariz bete ebazan Jose'k. U'rialdian e'ria gari-eske joan yakon e'regeri ta onek esan eutsen: *Zoaze Jose'gana ta berak esaten dautzuen egin.* Jose'k kutxak idigi, ta nai-aña emon eutsen Aigitoa'rai.

2. Baita Kanaan aldean bere, gosete la'ria zabaldu zan. Jakob'ek bere semeai esan eutsen: *Zoaze ta bear doguna erosi, gosez il ez gaitazan.*

3. Joan ziran, ba, Aigito'ra Jose'ren anayak. Benjamin, o'raitio, etxean geratuazo eban Jakob'ek, ezbea'eren bat jazo ez egikion.

4. Adu onez eldu ziran Aigito'ra ta Jose'ri aurkeztu, ta lu'eraño makurturik gur-egin eben. Jose'k berealaxe ezagutu ebazan. Baña eurak ez e'ben ezagutu Jose, ogetabi urte igaro

bai ziran, saldu eben ezkerotik onañõ. Amasei urte ebazan orduan Jose'k eta ogetamazortzi orain.

5. — *Nondik zatoze? itandu eutsen Jose'k. Salatariak zarie zuek ausaz ta gure eria aztertzeraz zatoze.*

6. — *Ez jauna, erantzun eutson; janari bila etori gatorz, bakezkoak gozuz zure mo'oyok, asmo txarez ez gatorz. Amabi anai gara ta Kanaan aldetik gatorz. Txikarena aitagaz geratu da ta bestea ez da bizi.*

7. — *Bai, bakezkoak izango zarie zuok, baña zuetarik batek bauran geratu bear dau emen, zuek janariekaz etxera itzuli ta zuen anai txikiena eka'ri arterañõ.*

8. — *Txarto egiñen ordaña dogu au, iñotsoen alka'ri; ez gintzazan, ba, gure anayaren eruki izan, negarez eskatzen euskunean.*

9. Jose'k ulertzen ez eutselakoan ziarduen alka'regaz, baña Jose'k guztia ulertzen eutsen, eta alderatu ta nega'ari emon eutson.

10. Ba'iro etori, ta Simeon lotu-azo eban. Gero zo'roak gariz bete, ta bakoitzaren zo'roan bere dirua jarteko agindu eutsen mo'oyai.

11. Zo'roak asto gañetan eza'ri ta etxerakoa artu eben Jose'ren anayak. Etxera elduki, jazo yaken guztia esan eutsoen aitari; baña zo'roak uztu ta bakoitzaren zo'roan bere dirua ikusi ebenean, a'rituta gelditu ziran.

12. Jakob'ek esan eutsen: *Seme barik itxi nozue: Jose ez da bizi, Simeon baitegian geratu da ta Benjamin be kendu gura daustazue. Ez ba, ez dautsot itxiko Benjamin'i joaten, ezbearen bat jazoko ba'litzakio, saminez jatsiko nintzake ilobira.*

13. Bitartean, gariak jan ebezan-da, gosete go'rian bizi ziran. Jakob'ek esan eutsen semeai: *Zoaze ba'iro Aigito'ra ta garia erosi egiskizue.*

14. Juda'k erantzun eutson: *Nagosi arek zin-eginda esan*

euskun: Ez dozue nire arpegia ikusiko zuen anairik txikarena zuekaz ez padakartzue. Itxi eiguzu, ba, Benjamin eroaten, gosez il ez gaitazan.

15. —Bear-beara ba'da, nai dozuena egin, erantzun eban Jakob'ek. Tgalirik onenak eta esku-sariak be eroan gizon areri. Baita zofoetan aurkitutako dirua be, okeeren bat izan ba-da edo... Jaun altsuak samurtu begi gizon aren biotza, baitegian dagon semea ta Benjamin neure kutuna biurtu dagizuezan. Bitartean seme barik geratuko naz ni.

16. Zorionez eldu ziran Jose'ren anayak Aigito'ra, Benjamin eta esku-sari ta guzti.

17. Oturuntza gertetako agindú eutsan Jose'k otsein-buruari, eguerdi atan beragaz bazkaldu bear ebela-ta.

18. Bildurez-ikara joyezan Jose'ren jauregira, zofoetako dirua zala-ta, okeeren bat izango ebelakoan, baña otsein-buruak esan eutsen: Ez bildurik izan. Eta Simeon ekañi eutsen.

19. Jose aurkeztu yakenean, luñeraño makurtuta gur-egin eben, eta esku-sariak eskiñi eutsoezan.

20. Abegi onez agurtu ta esan eutsen: Zuen aita zara bizi al da? Ta ondo ete dabil?

21. —Bai jauna, gure aita zara bizi da ta ondo dabil.

22. Benjamin ikusi ebanean itandu eutsen: Au al dozue zuen anai txikarena? ¡Jaungoikoa'k onetsi bizaiz, ene seme! Ta negarari eutsi eziñik, alde egin eban. Mosua garbitu ta bañero itzuli zanean, otseñai esan eutsen: Ekañi jatekoa. Zarenik-zaren jañi ziran mai-inguruan eta Benjamin'i besteai baño bost bider geyago emon eutson. Jan-da edan eben, eta ariturik eta poz-pozik egozan.

IKASBIDEA

Jaungoikoa'k bere ardurapean gaukaz. Gure Aita Goikoa-gan ipiñi zuen uste ta itxaropen osoa.

ITAUNAK

1. Zer egin eban Jose'k sasaki urte ugarietan eta zer urfaldian?—2. Kanaan aldean be zabaldu ete zan gosetea ta zer esan eutsen Jakob'ek bere semeai?—3. Joan ete ziran Aigito'ra Jose'ren anayak eta nor etxean geratu-azo eban Jakob'ek?—4. Adu onez eldu ete ziran Aigito'ra ta zer egin eben? Jose'ren zein ames bete zan emen?—5. Zer itandu eutsen Jose'k?—6. Zer erantzun eurak?—7. Zer eskatu Jose'k?—8. Txarto-egiñaz gomutau ete ziran Jose'ren anayak?—9. Ulertzen ete eban Jose'k areik iñoena?—10. Bañiro etoñi ta zer egin eban Jose'k?—11. Etxerakoa artu ete eben anayok eta zertzaz aritu ziran etxera elduki?—12. Zer esan eutsen Jakob'ek?—13. Bitartean, zer jazo zan?—14. Zer erantzun eutsan Juda'k aitari?—15. Zer esan Jakob'ek?—16. Zorionez eldu ete ziran Aigito'ra?—17. Zer gertatzeko agindu eutson Jose'k otsein-buruari?—18. Bildurez-ikara ete joyezan Jose'ren jauregira ta zergaitik?—19. Zer egin eben Jose aurkeztu yakenean?—20. Abegi ona egin ete eutsen Jose'k eta zer itandu?—21. Zer erantzun eurak?—22. Benjamin ikusi ebanean, zer itandu eutsen?—23. Mosua garbitu ta bañiro itzuli zanean, zer esan otseñai?

.....

Ba-ete dau Jaungoikoa'k izaki guztien ardurea?... Gurasoai dedu ta lotsa nok ete dautse?... Zer eskatzen dozu «gatxetik jagon gaizuz» esanaz?...

XVI

ANAYAI BERE BURUA AGERTZEN DAUTSE JOSE'K

1. Anayak ondu ete ziran ala ez jakin gura izan eban Jose'k. Oretarako, bazkal-ondoan otseñari deitu ta esan eutson: *Gonburu bete egiezuz zoñoak eta bakoitzari bere zoñoan ipiñi dirua, ta txikienaren zoñoan neure zidañezko edontzia.*

2. Biaramonean, etxerako bidea artu eben. Uritik alde ziranean, Jose'k otsein-buruari esan eutson: *Zoaz bizkor ta gizon oñeik atzemon (arapau) ta esayezu. Zer dala-ta on-egiña txaréz*

ordaindu dozue? Zuek ostu dozuen edontzia nire ugezabaren edontzi berbera da, gaiztakeri baltza egin dozue.

3. Jose'k esana egin eban otsein-buruak. Anayak bilduez izututa erantzun eben: *Ez dogu guk zure ugezabarenean ez urerik, ez zidarik ostu. Edontzia daroana il bedi ta gu guztiok zure yopu izan gaitzala.*

4. Zoñoak luñera eratsi ta arakatzen asi ziran, zañenetik gastieneraño, ta Benjamin'en zoñoan agertu zan edontzia.

5. Orduan, saminez soñekoak uratu ta zoñoak astoai ezañi, ta bañiro uriratu ziran.

6. —Zergaitik egin dozue olakorik? esan eutsen Jose'k.

7. Juda'k erantzun eutson: *Zer esan gegike ta zer agiri aurkeztu geure buruak garbitzeko? Jaungoikoa'k gaizkin aurkitu gaitu ta orixegaitik bialtzen dausku naibage au. Edontzia egon dan zoñoaren jabea ta gu guztiok zure yopu izango gayatzuz.*

8. —*¡Ez orixe!* erantzun eban Jose'k; edontzia ostu dauana, *axe izango da nire yopu ta besteok aitarengana joango zarie.*

9. Orduan Juda'k azaldu eutson zeinbateraño atseka-bea izan eban aitak Benjamin Aigito'ra bialtzeko ta orain ume barik geratzen *ba-da, ilgo da, ta saminez eratsiko dogu guk ilobira bere zartzaroan. Neu geratuko naz, ba, mutikoaren orde zure yopu, ta anayakaz aitagana joaten lagayozu.*

10. Jose'k ezin izan eutson negañari eutsi ta Aigitoañak aterazo ta negar-alaraoka ekin eutson esanaz: *Neu nozue Jose. Bizi al da, ene aita?*

11. Anayak añituta, ixil-ixilik, itz-egiteko adore barik gelditu ziran.

12. Jose'k, seneratu, ta iri-bañeka esan eutsen: *Erdueze, neu nozue Jose, zuek saldutako anaya. Ez bildur izan, zuen onerako ekañi nindun, ba, Jaungoikoa'k Aigito'ra, zuek zegaz bizi izan dagizuen. Ez nintzan zuen aburuz, Jaungoikoa'ren olde ta gogoz baño*

Aigito'ra etori, ta Jaunak Nagosi ta Jaurle egin nau. Zoaze, ba, bizkor aitagana ta esayozue: Jose, zure semeak diñotzu: Jaungoikoa'k Aigito'ko Jaurle egin nau, zatoz, ba, bizkor. Alderik ederenean biziko zara ta senide guztiontzako jana izango dozue. Orduan Benjamin



besarkatu ta negaréz laztandu eban, baita Benjamin'ek bera be. Enparau anayak be mosu egin eutsen eta pozaren negaréz egozan.

13. Laster zabaldu zan éregeren jauretxean Jose'ren anayak agertu zirala, ta érege poztu zan, eta aita ta guzti Aigito'ra etorteko agindu eutsen.

14. Ainbat soñeko ta gauza eder emon eutsen Jose'k

bakoitzarentzat, ta aitarentzat, eta alkarégaz asáretu barik ibilteko aginduaz, bialdu ebazan etxera.

15. Etxera elduki, jazo yaken guztia esan eutsoen aitari, ta Jose bere semea bizi zala ta Aigito'ko Jaurle zala.

16. Jakob'ek lo-zořotik itzartu bai litzan, erantzun eban: *Jose bizi ba-da, naikoa dot. Il baño lenago ikustera joango naz.* Ta bere gauza guztiekaz Aigito'rako bidea artu eban.



17. Juda aúf-erago joan zan eta aita etořa-la iragaři eutsan Jose'ri. Jose zalpurdiz joan zan aitari urtetera, ta begiztau ebanean, zalpurditik jatsi, ta pozaren - pozez negařa eriola besarkatu eban. Aitak

esan eutson: *Oraintxe bai pozik ilgo naz zure arpegia ikusi dot-eta.*

18. Gero eřegeri aurkeztu eutsan Jose'k bere aita. Eřegek itandu eutson: *Zeinbat urte dituzu?*

19. —*Eun-da ogetamar dira erbeste onetako nire urteak, gitxi ta latzak,* erantzun eutson Jakob'ek. Eta eřege onetsi ta atera zan.

20. Aigito'ko alderik yoriena emon eutsen Jose'k bere aita ta anayai, ta bear eben guztiaz ornitu ebazan.

21. Amasaspi urte geyago bizi izan zan Jakob Gesen aldean. Eriotz-ur egoala, Eprain eta Manase bere seme biekaz

joan yakon Iose. Jakob'ek mosu emon eta onetsi ebazan esanaz: *Gastearoan gaitz guztietatik zaindu nindun aingeruak onetsi zagezala. Ta Jose'ri esan eutson: Itzer nagola ba-dakutzu: Jaungoikoa zuekaz izango da ta asabaren lurraldera eroango zaitue.*

22. Gero, bere seme ta semien ume guztiak oge ondoan batu ta onetsi ebazan, baña batez bere Juda'ri esan eutson: *Juda'gandik agintaritzak ez dau alde egingo, arek eta eriak itxaroten dabena—Bealdua edo Mesi—etori arteraño.*

23. Azkenez esan eutson: *Kanaan aldean nire gurasoakaz obiratu nagizue, ta Jaungoikoa'ren besoetan il zan.*

24. Orduan Jose'k mosuka ta nega'rez laztandu eban aitaren arpegia, ta Aigitoa'ak oi eben legez gorpua igortzi ondoren, Kanaan'go Ebron'en obiratu eban.

25. Eun-da amar urte bizi izan zan Jose, ta bere semien umeak, iruga'ren belauneraño, ezagutu ebazan. Il-u'fean, anayai esan eutsen: *Nire eriotz ondoren Jaungoikoa zuekaz izango da: ta Abraban, Isaak eta Jakob'i agindutako lurraldera eroango zaitue, nire azurak be zeuekaz eroan.*

26. Il zanean bere gorpua igortzi ta kutxan sartu eben.

IKASBIDEA

Erbeste onetako gure egunak gitxi ta latzak dira. Ez emengo gauzai biotzik ezafi.

ITAUNAK

1. Anayak ondu ete ziran ala ez jakiteko, zer egin eban Jose'k?—2. Noz artu eben etxerako bidea ta zer egin eban Jose'k uritik alde ziranean?—3. Jose'k esana egin ete eban otsein-buruak eta zer erantzun eben Jose'ren anayak?—4. Noren zo'roan agertu zan edontzia?—5. Orduan, zer egin eben?—6. Zer esan eutsen Jose'k?—7. Zer erantzun Juda'k?—8. Zer Jose'k?—9. Azaldu ete eutson Juda'k zeinbateraño atsekabea izan eban

aitak Benjamin Aigito'ra bialtzeko ta zeren bildur zan ume barik geratzen ba-zan?—10. Jose'k negari eutsin ezinda, zer egin eban?—11. Zelan gelditu ziran anayak?—12. Jose'k, seneratuta, zer esan eutsen?—13. Laster zabaldu ete zan egegeren jauretxean Jose'ren anayak agertu zirala ta zer agindu eban egegek?—14. Zer emon eutsen Jose'k bakoitzarentzat eta aitarentzat?—15. Etxera elduki, jazo yaken guztia esan ete eutsoen aitari?—16. Jakob'ek lo-zoñotik itzartu bai-litzan, zer erantzun eban?—17. Nor aurreragotu zan Jose'ri aita etoñala iragarteko ta zer egin eban Jose'k?—18. Zer itandu eutson egegek Jose'ren aitari?—19. Zer erantzun Jakob'ek?—20. Aigito-alderik yoriena emon ete eutsen Jose'k bere aita-anayai?—21.—Zeinbat urte geyago bizi izan ete zan Jakob Gesen aldean eta eriotz-ur egoala, zer esan eutson Jose'ri?—22. Seme ta semien umeak onetsi ezkeru, zer esan eutson Juda'ri?—23. Zer agindu eutsen azkenez?—24. Zer egin eban Jose'k aitaren gorpuagaz.—25. Zeinbat urtetan bizi izan zan Jose?—26. Il zanean, non ipiñi eben bere gorpua?

XVII

JOB DEUNA

1. Hus luñaldean bizi zan Job, gizon zintzoa, eroakoya ta Jaungoikozalea.

2. Aberats-aberatsa zan Job; saspí seme ta iru alaba ebazan; aberetan, bañiz, zenbatu ezin ala; ta aberats izatez gañera, gizon zuña ta biotz-zabala zalako, inguruetako guztiak aitatzat eben

3. Ondasun guztiok bat-batera galdu ebazan Job'ek, baita bere seme-alabak bere. Orduan esan eban: *Bilosik atera nintzan amaren sabeletik eta bilosik jatsiko naz luñaren sabelera: Jaungoikoa'k emon eustan eta Jaungoikoa'k kendu daust: Jauna'ren izena donetsi bedi.*

4. Ez ziran oñenbestegaz amaitu Job'en ezbeñak. Jaungoikoa'k laga-ta, legenañez edo eri-ustelez jo eban txerenek;

lañinean etzunda, tela bategaz garbitzen eban usteleritik erion sorna, ta buru-erpiñetik beatzetaraño zauriz josita, min-alak eroazan.



5. Au naikoa ez-pai'litzan, bere emazteak destañez iñotson: *Bai, bai, onetsi egizu Jaungoikoa ta il zaitte.*

6. —Baña Job'ek erantzun eutson: *Emakume txolin eta buru-ariñak legez daragoyozu. Onak Jaungoikoa'ren eskuetatik artzen badoguz, ¿zer dala-ta txararak ez artu?*

7. Iru adiskide be agertu yakozan, eta aukera lañi atan ikusi ebenean, arítuta, itz-egiteko adore barik gelditu ziran.

Iru lagunok, Job'en biotza poztu ta adoretu beárean, asáreka asi yakozan eta len baño be sumiñago itxi eben.

8. Ainbeste neke-loíetan ez eban Job'ek egonaí ta eroapenik galdu. Siñismena biztu, ta *azken-egunean luíetik jaiki ta Eroslea bere begiz ikusiko ebanaren itxaropenez* poztu ta indartzen zan bere gogoá.

9. Job'en zintzotasun eta eroapena saritu ebazan Jauna'k. Sendotu zan, eta beste saspí seme ta iru alaben aita egiñaz gañera, lenagoko ondasunak bikoiztuta emon eutsazan Jauna'k, eta zartzaro onean il zan.

IKASBIDEA

Zoritxar ta neke -aldietan Job'en antzera esan: Jauna'k emon eustan eta Jauna'k kendu daust: Jauna'ren izena done-tsi bedi.

ITAUNAK

1. Nor bizi zan Hus luíaldean?—2. Aberatsa ete zan Job?—3. Zer jazo yakon Job'i ta zer esan eban bere ondasun eta seme-alabak galdu ebazanean?—4. Ondasun eta seme-alabak galtzez gañera, beste ezbeaírik izan ete eban Job'ek?—5. Zelan samindu eroyan Job bere emazteak?—6. Zer erantzun eutson Job'ek?—7. Adiskiderik agertu ete yakon Job'i ta bere nekerik arindu ete eutsoen?—8. Ainbeste neke loíetan, ez ete eban Job'ek egonaí ta eroapenik galdu ta zegaz poztuten zan?—9. Zelan saritu eban Jauna'k Job'en eroapena?

.....

Gizonaren azagak zenbat dira?... Zer da eriotza?... Zer egiten da gorputza eriotz-ostean?... Eta munduaren azken-aldian, ildako guztiak berbiztuko ete dira?... Jaungoikoaren Legea betetako eragozpenik garaitu bear ete da?... Ziltzaldiak zer dira?... Zeintzuk dira gure arimearen etsayak?... Zelan garaitzen da diabrua?

XVIII

MOIS

1. On asko egin izan eutsen Aigito'ko bakaldunak Jakob'en seme-bilobai, ta bitartean, eruz ugaritu ziran israe-



dañak Aigito'n. Baña Jose ezagutu ez eban Paraon bañiak, etxegintza ta nekazaritzako lanik gogoñenetan otsein ipiñi ebazan eta euren ume jayo-bañiak Nil-ibaira jaurtiteko agindu eban.

2. Mois jayo zanean, bere amak iru ilebetean ezkutau

eban; baña luzaroagoan eziñik, pikez ondo igortzitako otzaratxo baten umea sartu ta Nil-ibayan itxi eban.

3. Paraon'en alaba, uger - egiteko ibaira joan zanean, otzaratxoa begiz jo eban, eta bañuan egoana ikus-guraz, aterazo ta alako ume polita agertu zanean, semetzat artu eban.

4. Mois'en ařeba zan an inguruan, zer jazoko ete zan zain, eta umetxoa aziteko iñudea berak aurkituko eutsola esan eutson Paraon'en alabari, ta ama berbera ekaři eban egikizun onetarako.

5. Koskondu zanean, ikastetxera asi zan, eta Aigito'n irakasten zan guztia ikasita, oso jakitun atera zan.

6. Beřogei urte ebazala Mois'ek, bere eřiaren alde jokatzearen, Paraon'en jauregitik Arabia'ra iges egin eban; emen, aitagiñařebaren artalde zain iñar ebala, sutan egonařen eřetan ez zan sasia ikusi eban, eta zer ete zan uřeratu zan.

7. —*Ez zaite uřeratu, egin eutsan Jauna'k: zure oñetakoak azkatu egizuz, zu zagozan toki ori toki deuna da-ta. Neu nozu zure gurasoen Jaungoikoa.*

8. Mois'ek itzalez arpegia estali eban.

9. —*Nire eřiaren lařialdia ikusi dot eta Paraon'en menbetik azkatu nai dot. Erdu ta Paraon'engana bialduko zaitut nire eřia Aigito'tik atera dagizun.*

10. Mois'ek esan eutson: *Nor naz ni Paraon'engana joan-da isřaeldařak Aigito'tik atarateko?*

11. —*Neu izango nozu zeugaz, esan eutsan Jauna'k.*

12. Mois'ek yardetsi eban: *Ez dabe, baña, siñistuko ta «Jauna ez yatzu zuri agerlu» esango dauste.*

13. Orduan Jauna'k esan eutson: *Zure makila artuta luřera jaurti egizu. Luřera jaurti eban eta suge biurtu zan.—Elduyozu orain sugeari, esan eutson Jauna'k. Eldu eutsan eta makil biur-*

tu zan.—Zantzu ori egikezu ta israeldararak siñistuko dautzue, esan eutson Jauna'k.

14. Aaron bere anaya lagun artuta joan zan Mois Paraon'engana ta esan eutson: *Ona Jaungoiko Jauna'k diñotzuna: Nire eriarri amain emoyozu, basoan opariak eskiñi dagistazan.*

15. Baña Paraon'ek aro-aro erantzun eutson: *Nor da Jau-*



na nik aren de-ya entzuteko? Ez dot Jauni'k eza-gutzen eta israeldarai be ez dautset joaten itxi-ko.

16. Orduan amar neke-miñez zigortu eban Jauna'k Aigito. Amar zigoñak onixek izan ziran: 1.^a Aigito'ko

urak odol biurtu; 2.^a Aigito ugaraixoz bete; 3.^a Aigito eltxoz ondatu; 4.^a Aigito euli aundiz estali; 5.^a abere-izurña; 6.^a gizon-izurña; 7.^a arikaskabar-izurña; 8.^a landa-basterak larapotez bete; 9.^a iru gau-egunetako ilunaldia eta 10.^a gizon eta aberien seme zañenen eriotza.

17. Amar zigor oneitatik batek bere ez ebazan israeldararak jo.

18. Sendi-bakoitzak bildots bana ilteko ta bildots-odolaz ateburuak margozteko agindu eutsen Mois'ek israeldarai, Aigitoaren seme zañenak ilten igaroko zan aingeruak arein

semeai ikutu ez egien; gero, bañiz, bildotsa ére ta azuñik ausi bage jateko.

19. Bildots ori Jesukristo'ren irudirik bikañena dogu. Jesukristo da gizonen obenak kentzen dituan bildots érugea.

20. Azkenengo zigor onez bildurtuta, Paraon'ek Aigito-tik urteteko baimena emon eutsen israeldarai. Baña gero, damututa, guda-

rozte izugaria atera zan arein jarai.



21. Itxaso goñia auñean, eta Paraon'en gudaroztea atzean eben israeldarak. Orduan Moïs'ek eskumako makilaz urak erdibitu ta oñ-ik be busti ba-

rik igaro ziran israeldarak alde batetik bestera.

22. Aigitoarak be bide bertatik igaroten asi ziran, baña itxas-erdian zirala urak bañiro alkar jo eben, eta Aigitoar guztiak antxe ito ziran.

23. Itxasoa igarotakoan, israeldarak benetan poztu ziran, eta Aigitoaren menbetik onez atera ebazalako, esker-egin eutsoen Jauna'ri.

24. Jesukristo'ren irudi bipila dogu Moïs. Neke-gogofetan zan Jauna'ren eria Aigito'ren menbean. Txerenen menbe-ko gintzazan gizonok be. Moïs aukeratu eban Jaungoikoa'k

bere eña Aigitoaren menbetik azkatu ta Berak agindutako luñaldera eroateko. Jesukristo, Jaungoiko-Seme gizon egiñak, txerenen menbetik azkatu ta Berak irasitako Eleizara erakañi gaitu.

IKASBIDEA

Jaungoikoa'ren deya entzun eta jaraitu, Mois'en antzo.

ITAUNAK

1. Zer jazo yaken Aigito'n Jakob'en seme ta bilobai?—2. Mois jayo zanean, zer egin eban aren amak?—3. Nok jaso eban Mois uretatik?—4. Zer egin eban bere arobatxoak?—5. Zertan igaro eban Mois'ek gastearoa?—6. Noz, nora ta zergaitik iges egin eban Mois'ek Paraon'en jauregitik?—7. Non agertu ta zer adirazi eutsan Jauna'k Mois'i?—8. Zer egin eban Mois'ek Jauna'ren itza entzundakoan?—9. Zer esan eutsan Jauna'k Mois'i?—10. Zer Mois'ek Jauna'ri?—11. Zer Jauna'k Mois'i?—12. Zer yardetsi Mois'ek?—13. Orduan, zer esan eutsan Jauna'k?—14. Nogaz joan zan Mois Paraon'engana?—15. On artu ete eban Paraon'ek?—16. Zeinbat eta zeintzuk neke-min ezañi eutsazan Jauna'k Paraon'i?—17. Zigor oneik jo ete eben israeldarrik?—18. Zer agindu eutsen Mois'ek israeldarai azkenengo zigoretik alde egiteko?—19. Noren irudi dogu Igaratz-bildotsa?—20. Emon ete eutsen Paraon'ek israeldarai joateko baimenik?—21-22. Zer jazo yaken israeldarai ta zer aigitoarai itxas-goñian?—23. Itxaso igarotakoan, zer egin eben israeldarak?—24. Jesukristo'ren irudi bipila ete dogu Mois eta zetan?

.....

Zeintzuk dira katolikuok geure eñiaz doguzan egikizunak?... Gure izenak autespide-izendegian ezarteko ta auteskunde egunean autarki edo botoa emoteko bearturik ete gagoz katolikuok?... Zelango gizonak autu bear doguz katolikuok auteskundietan?... Autetsi ete geinke katolikuok auteskundietan Eleizaren kontrako eretxiak daukazanik?... Jesus-izenak zer esan nai dau?... Zelan gaizkatu ginduzan Jesus'ek?

XIX

ISRAELDARAK BASOAN

1. Itxasoa igaro-ta laster aitu ebezan israeldarak Aigito' tik ekañitako janariak eta Mois'egaz asafatuta, bere aurka mar-marka ziarduen.

2. **Mana** eritxon janari gozoa izuriten eutsen egunero Jauna'k, baita, aragi-eske ziralako, ok-egiteraño asetu ebazan pospoliñez be.

3. Egaña asetako, bañiz, Mois'ek bere makilagaz arkaitza jo ta ur bizidun ituñiak sortu-azoten ebazan.



4. Iru ilabete buruan eldu ziran Sinai-mendira israeldarak, eta Mois mendigarayan zan bitartean, eña beyan, bakoitza bere txaboletan geratu zan.

5. Menditik jasteko esan eutsan Jaungoikoa'k Mois'i, ta soñeko garbiak jantzita, mendi-oñeraño uñeratu eitezala agintzeko bere eñitañai.

6. Oñestu, yusturi ta trumoi artean iragañi eutsen Jauna'k bere Legea israeldarañai.

7. Mois bañiro mendira igon zan eta befogei gau-egunetan Jaungoikoagaz inardun eban. Añizko ol bitan idatzita emon eutsozan «Amar Aginduak».

8. Bitartean, israeldarak Aaron'i esan eutsoen: *Aigitoaren antzeko jainko-izunak egiguzuz, Mois ori zer jazo yakon ez dakiguita.*

9. —*Zuen emazte ta alaben ure-pitxiak ekañi egidazuez,* esan eutsen Aaron'ek.

10. Ez eban uste emongo eutsoezanik, baña eskatu baiizen laster ekañi eutsoezan ure-pitxiok, eta Aaron'ek, koldarkeri ta epelkeriz, urtu ta urezko zekoña egin eban, eta irudi oñen aurean opa-maya jaso.

11. Israeldarak opariak eskintzen eutsoezan, eta arotzen antzera jan - edan eta jolasketa nasai ta dantzetan ziar-duen.

12. Menditik jatsi ta ori ikusi ebanean Mois'ek, añizko ol biak jaurti ta apurtu ebazan. Gero, urezko zekoña artu, ta ere, auts-egiteraño zetu, ta urez nastauta, eñiari edan-eragin eutsan. Eta Lebitarai ots-egin eta 23.000 gizoneraño erail ebazan gaiztakeri oñen ordañez.


13. Urengo egunean bañiro mendira igon zan Mois ta Jauna'ri otoi egin eutson, eñiarentzat erukia ta parkamena eskatuaz.

14. Jauna'k Mois'en bitartez parkatu eutson eñiari.

15. Ol bitan bañiro idatzi-ta emon eutsozan Mois'ek eñiari Jauna'ren aginduak.

16. Oretzaz gañera, Jaungoikoa'ri zor yakon menbetasuna erakusteko agindu batzuk be ezañi eutsozan: urteburuan izango ebezan jai-egunak, seme zañenak Jaungoikoa'ri eskiñi beaña ta abar.

17. Eleizkizunetarako jauparitzat Aaron eta bere oñor-



LUGARTE ITSASOA

1. Moisen iturriak
2. Galepefak
3. Mana
4. Amar oginduak
5. Sasia ereten
6. Utezko zekora
7. Sualdia
8. Aitzetiko ura
9. Burnorizko sugea
10. Aaron'en eriotza

**ISRAELDAREN
LEKARO - BIDEA**

ITSASO GORIA

The map includes the following geographical labels and tribal names:

- Regions and Tribes:** EGIPSIARRAK, GASEN, AMALEKITARRAK, IDUMAITARRAK, AMORETARRAK, ETEARRAK, PILISTINDARRAK, MADIAN, ARABIA.
- Cities and Locations:** Tonis, Pelus, Sokot, Etham, Menfis, Mara, Elim, Haserot, Tabera, Rafidin, HOREB M, Tot, Elam, Jeriko, JEBUSTARRAK.
- Rivers and Seas:** NILU IBAIA, JORDAN IBAIA.
- Mountains:** HARNA, SINAI M.

dekoak aukeraratu ebazan; eta aukerapen onen agiritzat, Aaron'en makila igeña osto-lorez jantzi zan.

18. Baita Jauna'k bere eñagaz egin eban alkartasun edo itun - agiritzat be, *kutxa* edo itun - *kutxa* emon eutsen eta bertan ontzikada mana ta Legeko olbiak ipiñi ebazan.



19. Sañi be sañi asañatu eragin eutsoen israeldar burukoyak Jau-na'ri; askotara

zigortu ebazan Jaungoikoak, batez bere beñogei urtetan arata ona erabiliñaz, zar guztiak, luñalde deunera eldu baño len il eitezan.

20. **Mana** eukaristiaren irudi dogu. «Bene-benetan diñotzuet; zerutikako ogirik ez eutzuen Mois'ek emon; zerutikako ogi jatoña Neure Aita'k damotzue... Neu nozue bizitzarako ogia. Zuen asabak **Mana** basoan janda, il egin ziran. Ogi au zerutik jatzia da, jaten dauana il ez dedin».

IKASBIDEA

Israeldaren antzera baso-ziar goaz gu bere Jaungoikoa'k agindu dauskun zorion eñira. Aigito'tik atera ziran israeldare-tatik bi baño ez ziran eldu agindutako luñaldera. ¿Zergaitik

ete? Biotz gogořeko ziralako. «Jaungoikoa'ren deya gaur ba-dantzuzue, ez gogortu biotzak areik legez».

ITAUNAK

1. Zer jazo yaken israeldarai itxasoa igaro-ta laster?—2. Zegaz janaritu ebazan Jauna'k israeldarak?—3. Zelan sortu-azoten ebazan Mois'ek israeldaren egaia asetako ituñiak?—4. Noz eldu ziran israeldarak Sinai-mendi barenera?—5. Zer esan eutson Jauna'k Mois'i?—6. Zelan iragañi eutsen Jauna'k bere Legea israeldarai?—7. Bañiro mendira igonda, zeinbat egunetan inardun eban Mois'ek Jaungoikoa'gaz?—8. Bitartean, zer esan eutsoen israeldarak Aaron'i?—9. Zer erantzun Aaron'ek?—10. Emon ete eutsoezan Aaron'i eskatutako ure-pitxiak eta zer egin eban Aaron'ek?—11. Zetan ziarduen israeldarak urezko zekoñaren irudi aurean?—12. Menditik jatsi ta ori ikusi ebanean, zer egin eban Mois'ek?—13. Uñengo egunean bañiro mendira igonda, zer eskatu eutson Mois'ek Jaunari?—14. Parkatu ete eutson Jauna'k eñari?—15. Non idatzita emon eutsozan Mois'ek eñari Jauna'ren aginduak?—16. Beste agindurik emon ete eutsen Jauna'k israeldarai?—17. Nor aukeratu eban jauparitzat?—18. *Kutxa edo itun-kutxa*, zer ete da?—19. Israeldarak zigortu beañik izan ete eban Jauna'k?—20. Zeren irudi dogu **Mana?**

.....

Zeinbat dira Jaungoikoa'ren Legeko aginduak?... Zer dago Jaungoikoa'ren Legeko aginduetan?... Jaungoikoa'ren Legeko aginduak betetea gure eskuetan ete dago?... Jaungoikoa'ren Legea betetako eragozpenik garaitu bear ete da?... Aingeruai ta zeruko deunai be otoi-egin bear ete yake?... Zetarako ipiñia da Eukaristia deritxon Sakramentua?... Zer artzen dozu Eukaristia deritxon Sakramentu guztiz santuan?

XX

MOIS'EN ZALANTZA.=URÁIDEKO SUGEA.
MOIS'EN ERIOTZA.

1. Beŕogeigaŕen urtea eroyen isŕaeldaŕak basartean. Kanaan'go mugetara eldu ziran. Urik ez ebela-ta, mormoxitan eragoyon eŕi mutiri ta asegaiz arek.

2. Lenago legez, arkaitza makilagaz joteko agindu eutson Jauna'k Mois'i.

3. Kutxatik makila artu, ta eŕi guztia an zala, arkaitza jo eban Mois'ek, ez bein, biriten baño. Bigaŕenez jo ebanean, gizon eta abere asetako lain ur gozo ekaŕan ituŕi ugaria sortu zan.

4. Mois'en zalantzaz asaŕatu zan Jauna ta esan eutson: *Siñistu ez dozulako, ez dozu nire eŕia Nik agindutako luŕaldean sartuko.*

5. Geroago be, mar-marka asi zan eŕia ta sua erioen suge-taldea bialdu eutsen Jauna'k. Suge oneik usigitakoak izugaŕizko su-miñez ilten ziran.

6. Laster damutu ziran eta Mois'i esan eutsoen: *Jaungoikoa'ren eta zure aurka eragon eta txarto esanaz oben egin dogu: eskatuyozu, aŕen, aldendu dagizala gugandik suge zitelok.*

7. Mois'ek bere eŕia maite - maite eban - da, otoi-egin eutson Jauna'ri ta Jauna'k esan eutson: *Uráideko sugea egizu, ta ezaugaŕitzat ipiñi: begiratuten dautsoenak usigita egonaŕen, osatuko dira.* Edonundik ikusi al izateko tokian ipiñi eben suge-irudi ori, ta begiratze utsez sendatzen ziran zauritu guztiak.

8. Uráideko suge ori Jesus gurutzatuaren irudi dogu. Suge oŕi begiratzuz usigiz zauritutakoak sendatzen ziran legez,

Jesus gurutzatuari, uste osoz, begiak ezarten dautsezanak be, inpernu edo gaiztokiko sugetzañaren usigietatik osatuta geratzen dira.

9. Eriotza ur ebala igarri eban Mois'ek. Eta eñi osoa batu



ta Josue aukeratu eban bere ordezkotzat. Gero, eñiari esan eutson: *Ni il bear naz, ta ez naz Jordan-ibaiz bestalderatuko, baña zuek, bai, bestalderatuko zarie ta alde eder oren jabe izango zarie. Ez aztu zuen Jaun-Jaungoikoa'gaz egin dozuen itunben edo alkartasuna. Biotz-biotzez, gogo-gogoz ta adore-adorez maite izan egizue Jauna.*

Jauna'ren aginduak bete egizuez ta zuek, eta zuen etxe ta basterak onetsiak izango dira. Baina Jauna'ren deya entzun ezpa-dagizue, zoritxara izango da zuen gain... **Nire antzeko igarle bat eregiko dautzue Jauna'k: entzun beroni.**

10. Mois'ek iragaritako igarle aundia Jesukristo da. Alkaren antz aundia dabe Mois'ek eta Jesukristo'k: Umetan Paraon'en gogorkeritik gaizkatu eben Mois; Jesus, Erode'ren asaretik. Jaungoikoa'ren Legea iragari eban Mois'ek; Lege ori sendotu ta bikaindu Jesus'ek. Jaungoikoa'gaz itunbena egin eban Mois'ek; itunben ori bariztu ta bere odolagaz izenbetu Jesus'ek. Mois, oraitiño, Jaungoikoaren moroi baño ez zan; Jesus, oster, Jaungoikoa'ren Seme.

IKASBIDEA

Uste osoz egin zure otoi ta eskariak. Gurutzezale izan zaite ta saritan maite-damuz mun egin.

ITAUNAK

1. Zeinbakearen urtea eroyen basartean israeldarak eta, urik ez ebela-ta, zetan eragoyon efi mutiri ta asegaitz arek?—2. Zer agindu eutson Jauna'k Mois'i?—3. Zeinbat bider jo eban arkaitza Mois'ek?—4. Mois'en zalantzaz asaretu ete zan Jauna ta zer esan eutson?—5. Geroago be mar-marka asi ete zan efi ta zer bialtzen Jauna'k?—6. Laster damutu ete ziran israeldarak eta zer esan eutsoen Mois'i?—7. Otoi-egin ete eutson Mois'ek Jauna'ri ta zer agindu Jauna'k?—8. Uraideko suge ori, noren irudi dogu?—9. Eriotza ur ebala igari ebanean, zer egin eban Mois'ek?—10. Nor ete da Mois'ek iragari eban igarle aundia ta alkaren antzik ete dabe Mois'ek eta Jesukristo'k?

.....
Otoitz zelan egin bear ete da?... Zer agintzen dausku lenengo aginduak?... Gurutze deuna zer da?... Gurutzea gurtzean zer esan bear da?

XXI

JOSUE TA EPAIKARIAK

1. Moises ezkerrean, Jauna'k Josue'ri esan eutsen: Zoaz ta Jordan-ibaya igaro egizu. Moises'egaz izan nintzan legez, zugaz be izango nayatzu.



2. Kutxa deuna aurretik zala abiau ziran, eta oñak uretan sartuaz batera, ibaya erdibi egin zan; goitik-bera etorzan urak ormatzara bai litzazan geratu ziran; bekoak, bañiz, Itxas Goñira egin eben.

3. Beste ariagarí asko egin ebazan Jauna'k, israeldarai bere Ardurapena erakusteko. Jeriko'ko ormak tururu-otsera eratsi yakezan. Gudaketa egun argiz burutu ezin ebalako, Josue' ren aginduz, eguna amabi ordu geyago luzatu zan.

4. Jauna'ren laguntzaz gudaketa gogoñak irabazi ondo-ren, Josue Kanaan-eriaz jabetu zan; gero, erí au israeldaren artean bananduta, zartzaro onean il zan.

5. Josue ta zarak ilda gero, israeldarak Jaungoikoa'gaz saritan aztu ziran; eta Jauna'k, bide onera ekarteko, alboko erí-etsayen menbean izten ebazan. Gero, damutzen ziranean, moñoitziatik atarateko Epaikariak bialtzen eutsezan.

6. Lenengo Epaikaria Otonel izan zan; eta Otonel'en uringo, beste askoren artean Barak eta Debore, Gedon, Santson, Eli ta Samuel ospetsuenak.

7. **Barak eta Debore.** Barak israeldaren gudari-buruak eta Debore, emakume kementsuak, Sisara'ren gudaroztea birindu eben. Sisara iges joyala, Jael'en txabolan sartu zan, eta lotan etzala, Debore'k untze bategaz burua luñari josita, itxi eban.

8. **Gedon.** Guraso beartsuen seme zan Epaikari au. Jauna'k madiandaren menbetik bere eria azkatzeko aukeratu eban. Israeldarai ots-egin eutsen Gedon'ek eta 32.000 batu yakoan. Baña Jauna'k esan eutson: «Lañegi dozuz. Makal eta bildurtiai amain emon egiezu». Amar milegaz geratu zan. Baña Jauna'k bañiro esan eutson: «Lañegi dozuz. Uretara eroan eta eskuz ura edaten dabentakaz geratu, ta ura edateko makurtzen diranak bialdu egizuz etxera». Irureunegaz bakañik geratu zan. Orduan Gedon'ek alatz edo mirari auxe eskatu eutson Jauna'ri: Jauna, nire eskuz eria azkatuko dozun ala ez igarteko, gaur gabaz zarpa edo artule au laññean itxiko dot eta biar goizean zarpa ori bakañik iñontzez ezotuta

izan bedi. Goizean-goiz jagita joan laññera ta eskatu eban ez jazo zan: zarpa edo artulea ñontzez ezo-ezo egoan eta ñnguru guztia legor-legor. Urngo gabaz okefretara eskatu eutson: «Ñnguru guztia ñontzez bustita agertu beite ta zarpa legor». Alantxe jazo zan.

Gaber dian irureun mutilekaz esetsi eutsen madiandañai ta 150.000'tik, 15.000 bakañik geratu ziran bizirik. Aldi bateko bakea izan eben israeldañak.

9. Gedon'en laññean ipiñitako zarpa, Sortze Garbiaren irudi dogu. Ñnguru guztiak bustiañen, zarpa ez zan busti: enparau gizakume guztiak jatoñizko obenez kutsutuañen,

Andre Maria garbi-garbi sortu zan.



10. **Santson.** Gizon indartsua ta bikaña izan zan Santson. Beñola, pilistindañen uri batera joyala, legoi gasteak bidera urten eutsan eta bertan txikitu eban.

11. Andik gero-ra, ezti-abea aurkitu

eban legoiaren agoan. Au zala-ta, asmakizun polita ipiñi eutsen pilistindañai. Asmakizuna auxe zan: *Jatuna janari biurtu ta sendotik gozoa sortu.* Pilistindañak ezin igarñi eben asmakizun ori, baña bere emazteak leusindu eban Santson, eta emazteari, ta emazteak bere eñitañai agertu eutsen igarpena.

12. Gustiz asañe jañi zan Santson eta irureun aizeri artu, ta bustenetatik biñaka lotu, ta ilinti bana buztenetan ebela

bialdu ebazan pilistindañen garitzetara. Garitza, masti ta pilistindañen baster guztiak kiskaldu ebezan aizeriak.

13. Asaíe jaíi ziran pilistindañak eta Santson'en emaztea bizi zan etxeari sua emon, eta aitagiñaíeba ta biok bizirik eíe ebezan.

14. Orduan judaitaíak Santson lotu ta pilistindañai emon gura izan eutsen. Baña pilistindañok oíroaka etorkiozala, suak bedar igeía legez, lokaíiak austu, ta astoaren matrail-azuía-gaz mile gizon garbitu ebazan. Eta egaíi zala, Jaungoikoa'ri otoi egin, eta matrail-azuíeko agiñetik ituíia sortu zan.

15. Geroago Gaza eritxon urira' joan zan Santson. Au jakin ebenean pilistindañak, uriko atepak itxi ebezan eta uíen-go goizean ilteko asmoa eben. Baña Santson gaberdian jagi zan eta burdiñezko atepak lepoan artu ta alboko mendira eroan ebazan.

16. Bigaíen emaztea bere, pilistindaña eban Santson'ek eta onixek galdu eban gizajoa.

17. Diru asko agindu eutsoen pilistindañak *Dalile'ri*, Santson'i non eban bere indaña erasoteaíen. Ekin-da ekin, gero be Santson'ek esan eutson: *Ara, egundo ez dauste niri ulerik moztu, gastearotik Jaungoikoa'ri opalduta nago-ta, ulea moztuko ba' leuste, beste edozein gizon bezain makal geratuko nintzake.*

18. Orduan, Santson lotan zala, ulea moztu-azo eutson emakume dólór arek, eta pilistindañak etoíi, ta lotu, ta begiak atara, ta astoa bai litzan, eíotaíiari eragiten ipiñi eben.

19. Beñola pilistindañak, Dagon jainko-izunaren omenez jai aundia eben. Gizon eta emakumez bete-beterik zan jauretxea. Santson be eroan eben, bere lepotik baíe egiteko. Ordurako aziaz joyazan Santson'en uleak. Itsu-mutilari esan eutson Santson'ek: *Jauretxearen oñaíi diran zutoi edo pílar bien erdira eroan nagik. Pílar biai eldu eutsen batari eskumeaz ta*

besteari ezkeraz, ta Jaungoikoa'gana biotza jaso ezkeroz, pilañai dar-dar eragin eta jauretxea luñera eratsi eban. Antxe ilzan Santson pilistindar guztiekaz.

20. Gedon legez Santson be Jesukristo'ren irudi dogu. Aingeruak iragañi eban Santson'en jayotza; baita Jesukristo'rena be. Legoia zatitu eban Santson'ek; sulezeko legoia Jesukristo'k. Santson'ek berak bakañik garaitu ebazan arerioak; Jesukristo'k berak bakañik azpiratu eban gizon-etsaya ta gurutzeagaz azpiratu be. Diruz ta bere anayak saldu eben Santson; baita Jesukristo bere. Eñiaren alde emon eban bere bizia Santson'ek eta eriotzaz garaitu ebazan bere arerioak; gizadi alde emon eban bizia Jesus'ek eta eriotzaz eriotza garaitu eban. Gaza'ko ate ta giltzak uratu ebazan Santson'ek; Jesukristo'k, biztueran, ilobiko ate ta giltzak uratu ebazan.

IKASBIDEA

Zuzena ta eñukioña dogu Jaungoikoa. Israeldañak okeñeratzzen ziranean, albo eñietako arerioen ménbean izten ebazan. Okerkeriz garbatu ta bañiro Jaungoikoa'gana biurtzen ziranean, Jauna'k arerioen menbetik atarateko gizon bulartsuak bialtzen eutsezan. Ez oker izan, Jaungoikoa'k zigortuko zaitu-ta. Santson emakumeak galdu eban. Lizunkeria ta aragikeria doguz gure galbide. Garbi izan zaite.

ITAUNAK

1. Mois il ezkeru, zer esan eutson Jauna'k Josue'ri?—2. Zer jazo yaken israeldañai Jordan-ibayan?—3. Zeintzuk añañi egin ebazan Jauna'k israeldañai bere ardurapena erakusteko?—4. Zer egin eban Josue'k Kanaan-eñiaz jabetu ezkeru?—5. Josue ta zañak ilda gero, israeldañak Jaungoikoa'gaz aztu ete ziran eta zer egin oi eban Jauna'k israeldañak bide onera ekarteko?—6. Nortzuk izan ziran epaïkaririk ospetsuenak?—7. Zer egin eben

Barak eta Debore'k?—8. Nor izan zan Gedon eta zer egin eban?—9. Noren irudi dogu Gedon'ek laññean ipiñitako zarpa?—10. Nor izan zan Santson?—11. Zein izan zan Santson'ek pilistindañai ipiñitako asmakizuna?—12. Zer egin eban Santson'ek irureun aizeriekaz?—13. Asa'ri eta ziran pilistindañak eta zer egin eben?—14. Judaita'ak lotu ete eben Santson eta zer egin eban Santson'ek pilistindañak o'roaka etorkiozala?—15. Zein uritara joan zan Santson eta zer jazo zan?—16. Nongoa ete eban Santson'ek biga'ñen emaztea?—17. Dirurik agindu ete eutsen pilistindañak Dalile'ri Santson'ek non eban inda'ña jakitea'ñen?—18. Santson lotan zala, zer egin eutson emakume do'lor arek?—19. Zein izan zan Santson'en azkena?—20. Noren irudi doguz Gedon eta Santson?

.....

Ba-ete dau Jaungoikoa'k izaki guztien ardurea?... Jaungoikoa'k, zelan saritzen ditu onak?... Jaungoikoa'k, zelan zigorkatzen ditu gaiztoak?... Zer agintzen dausku seiga'ñen aginduak?... Zer galerazten dausku seiga'ñen aginduak?... Zer egin bear da aragikeritik iges egiteko?

XXII

ELI TA SAMUEL

1. Eli epaikari zala, Elkana ta Ane senar-emazte on-onak bizi ziran. Baña Ane'k semerik ez eban-da, naibagez ta itun izan oi zan. Beñola, Silo'ko jaurettxera igon eta Jauna'ri otoi egin eutson esanaz: *Jauna, nitzaz gomutau ta semetxo bat emon ba-dagidazu, bere bizi guztirako Zeuri opalduko dautzut.*

2. Ane'ren eskaria entzun eban Jauna'k eta seme bat emon eutson. Samuel-izena, Jauna'ri opaldua, eza'ri eutson.

3. Iru urte ebazala eroan eutson Eli'ri Silo'ra, ta Jaungoikoa'ganako ta gizonen'ganako gogarabidez aziaz joyan.

4. Seme bi ebazan Eli'k, Ofni ta Pinees, biok oso gaiztoak. Norbait, Jaungoikoa'ri oparia eskintzeko Silo'ra joanean, oparirako egosten egoan aragia iru ortzekoaz artu, ta Jauna'ri

eskiñi baño len jaten eben. Onelako beste gaiztakeri asko egiten ebezan mutil biok.

5. Eli'k asare egiten eutsen bere seme biai, baña bigunegi; ez eutsen alako gaiztakeri arei yagoken añako zigofik ezarten.



6. Gau batez, Eli ta Samuel lotan zirala, Jauna'k Samuel'i ots-egin eutson: *iSamuel, Samuel!*

7. Samuel berealaxe jagi zan eta Eli'k dear egin eutsola koan esan eutson: *Emen naukazu.*

8.—*Nik ez dautzut deitu, esan eutson Eli'k: Zoaz ta lo egizu.*

9. Bigarenez be deitu eutson Jauna'k eta atxintxiketan

joan zan Eli'gana esaten: *Emen naukazu, dei egin daustazu-ta.*

10.—*Zoaz, ene seme, ta lo egizu, ez dautzut nik deitu-ta, esan eutson Eli'k.*

11. Irugañenez be entzun eban deya ta Eli'gana joan zan. Eli'k igañi eban, orduan, Jauna'k dei egiten eutsola ta esan eutson: *Tira, joan-da lo egizu, ta bañiro dei egiten ba-dautzu, esayozu: Itz egizu, Jauna, zure otsein au adi dozu-ta.*

12. Jauna'k esan eutson: *Eli ta bere seme biak zigortzeko aldia laster datorkit, ba-dakiz, ba, Eli k seme bien gaiztakeriak eta ez ditu zigorkatzen.*

13. Uringo goizean Eli'k Samuel'i ots egin eta esan eutson: *Zer esan dautzu Jauna'k? Ez egidazu, arren, ezertxo be ezkutau.*

14. Jauna'k esandako guztia agertu eutson Samuel'ek eta Eli'k erantzun eban: *Jauna da: gogoko yakon guztia egin begi.*



15. Urte batzuk geroago, gudaketa gaitza eben israeldar'ak pilistindar'akaz. Pilistindar'ak geyago egiten eutsen, eta «Kutxa Deuna» Silo'tik gudatokira eroan eben.

16. Alkar-jote gogor baten 30.000 israeldar geratu ziran luze, Eli'ren seme biak bañu zirala, ta «Kutxa Deuna» be pilistindaren eskuetan jausi zan.

17. Bañi au jakin ebanean Eli'k, atzeruntz jausi zan eta buruko azuñra ausi ta bertantxe il zan.

18. Pilistindařak, arako Dagon jainko-izun aren jauretxean ipiñi eben «Kutxa Deuna». Baña uręngo goizean Dagon ori luřean auzpez aurkitu eben, eta Jaungoikoa'k esku gogořa agertu eutsen arek eta «Kutxa Deuna» bere tokira biurtu arteragiño.

19. Eli'ren ordez Samuel geratu zan jaupari ta epaikari. Eřia batu ta esan eutsen: *Biotz biotzez Jaungoikoa'gana biurtzen ba-zarie, Jauna'k pilistindařen menbetik atarako zaitue.*

20. Barau ta garbai egin eben, ba, ta euren obenak autor-tu ebezan esanaz: *Jauna'ren aurka oben egin dogu.* Orduan Jauna eřuki izan yaken eta pilistindařak azpiratu ta urte batzuetarako bakea izan eben.

IKASBIDEA

Samuel'en antzekoak izan zaiteze, gaste-gastetatik zintzo ta menak; ez Eli'ren seme biak lako gaizto - biuřiak. Baña Samuel'i legez, Jauna'k abadetzarako edo, dei egiten ba'dautzue' arek bezain bizkor erantzun Jauna'ren deyari.

ITAUNAK

1. Zeintzuk senar-emazte bizi ziran Eli ta Samuel epaikari zirala ta zegaitik zan naibagez ta itun Ane?—2. Entzun ete eban Jauna'k Ane'ren eskaria ta zer izen ezaři eutson semeari?—3. Zeinbat urte ebazala eroan eutson Eli'ri Silo'ra?—4. Zeintzuk seme ta zelakoak ebazan Eli'k?—5. Bear aňako asařerik egiten ete eutsen Eli'k seme bioi?—6. Eli ta Samuel lotan zirala, nok ots egin eutson Samuel'i?—7. Zer egin eban Samuel'ek? Zer esan eutson Eli'k?—9. Bigařenez be deitu ete eutson Jauna'k eta noren-gana joan zan Samuel?—10. Zer esan eutson Eli'k?—11. Irugařenez be entzun ete eban deya ta zer esan eutson Eli'k?—12. Zer esan eutson Jauna'k?—13. Uręngo goizean, zer esan eutson Eli'k Samuel'i?—14. Jauna'k esandako guztia agertu ete eutson Samuel'ek Eli'ri ta zer erantzun Eli'k?—15. urte batzuk geroago, gudaketarik izan ete eben isřaeldařak pilistin-

dañakaz ta nora eroan eben israeldañak Kutxa Deuna?—16. Alkar-joterik izan ete eben israeldar ta pilistindañak eta zer jazo zan?—17. Bañi au jakin ebanean, zer jazo yakon Eli'ri?—18. Non ipiñi eben pilistindañak Kutxa Deuna bere tokira biurtu arteragiño?—19. Nor geratu zan jaupari ta epaikari Eli'ren ordeztu ta zer esan eutson eñiari?—20. Garbatu ta obenak autortu ete ebezan israeldañak?

.....

Zein da gurasoen umeakazko eginbeña?... Seme-alabak ondo azteko zer egin bear dabe gurasoak?... Zer irakatsi bear dautse, batez be, gurasoak euren umeai?

XXIII

SAUL ETA DABID

1. Samuel zartzarora eldu zanean, Israel'go aundikiak érege eskatu eutsoen.

2. Samuel'ek min artu eban, Israel'go nagosi ta jaun ba-kaña Jaungoikoa izatea nai eban-da, baña Jauna'ren aginduz, Saul benjamindaña emon eutsen éregetzat.

3. Ainbat bider azpiratu ta poñokatu ebazan Saul'ek bere eñiaren arerioak, baña Jaungoikoa'ren agindua bete ez ebalako, Jauna'k be ezetsi ta bastertu eban.

DABID ARTZAIN

4. Saul maite-maite eban Samuel'ek eta Jauna'k bastertu ebalako atsekabez zan. Jauna'k esan eutson: *Zer dala-ta ainbeste negar Saul'etzaz? Adaña orioz bete ta zoaz Belen'era, Tsai'gana, bere seme bat aukeratu dot éregetzat-eta.*

5. Joan zan, ba, Belen'era ta Jaunari oparia eskiñi eutson

eta opaldi eta ondorengo oturuntz edo bazkarira dei egin eutsen Isai ta bere semeai.

6. Semerik zařena eldu zan lenen. Mutil eder ta zarden au ikusirik, Samuel'ek bere kautan iřoan: *Auxe izango da Jauna'k igortzia.*

7. Bařa Jauna'k esan eutson: *Ez begiratu bere edertasun eta zardentasunari. Ez da ori Nik aukeratua, ez dot, ba, Nik gizonak legez azalez ebazten.*

8. Orduan beste sei aurkeztu eutsozan Isai'k, bařa Sa-



muel'ek esan eutson: *Oneitarik bat be ez dau Jauna'k aukeratu. ¿Oneik al dirazure seme guztiak?*

9. —Ez, txikiena artzain dot, erantzun eutson Isai'k.—Bialdu, ba, norbait aren eske ta ekari egidazu. Dabid eldu zanean, Jauna'k esan eutson: *Jaiki ta igortzi egizu, orixe da - ta.*

Orio-adařa artu eban, ba, Samuel'ek eta bere anayen auřean igortzi eban Dabid ta Jauna'ren Arnasa edo espiritua Dabid'en gain jatsi zan.

DABID ETA GOLIAT

10. Isřaeldar eta pilistindařak alkařegaz gudaketan ziar-duen baten, Goliat eritxon gizato indartsuak eupadaka era-

goyon, israeldarai isekaz esaten: *Betor zuetatik edozein nigaz burukan egitera. Ni azpiratzen ba-nau, zuen yopu ta menbeko izango gara: nik azpiratzen ba-dot, bariz, zuek gure yopu izango zarie. Berogei egun buruan eragoyon eupada onetan eta israeldarak bildurez kikilduta egozan.*

11. Dabid etxera etoñi zan baten aitak esan eutson: *Zoaz gudaketan dabilzan zure anayekana, ta soñeko ta janariak eroanaz, ango bari jakin egizu.*

12. Gizato aren eupada ta arokeriak entzun ebazanean Dabid'ek, bere odola sutu zan eta esan eban: *Nor da au Jaungoiko biziaren gudurozteai isekaz diñarduan pilistindar au?*

13. Ta Saul'egana joan eta esan eutson: *Jauna, neu, zure otsein au, burukatuko naz pilistindar onegaz.*

14. Saul'ek yardetsi eutson: *Gastegia zara zu, ene seme, pilistindar oregaz burukatzeke, ori gastegastetatik buruketan jarduna dozu, ezin azpiratu zengike zuk.*

15. — *Ara, Jauna, erantzun eutson Dabid'ek, nire aitaren artaldeak laritzen niarduala, legoi edo artzak aritoren bat eroaten eustanean, nik atzetik jaraitu ta agin artetik kentzen neutsan arittoa, ta matrail ertzetik oratu ta bertan garbitzen nebazan. Legoi ta artzetatik zaindu nauan Jaunak, pilistindar onen eskuetatik be zainduko nau.*

16. Orduan Saul'ek esan eutson: *Zoaz, ba, ta Jauna zugaz bego.*



17. Dabid'ek bost gibelañi artu ebazan artzain-zoñoan, eta makila ta abaila eskuetan ebazala joan yakon gizatoari.

18. Gizatoak, alako mutil gaste urdiña makila eskuetan ebala ikusi ebanean, esan eutson: *¿Zer? txakuren bat nazala ni uste dozu, makilagaz etorteko ala? Zatoz, zatoz, laster izango dira zure aragiak goyetako egazti ta luñeko piztien janari.*

19. Dabid'ek erantzun eutson: *Zu, izkiluz jantzita zatoz nigana, baña ni, zuk isekatu dozun Jaungoiko biziaren izenez natorkitzu. Ta gibelañi bat zoñotik atara, ta abailan ipiñi, ta jaurti eutsan, eta bekoki erdi-erdian jo ta ankaz gora bota eban Goliat aundia; ta gizatoak geñian eroyan ezpata kendu ta bu-rua moztu eutson.*

20. Gizatoa il ebala ikusi ebanean pilistindañak, orpoak astindu ta iges egin eben.

IKASBIDEA

Goliat aña zan. Bere indañetan eban uste osoa. Dabid, oster, apala. Jaungoikoa'gan eban bere uste betea. Ez zaitez aña izan, gaste, jausiko zara-ta. Apala izan zaite ta zure areriorik gogoña, zeure griña txaña, garaituko dozu.

ITAUNAK

1. Zer eskatu eutsoen israeldar aundikiak Samuel'i?—2. Min artu ete eban Samuel'ek eta nor emon eutsen eñegetzat?—3. Sañitan azpiratu ete ebazan Saul'ek eñi-arerioak eta zergaitik ezetsi eban Jauna'k?—4. Jauna'k Saul bastertu ebalako atsekabez zala, zer esan eutson Jauna'k Samuel'i?—5. Joan ete zan Samuel Belen'era ta zer egin eban?—6. Nor eldu zan lenen eta zer iñoan bere kautan Samuel'ek?—7. Zer esan eutson Jauna'k?—8. Beste zeinbat aurkeztu eutsozan Isai'k?—9. Txikiena non zan eta au ete zan Jauna'k aukeratua?—10. Israeldar ta pilistindañak alkañegaz guda-ketan ziarden baten, nok eragoyon eupadaka?—11. Zer esan eutson Dabid'i bere aitak, etxera etoñi zan baten?—12. Gizato aren eupadak entzun

ebazanean, zer jazo yakon Dabid'i?—13. Norengana joan zan Dabid eta zer esan eutson?—14.—Zer yardetsi eutson Saul'ek?—15. Zer erantzun Dabid'ek?—16. O duan, zer esan Saul'ek?—17. Zegaz joan yakon Dabid Goliat'i?—18. Zer esan eutson gizatoak?—19. Zer erantzun Dabid'ek?—20. Zer egin eben pilistindarak gizatoa il ebala ikusi ebenean.

XXIV

DABID EREGE

1. Gudatokitik etxerakoan, eñi guztietako emakumeak bidera urten-da, abesten eben: *Saul'ek mile jo ditu, baña Dabid'ek amar mile.*

2. Asaratu zan Saul eta urango egunean, Dakid arpa josten egoala, lantza edo azta makila jaurti eutson; baña Dabid'ek, bapatera, bira egin eutzun eta ez eban miñik artu.

3. Geroago, bere alaba Mikol emaztetzat eskiñi eutson, eun pilistindar iltearen. Ofetarako mile guda-mutilen buru egin eban, alkar-jotereren baten ilgo zalakoan. Baña Jaungoikoa'k zaindu eban Dabid; bereun pilistindar il ebazan eta eñiak geroago ta maiteago eban.

4. Saul'en goñotoa suminduaz joyan. Jonata bere semea-ri Dabid erailteko agindu eutsan. Baña Jonata ta Dabid'ek alkar kutun-kutun eben, eta Dabid'en alde egin eban beti Saul'en seme on onek.

5. Dabid'ek, oster, bein baño sañiago izan eban bere eskuetan Saul'en bizia, baña bein be ez eutson ezer egin.

6. Beñola, Dabid mendian ezkutauta zala jakin eban Saul'ek, eta 3.000 gizonegaz joan zan bere bila. Dabid ixil-ixilik jatsi zan, gudaroztea lotan etzan tokira, ta Saul'en txosnan sartu zan. Saul lo-zoñoan egoan. Bere eskuetan eban

Dabid'ek Saul'en bizia, baña ez eutson ezer egin. Burukoan ebazan ezpata ta edontzia artu, ta iñok oartzeke joan zan mendira. Menditik deadar egin eutson Abner, gudari-buruari ta esan eutson: *Zergaitik ez dozu zure Jauna zaindu? Ona emen*



eregeren ezpata ta edontzia. Deařetara itxartu zan Saul eta esan eban: Ez al da au zure abotsa, Dabid, ene seme ori?—Bai, jauna, neu nozu. Zer dala-ta esesten dozu zure otsein au? ¿Zer kalte egin dautzut nik? erantzun eutsan Dabid'ek. Orduan, bere gaiztakeria ezagutu eban Saul'ek eta esan eutsan: Erdu, ene seme, gaur-geroz ez dautzut txarrik egingo. Ta biak baketsu etxeratu ziran.

7. Andik laster, Gelboe-mendietan gudaketa izan eben

israeldararak pilistindarakaz. Israeldar asko jausi ziran gudaketa onetan, baita Jonata, Saul'en semea be. Gezi batek jo eban Saul bera be ta zaurituta geratu zan. Pilistindarak esia ezañi eutsoen eta arein eskuetan jausi baño len, Saul'ek ezpataz bere burua il eban.

8. Miñaren-miñez soñekoak uratu ta Gelboe-mendiak gaiztetsi ebazan Dabid'ek Saul eta Jonata'ren eriotza jakin ebanean: *Gelboe-mendiok! ez-pedi zuen gain, ez euririk, ez inontzik izuri. Giza-gurenak il dira, ba, gudaketan. Amak bere seme bakaña maite dauan legez, alantxe maite zindudazan nik, Jonata, ene anai ori.*

9. Saul il ezkerro, Dabid igortzi eban Samuel'ek bigaeren eregetzat; lenengo saspi urtietan Juda ta Lebi'tarak bakañik artu eben aintzakotzat; gero, enparauak be bai.

DABID, ELIZKIZUNETAN

10. Arerioak azpiratu ondoren, Jerusalem'en sartu zan Dabid ta ementxe egin eban bere jauregia.

11. Jauna'ri jauretxe bikain-edeña eraikiteko asmoa eban Dabid'ek, baña ezin burutu izan eban. Jesukristo bere odoletikoa izango zala aginduaz saritu eban Jauna'k Dabid'en asmu ori.

12. Jauretxe ordeez, elizkizunetarako eunezko etxe apaiña jaso eban Sion-mendian.

13. Berebiziko jayak egin ebazan «Kutxa Deuna» eunezko jauretxe atara ekañi ebanean.

14. Abade edo jaupariak eroyen «Kutxa» sorbaldetan, ainbat soñu-jotzale ta abeslari lagun zirala, ta Dabid bera «Kutxaren» auñean dantzan.

15. «Kutxa Deuna» bere tokian ipiñi ebanean, jaupariak taldetan banandu ta elizkizunai egokien guztia atondu eban.

IKASBIDEA

Ikasi Dabid'egandik txarto gura dauskuenai, on egiten.

ITAUNAK

1. Gudatokitik etxerakoan, zer abesten eben eñietako emakumeak?
- 2. Asaíatu ete zan Saul ta zer egin eban uréngo egunean?—3. Geroago, zer eskiñi eutsan Saul'ek Dabid'i?—4. Saul'en goíotoa suminduaz ete joyan eta zer agindu eutsan Jonata'ri?—5. Bein baño sañiago izan ete eban Dabid'ek bere eskuetan Saul'en bizia, ta ezer egin ete eutsan?—6. Beñola, Dabid mendian eskutauta egoala jakin ebanean Saul'ek, zer jazo zan?—7. Andik laster, non izan eben gudaketa isíaeldaíak pilistindaíakaz ta zer jazo zan?—8. Miñaren-miñez, zer egin eban Dabid'ek Saul ta Jonata'ren eriotza jakin ebanean?—9. Saul il ezkeru, nor igortzi eban Samuel'ek bigaíen eíegetzat?—10. Non egin eban Dabid'ek bere jauregia?—11. Jauna'ri jauretzerik eraikiteko asmorik izan ete eban Dabid'ek?—12. Jauretxe orde, zer jaso eban Sion-mendian?—13. Jai aundiak egin ete ebazan «Kutxa Deuna» eunezko jauretxe atara ekaí ebanean?—14. Nortzuk eroyen «Kutxa»?—15. «Kutxa Deuna» bere tokian ipiñi ezkeru, zer egin eban?
.....

Zer agintzen dausku boskaíen aginduak?... Zer besterik agintzen dausku boskaíen aginduak?... Zer eragozten dausku boskaíen aginduak?... Zer eskátzen dozu «parkatu eiguzuz geure zoíak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzan legez» esatean?

XXV

DABID, IGARLE

1. Jaungoikoa goretsi ta aintzatzeko; Jauna'ri esker egin edo laguntza eskatzeko; baita oben egin ezkeru, biotzeko damua Jauna'ri agertu ta eíukia jaristeko be, ereserki zora-gaíak egin ebazan Dabid'ek.

2. Geroko aldietan jazoko zana aúrez iragarteko igarpena emon eutsan Jauna'k Dabid'i. Ona emen Dabid'en iragarki batzuk Jesukristo'ri ta Eleiza'ri buruz.

3. Jesukristo, Jaungoikoa'ren Seme. *Zu zara neure Seme,*



Neuk gaur sortu zaitut. Bere oñetan auzpeztuko dira Etiopi'ko éregeak, Tarsis ta ugartietako éregeak emaitzak eskiñiko dautsoez, ta Arabi ta Saba'koak esku-sariak ekañiko dautsoez.

4. Jesukristo'ren Elizak baster guztiak artuko ditu. Eskatu, ta arotzak jarauntzitzat emongo dautzudaz, ta zure jabetasuna luñaren ertzelik ertzera elduko da. Aren egunetan zuzendasuna ta ba-kea ugari izango dira.

5. Jesus'en nekaldia. *Ára naz ta ez gizona: gizonen laidogañi ta eñiko lotsakizun. Ikusten ninduenak, buruai eraginda, iseka egiten eusten. Nire esku ta oiñak zulotu ebezan, eta nire azuñak zenbatu. Nire jantziak euren artean banandu ebezan ta nire soñekoa zoltz egin eben.*

6. Jesus'en bizkundea. *Ilundegian ez nozu Ni itxiko ta zure kutun au ez da ustelduko.*

7. Zeruetara igokundea. *Nire Jauna'ri Jauna'k esan dautso: Nire eskumaldean jezañi zaite, zure arerioak oin-azpikotzat Nik ipiñiko dautzudazan arte. Bein betiko jauñari zara Zu, Melkisedek'en arauz.*

8. Dabid'en jatoñikoa dogu Jesukristo; Dabid'en belaunetik sortu zan. Dabid, bañiz, Jesukristo'ren irudi, bai bere gastearoan, bai arerioai parkatzean, baña batez bere Goliat gizatoa azpiratzean. Dabid'ek Goliat, bere eñiaren etsaya azpiratu eban legez, alantxe azpiratu eban Jesukristo'k txeren, gizadiaren etsaya.

IKASBIDEA

Dabid'ek Jesukristo'ri buruz iragañi eban guztia bete zan. Jaungoikoa'k eskar donetzalez, bere seme egin zaitu. Zeruañen jabegi zara. Jesukristo'ren ikasle. Betiko atsegiñetara eroan nai zaitu. ¿Beteko ete dira zugañ Jaungoikoa'ren asmuok?... Gogoan erabilten ete dozuz?... Jauna'ren deyari erantzuteko gertu ete zagoz?

ITAUNAK

1. Jauna goretsi ta aintzatzeko... zer egin eban Dabid'ek?—2. Geroko aldietan jazoko zana iragarteko igarpenik emon ete eutsan Jauna'k Dabid'i—3. Jesukristo Jaungoikoa'ren Seme zala iragañi ete eban Dabid'ek? Noz auzpeztu ziran Jesus'en oñetan Etiopi'ko eñegeak eta noz eskiñi

esku-sariak Tarsis ta ugartietakoak, Arabi ta Sabakoak?—4. Jesukristo'ren Eleizak baster guztiak artuko zituala iragañi ete eban Dabid'ek?—5. Jesus'en nekaldia iragañi ete eban? ¿Noren izenez diño *ara naz la ez gizona?*... —6. Jesus'en bizkundera be iragañi ete eban Dabid'ek?—7. Ta zeruetara igokundera? *Nire Jauna'ri Jauna'k esan dautso*, diñonean, nortzuk dira Jaun biok?—8. Dabid'en jatorikoa ete dogu Jesukristo ta zetan Dabid Jesukristo'ren irudi?

.....

Zeinbat Eleiza irasi zituan Jesukristo'k?... Egiatzko Eleizaren ezaugañiak zeintzuk dira?... Zein da lau ezaugañi onek dituan Eleiza bakaña?... Nor da Jesukristo?... Zeinbat izate ditu Jesukristo'k... Zeinbat notin dira Jesukristogan?

XXVI

DABID'EN OBENA TA ZIGOÑA

1. Dabid'ek ez eban beti zintzo iraun. Oben astun bi egin ebazan. Alperkeria ta ikusgurea bide zirala, ezkontza ausi eban eta gaiztakeri au zuritzeko, Uria gudari-buru zintzo ta bulartsua il-eragin.

2. Natan igarlea bialdu eutsan Jauna'k eta ipuin baten bidez adirazi eutson bere obena.

3. Gizon bi bizi ziran, bata aberatsa ta bestea txiroa. Aberatsak ardi ta abelgoñitan nai beste eban. Txiroak arditxo bat baño ez eban. Ume txikia legez bere altzoan azi eban ardi au, ta alabatxoa bai litzan kutun eban. Beñola, arotza etoñi yakon aberatsari bere etxera, ta arotz oni jaten emoteko, txiroari bere arditxoa kendu ta bazkaria gertau eban.

4. Ipuin au entzunaz asaratu zan Dabid, ta Natan'i esan eutson: «Gizon ori eriotz erudun da; txiroari kendutako ardia, lau bider geyagoz ordaindu bearko dau».

5. Natan'ek erantzun eutson: «Zeu zara gizon ori».

6. Dabid'en begiak argitu ziran eta bere obenen gaiztakeria ikusirik, maite-damuz garbatuta esan eban: *Jauna'ren aurka oben egin dot.*



7. Natan'ek erantzun eutson: Jauna'k be parkatzen dautzu zure obena. Baña zure gaiztakeri oren zigoñez, semerik txikiena ilgo yatzu».

8. Bere etxean ikusi ebazan Dabid'ek bere obenen ondorengorik gaíratzenak. Absalon eritxon bere semea, Isírael'en zan mutilik edeíena, aita'ren aurka jaiki zan.

9. Jerusalem'dik iges egin eban Dabid'ek, eta Semei eri-

txon gizon kaskaak bidera urtenda, iñotson: ¡Utikan! gizon anker ori!

10. Abisai moñoi zintzoak esan eutson Dabid'i: «Zergaitik iges dagi éregek gizon lotsabako onengandik? Joan-da burua moztuko dautsat».

11. Baña Dabid'ek otzan-otzan erantzun eutson: «Lagayozu: Jauna'k, ausaz, érukiz begiratuko dau nire naibagea, ta txar-en orde z onak emongo dautaz».



12. Alkar-jote gogoña izan eben Dabid'en eta Absalon'en aldeko gudarozteak. Ogei mila il ziran Absalon'en aldekoak, eta Absalon bera be, mandoganean igesi joala, bere ule-adats ugaria areitz-adañean kirimilduta, dindiliska geratu zan, eta Joab, Dabid'en gudaroste-buruak il eban.

DABID'EN ERIOTZA

13. Ogei ta amar urte ebazan Dabid'ek Jauna'k éregetzara jaso ebanean, eta beste berogei urtetan jauñi edo zuzendu eban Isráel-erria.

14. Il baño lenago, aundikiak oge ondoan batu ta esan eutsen: *Ara, Jauna'ren etxea eraikiteko asmoa neban nik, baña Jau-*

na'k esan eustan: «Ez, ez dozu zuk nire etxea eraikiko, gudamutil izan zara, odol asko izuri izan dozu. Salomon, zure semeak eraikiko daust nire etxea». Or dozue jauretzea jasoteko bear dozuen guztia. Arduraz artu lan ori, ez diarduzue, ba, gizonarentzako jauregia egiten, Jaungoikoa'rentzako baño. Gero Salomon'i esan eutson: Ezagutu, ene seme, zure aitaren Jaungoikoa ta mo'roi izan zakioz. Jauna'ren bila ba-zabiltz, aurkituko dozu, baño Jauna'gaz aztuten ba-zara, Berak be betiko itxiko zaitu. Ta Jauna'ren besoetan il zan.

IKASBIDEA

Alperkeria ta ikusgurea doguz obenerako bide. Ez zara Dabid baño deunagoa izango. Dabid deuna izana'ren, jausi zan. Alperkeritik iges egin. Zerbait egiten jardun, eta ikusgurea ukatu zeure buruari.

ITAUNAK

1. Beti zintzo iraun ete eban Dabid'ek?—2. Nor bialdu eutsan Jauna'k Dabid'i ta zeren bidez adirazi eutsan bere obena?—3. Ipuin ori zein zan?—4. Zer esan eban Dabid'ek ipuin ori entzunaz?—5. Zer erantzun eutsan Natan'ek?—6. Dabid'en begiak argitu ete ziran eta maite-damuz garbatuta, zer esan eban?—7. Zer erantzun eutsan Natan'ek?—8. Bere etxean ikusi ete ebazan Dabid'ek bere obenaren ondorengorik ga'atzenak?—9. Jerusalendik iges egin ete eban Dabid'ek eta zer jazo yakon bidean?—10. Zer esan eutsan Abisai, mo'roi zintzoak, Dabid'i.—11. Zer erantzun eutsan Dabid'ek?—12. Alkar-jote gogo'ra izan ete eben Dabid'en eta Absalon'en gudarozteak eta zer jazo zan?—13. Zeinbat urte ebazan Dabid'ek Jauna'k e'regetzara jaso ebanean eta zeinbat urtetan jau'ri eban Is'rael e'ria?—14. Il baño lenago, zer egin eban Dabid'ek?

.....

Zer da oben astuna?... Zergaitik deritxo eriozki'na oben astunari?... Zer egin bear da aragikeritik iges egiteko?

XXVII

SALOMON

1. Dabid'en uréngo Salomon, aren semea, izan zan isráel-
dañen érege.

2. Zintzo ta Jaungoikozale izan zan Salomon gastearoan
eta bere aitak erakutsitako bide ona jaíaitu eban.

3. Beñola, lotan etzala, Jaungoikoa agertu yakon Salo-
mon'i ta esan eutsan: *Nai dozuna eskatu egidazu.*

4. Salomon'ek erantzun eutson: *Jauna, érege egin nozu, ni,
bañiz, ezer ez dakian gaste argala naz. Emoidazu, áren, nire éria zu-
zen erabilteko jakituria.*

5. Atsegin izan yakon Jauna'ri Salomon'en eskaria ta
esan eutson: *Jakituria eskatu dozulako, zure aurretik izan ez dan eta
gero be izango ez dan añako jakitun egingo zaitut, baita ospe ta onda-
sunak be emongo dautzudaz, ta nire aginduak, zure aitak legez, egiten
ba-dozuz, luzaro biziko zara.*

6. Arako emakume bik umietzaz erabilen auzian eraku-
tsi eban Salomon'ek bere zurtasuna.

7. Emakume bi eldu yakozan Salomon'i ta batak esan
eban: «Biok alkañegaz bizi gintzazan, bai, ta bakoitzak ume
txiki bana gendun. Lotan gengozala, onek bere umetxoa ito
egin eban, eta ixil-ixilik neurea kendu, ta bere umea altzoan
ipiñi eustan. Uréngo goizean, ume ila nirea ez zala igañi
neban». — «Ez, erantzun eban besteak, ume ila zeurea da ta
bizia nirea». — «Guzuía diñozu, egin eutson lenak, nire semea
bizia da, ba, ta zurea il zan». Oñela biak alkañegaz ziarduela,
Salomon'ek esan eban: «Ezpata ekañi, ta ume ori zatitu ta
bakoitzari erdi bana emon egiozue». Orduan, ume biziaren

amak, gañazika ekin eta esan eban: «¡Ez olakorik! ume bizia emoyozu». Besteak, ostera: «Bai, bai, zatitu ta ez batarentzako, ta ez bestearentzako ez daitela izan». Salomon'ek esan



eutsen: «Emoyozue emakume ari ume bizia, berea data».

8. Jaungoikoa'ri jauretxea eraikiteko agindu eutsan bere aitak Salomon'i. Bai egin be Salomon'ek; iñon ziran langilerik onenak, saspi urte-buruan jardun eben, eta ludian izan dan jauretzerik eder-ikusgañienetarikoa jaso eban Moria mendian. Ementxe ipiñi eban Itun Zareko «Kutxa Deuna», ta jauretxe

onetara etorten ziran edonongo isfaeldarak, bai otoi egitera, bai euren opariak Jaungoikoa'ri eskintzera.

9. Salomon, Aigito'ko Paraon'en alabagaz ezkondu zan, eta Jesukristo ta Eleiza'ren arteko batasunaren lenengo irudia dogu ezkontza au.

10. Gastearoan zintzo izana'ren, zartzaroan gaiztotu egin zan Salomon. Emakume atzeritarak emaztetzat artu ebazan, eta euron jainko-izunak Jaungoikotzat artu ta gur-egiteraño endekatu zan.

IKASBIDEA

Jaungoikoa'ren gogoa ta Aren zuzenbidea bilatu lenengo ta bein, eta enparau ondasunak ganez artuko dituzu. Maitekeriak galdu eban Salomon. Orixe dogu guk be griñarik bildur-ga'iena. Zeure burua garbi zaindu egizu.

ITAUNAK

1. Nor izan zan Dabid'en uringo erege?—2. Zintzo ta Jaungoikozale ete zan Salomon gastearoan?—3. Zer eskatu eutsan Salomon'ek Jaungoikoa'ri?—4. Atsegin izan ete yakon Jauna'ri Salomon'en eskaria?—5. Noz erakutsi eban Salomon'ek bere zurtasuna?—6. Auzi ori zer zan?—7. Zer agindu eutsan Dabid'ek Salomon'i?—8. Nogaz ezkondu zan Salomon?—9. Beti zintzo iraun ete eban Salomon'ek?

.....

Zeintzuk dira Espiritu Santuaren emaitzak?... Zeintzuk dira Espiritu Santuaren arnariak?... «Betorkigu zure ereiñua» esatean, zer eskatzen dogu?... Zer eskatzen dozu, «egin bedi zure borondatea zeruan lez lu'ean be» esanaz?

XXVIII

JUDA - ERIA

1. Israél-eria erdibituaz zigortu eban Jauna'k Salomon'en



gaiztakeria: Juda-eria ta Israél-eria eritxoen zati bioi. Salomon ilda gero, E-roboan bere semea izan zan judataren errege, ta Jeroboan, israeldarena.

EŔOBOAN

2. Salomon il ezkeru, Eŕoboan, aren semeagana jo eban eŕiak eta esan eutson: *Ara, zure aitak gogoregi artu izan gaitu, buztari astun ori jaso eiguzu ta zure moŕoi izango gayatzuz.*
3. Eŕoboan'ek erantzun eutsen: *Iru egun baru biurtu zakidaze.*
4. Bitartean, bere aitaren onulari izandako agureak batu ebazan eta itandu eutsen: *Zer erantzungo ete dautsot eŕi oni?*
5. Zarak esan eutsoen: *Eŕi onen ezpak aitzen ba-dozuz ta legunki erantzun, betiko moŕoi izango yatzu.*
6. Zaren onu ta burubidea ez eban aintzakotzat artu Eŕoboan'ek, eta beragaz miske-miske azitako gasteai dei egin eutsen.
7. Gasteak esan eutsoen: *Eŕi ori esayozu: Nire aitak buztari gogora ezari eutzuen, bana nik gogoragoa ezariko dautzuet, nire aitak irezilaz zigortu zinduezan, bana nik burmeagaz zigortuko zaituet.*
8. Gaste zoruen onua jaraitu eban Eŕoboan'ek eta areik esandako itzez egin eutson eŕiari.
9. Bana eŕia sumindu zan, eta amar leiñuk alde egin eben. Juda ta benjamindarak bakaŕik geratu ziran Eŕoboan'egaz. Aŕezkeru eŕi biok alkarregaz burukan bizi izan ziran.

IKASBIDEA

Zaren onua aintzakotzat ez artzetik etofi yakozan Eŕoboan'i, baita bere eŕiari be, kalte guztiak. Buru ariñen onurik ez jaraitu. «Zurakaz dabilana zur izango da, bana eroakaz burua bat egiten dauana, arein antzeko biurtuko da».

ITAUNAK

1. Zelan zigortu eban Jauna'k Salomon'en gaiztakeria?—2. Salomon il ezkeru, zer esan eutsan ériak Éroboan'i?—3. Zer erantzun Éroboan'ek?—4. Bitartean, nortzuk batu ebazan Éroboan'ek?—5. Zer esan eutsoen zañak Éroboan'i?—6. Zañen onua aintzakotzat artu ete eban Éroboan'ek?—7. Zer esan eutsoen gasteak?—8. Nortzuen onua jañaitu eban Éroboan'ek?—9. Zer egin eban ériak?

.....

Gurasoez gañera, nortzuk dira aintzak euki bear doguzanak?... Zer debekatzen dausku laugañen aginduak?...

XXIX

A K A Z

1. Akaz'en aldian, érege bik esia ezañi eutsen Jerusalen'i.
2. Isai igarlea aurkeztu yakon Akaz'i ta esan eutson: *Ez zaite érege bi órein bildur izan. Nai dozun zantzua eskatuyozu zure Jaun, Jaungoikoa'ri, naiz ortzi-goyan, naiz beko barenean.*
3. Akaz'ek erantzun eutson: *Ez, ez dautsat eskatuko, ta ez dot Jauna zirikatuko.*
4. —Entzun, *ba*, esan eutson Isai'k: *Zer? gizonai gogaikañi zayakezala-ta, Jaungoikoari be gogaikañi izan bear ete zayakeze? Jaungoikoa'k berak egingo dautzue, ba, zantzua. **Ara, birjiñak sabelean sortu ta argitara ekañiko dau; ta Aren izena Emmanuel edo Jaungoikoa geugaz, izango da.***
5. Nekarbi ta Ama, biok batera, izango zan ori, Andre Maria dogu; bere semea, bañiz, Jesukristo, Jaungoiko gizon egiña.

EZEKI

6. Akaz'en uréngo, Ezeki, aren semea, izan zan Juda'ko érege.

7. Oso ona izan zan érege au, ta bere aitak egindako okerkeri guztiak zuzentzeko alegin egin eban.

8. Asiritarak, gudarozte gogořagaz etoři yakozan, Jerusalem artzeko asmoz, ta gudari-buruak Jaungoikoa'ren aurka biraoka ziarduan.

9. Baña Ezeki ta Isai'k Jauna'ri otoi egin, eta 185.000 gudari il ebazan gau baten Jauna'ren aingeruak, eta Senakerib, gudari-burua be, bere semeak erail eban.

10. Ezeki, gexo, iltzer zala, Jauna'ri otoi egin eutsan eta Jauna'k, Isai'ren aoz, beste amabost urte biziko zala agindu eutsan.

MANASE

11. Aita onaren seme izanařen, gastearoan gaizto-gaizto izan zan Manase, ta Juda eřia Jaungoikoa'gandik aldendu ta bide txarėtara eroan eban.

12. Asiri'tarak jabetu ziran Juda-eřiaz ta Manase lotuta eroan eben. Baña baitegi edo giltzapean, bere okerkeriakaz damutu zan, eta Jaungoikoa'k azkatasuna ta éregetza bařiro emon eutsozan.

JUDIT

13. Manase gastetxoa zala, Asiri'tarak, 120.000 oñezko ta 22.000 zaldunegaz, Betuli eřiskari esia ezaři eutsoen.

14. Uri atan bizi zan Judit, andre alargun Jaungoikozale ta lotsa onekoa.

15. Bañi ori jakin ebanean Judit'ek, e'riko agureak batu ta otoi ta garbai egiteko agindu eutsen.

16. Egun batez, garbai - soñekoak erantzi, soñekorik ede'enenak jantzi ta guztiz apaindurik joan zan Judit Asiri'ta'eren txaboletara.

17. Olopernes, asirita'eren gudari-burua, Judit'en edertasunez liluratuta geratu zan, eta txaboletatik noznai sartu -urteteko eskubidea emon eutson.

18. Lauga'eren egunean, izuga'izko o'ritz edo aparria emon eutsen Olopernes'ek gudari nagosiai Judit'en omenez, ta ordituta lotaratu zan.



19. Lo egoala, Judit'ek, aren ezpata artu, ta zartada bitan buruindu eban, eta atetan zain egoan mirabeari emon eutsan burua, zo'roan sartu ta Betuli'ra eroateko.

20. Urira elduki, e'ria batu eban eta Olopernes'en burua erakutsirik, Jaungoikoa goretsi eben, emakume adoretzu aren bidez gaizkatu ebazalako.

21. Asiri'ta'arak, gudari-burua buruinduta ikusi ebanean, bildur-izuak artu ebazan, eta al ebanak al ebanez, igesari emon-da sakabanatu ziran

22. Judit'en gurenda ospatu eben Betuli'ta'arak, emakume

oni iñotsela: Zu zara Jerusalem'go aintza, Zu Israel'en poza, Zu gure eñiaren dedua.

23. Andre Maria'ren irudi dogu Judit. Judit'ek bere eña asiritañen menbetik gaizkatu eban legez, Andre Mari'k be, bere Semearen bitartez gaizkatu gaitu. Ta Judit bere eñiak goretsi eban legez, baita aingeru ta gizonak bere, goresten dogu gure Ama, Andre Maria.

SEDEKI

24. Sedeki izan zan Juda-eñiko azkenen-eñege.

25. Nabukodonosor, Babilon'go eñegeak atzitu eban Sedeki, ta beronen semeak erail ta beroni begiak atara, ta baituta eroan eben Babilon'era. Onantxe ondatu zan Juda-eña.

IKASBIDEA

Jaungoikoa zintzoa dogu, bai gure egintza onak saritu ta bai gure okerkeriak zigortzeko be. Eñien obenak, emen bertan, zigortu daroaz Jauna'k. Eñiak ez dabe geroko bizitzarik. Otoi ta zurdatzez gaizkatu eban Judit'ek bere eña. Jaungoikoa'ren asañea ibitu ta gure alde jarteko, otoyta ta buru-nekea doguz bide.

ITAUNAK

AKAZ, EZEKI TA MANASE

1. Zer jazo zan Akaz'en aldian?—2. Nor aurkeztu yakon Akaz'i ta zer esan eutson?—3. Zer erantzun Akaz'ek?—4. Zer esan eta agindu Isai'k?—5. Nor da Neskarbi ta Ama ori?—6. Nor izan zan Akaz'en urango eñege?—7. Ona izan ete zan Ezeki?—8. Nortzuk etoñi yakozan Jerusalem artzeko asmoz?—9. Zer egin eben Ezeki ta Isai'k eta zer jazo yakon asiritañen gudarozteari?—10. Zeinbat urteko bizia agindu eutsan Jauna'k Ezeki'ri?

—11. Zer egin eban Manase'k gastearoan?—12. Nortzuk eroan eben lotuta Manase ta zer jazo yakon baitegian?

JUDIT

13. Zeinbat gudariz esitu eben asirita'ak Betuli, Manase'en aldian?—14. Nor bizi zan uri atan?—15. Zer egin eban Judit'ek ba'ri au jakin ebanean?—16. Zer egin eban Judit'ek egun batez?—17. Zer jazo yakon Olopernes'i Judit ikusi ebanean?—18. Zer egin eban Olopernes'ek lauga'en egunean?—19. Zer egin eutsan Judit'ek Olopernes'i lo egoala?—20. Zer egin eban Judit'ek urira itzuli zanean?—21. Zer jazo yakon asirita'ai gudari-burua buruinduta ikusi ebanean?—22. Zelan ospatu eben Betuli'ta'ak Judit'en gurenda?—23. Noren irudi dogu Judit?

SEDEKI

24. Nor izan zan Juda-e'riko azken-e'rege?—25. Zer egin eutsan Nabukonosor'ek Sedeki'ri?

.....

Zer irakasten dausku iruga'en siñiskayak?... Eta gizakundeak, zer adierazten dausku?... Zelan gizatu zan Jaungoikoa'ren Semea?... Jesukristo'ren Amak beti birjiña irauin ete eban?... Nor da Andra Maria Ama Birjiña?... Andra Maria Jaungoikoa'ren Ama dala, zegaitik diñozu?

XXX

ISRAEL - ERIA

1. E'rege gaiztoak izan ebazan Is'rael-e'riak.
2. Jeroboan izan zan is'raeldaren lenengo e'rege. Onak bere kantuan iñoan: «E'ri au, Jauna'ri opariak eskintzeko, Jerusalem'go jauretxera igoten ba-da, beronen biotza E'roboan'en alde ja'riko da, ta nire agintaritzak Dabid'en jato'rikoetara joko dau. U'rezko zekor bi ipiñi ebazan, ba, bata ipa'aldean eta egoaldean, bestea. Ta e'riari esan eutsan: Ez zaiteze Jeru-

salen-era joan, oía or Aigito'tik atara zinduezan zuen jainkoak.

3. Eta eñiak, urezko zekoñak jainkutztat artu ta gur-egin ebazan.

4. Akab izan zan Isráel'go eregietatik nagosiena ta gaiztoena.

5. Jezabel emakume arotz-zitela artu eban emaztetzat eta Bal jainko-izuna gur-eragin eutsan eñiari. Bal'en izenez izugarizko etxe edeña jaso eban eta sasi-jainko au gur-egiteko 450 jaupari izentau ebazan; Jaungoikoa'ren jaupariak, bañiz, erail egin ebazan.

6. Akab'en jauregiari eutsola, mastia eban Nabot eritxon gizon zintzoak.

7. Beñola, Akab'ek Nabot'i esan eutson: *Zure masti ori ekatzu, nire jauregi inguruan baratza egiteko, beste masti bat emongo dautzut ordez, edo nayago izan ezkeru, dirutan ordainduko dautzut.*

8.—*Nire gurasoen aloña saltzetik gorde nagiala Jaungoikoa'k, erantzun eutson Nabot'ek.*

9. Suak artu eban Akab eta, ezer jan nai ez-ta, oeratu zan.

10. Emazteak itandu eutsan: *Zergaitik zagoz oren itun, ezer jan nai ez-ta?*

11. Jazo yakona esan eutsan Akab'ek.

12. Orduan Jezabel'ek iri-pañez egin eutsan: *Ori al da zure almena ta erege-agintaritza? Jagi ta nasai jan egizu, masti ori neuk emongo dautzut-eta.*

13. Eñiko aundikiai ots-egin eta esan eutsen Jezabel'ek: *Nabot guzuzez salatuko daben gizon bi zuzendu egidazuez ta esan begie: Nabot'ek Jaungoikoa'ren eta eregeren aurka birao egin dau, ta eritik atara ta añika il egizue.*

14. Alantxe egin eben: Nabot zintzoa añika il ta bere zauriak txakuñak miazkatu ebezan.

15. Jezabel'ek, au jakin ebanean, Akab'i esan eutson: *Mastiaz jabetu zeinteketz, Nabet ez da bizi-ta.*

16. Bereala joan zan Nabet'en mastia ikustera, baña Eli igarleak bidera urtenda, esan eutson: *Ona Jaungoikoa'ren itza:*



Zure urkua erail eta okerbidez jabetu izan zara bere ondasunez. Nabet'en odola txakurak miazkatu eben legez, zure odola be txakurak miazkatuko dabe. Ta txakurak iruntziko dabe Jezabel zure emaztea bere.

17. Itzez-itz bete zan Eli'ren iragarki au. Iru urte geroago, txakurak miazkatu eben Akab'en gorputz zaurituari erion odola. Jezabel, bañiz, leyotik bera jaurti eben eta bere soña, zaldiak ostikopean zapaldu, ta txakurak jan eben.

IKASBIDEA

Gaiztoak ez dabe zorionik. Ainbat mastiren jabe zan Akab. Nabot'ek; oster, ez eban mastitxo bat baño. Isráel'go jaun izanañen, Akab zoritxañeko zan. Nabot, bañiz, mastitxo baten jabe baño izan ezañen, zoriontsu bizi zan. Zintzotasunean dago zoriona. Jaungoikoa'k bere eskupean daukaz zintzoak. Jezabel'ek Nabot il-eragin eban. Baita Jauna'k be, Nabot'i ezañi eutsen zigor berberagaz zigortu ebazan Akab eta bere emaztea.

ITAUNAK

1. Zelako éregeak izan ebazan Isráel-eñiak?—2. Nor izan zan Isráel-eñian lenengo érege ta zer asmo artu eban?—3. Zer egin eban eñiak?—4. Zein izan zan Isráel-eñiaren éregerik nagosiena ta gaiztoena?—5. Nor artu eban emaztetzat Akab'en eta zein jainko-izun gur-eragin eutsan eñiari?—6. Zer eban Nabot'ek Akab'en jauregiari eutsala?—7. Zer eskatu eutsan Akab'ek Nabot'i?—8. Zer erantzun eutsan Nabot'ek?—9. Ontzat artu ete eban Akab'ek Nabot'en erantzuna?—10. Zer itandu eutsan emazteak?—11. Zer erantzun Akab'ek?—12. Ta zer, iri-pañez, Jezabel'ek?—13. Zer egin eban Jezabel'ek?—14. Zelan erail eban Nabot?—15. Zer esan eutsan Jezabel'ek Akab'i Nabot'en eriotza jakin ebanean?—16. Mastia ikustera joyala, nor bidera urten eta zer esan eutsan Akab'i?—17. Bete al zan eta noz Eli'ren iragarkia?

.....

Zein da Jaungoikoa'ren Legeko amargañen agindua?... Zer gebentzen dausku amargañen aginduak?... Zeri deritxo guzurézko testigantzea?... Zer da guzurézko salakuntzea?... Zein da Jaungoikoa'ren Legeko boskañen agindua?... Zer agintzen dausku boskañen aginduak?... Zer eragozten dausku boskañen aginduak?

XXXI

IGARLEAK

ELI TA ELISAI

1. Noizik-bein, Igarleak eritxen gizon deunak sortu eroyazan Jauna'k bere eñian.



2. Eñi ta agintariai Jaungoikoa'ren Legea adirazi, ta alatz edo mirariz bayesten eben gizonok Jaungoikoa'gandik artutako eginkizuna.

3. Baita etorkizuna be aúrez iragarten eben, batez bere Jesukristo'ri egokiona bere jayotza, bizitz, nekaldi, eriotz ta bizkundera, zertzelada guztiekaz iragaíri ebezan.

4. Igarle oneitariko bat izan zan Eli. Akab'en aldian bizi izan zan.

5. Érege gaizto onek, Jauna'ren jaupariak il-eragin eta Bal'en otseintzarako 450 jaupari ipiñi ebazanean, Eli'k bidera urten eta esan eutson: *Ez dau euririk egingo neure aginduz baño.*

6. Itzok entzutean, Akab asaratu zan eta maltzurkeriz il-azo gura eban Eli.

7. Baña Jauna'k esan eutsan Eli'ri: *Zoaz emendik eta Jordan-ertzean, Karit-érekatxoan, ezkutau zaite.*

8. Joan zan, ba, Eli ta goiz-aratsaldetan ogi-ta aragia eroyazan bela batek eskutau zan tokira, ta érekatxoan edaten eban ura.

9. Baña érekatxoa be legortu zan, eta orduan Jauna'k esan eutsan: *Jagi ta zoaz Sareta'ra, alargun batek janarituko zaitu-ta.*

10. Uri atarian ikusi eban Eli'k emakumea egur-batzen eta oyu egin eutsan esanaz: *Ur pizkatxo bat ekatzu, aren.*

11. Emakumea ur-eske joala, bañiro deadar egin eutsan: *Baita ogi kopautxo bat be, aren, ekaíri egidazu.*

12. —Ogirik ez daukat, ba, urun pizkatxo bat eta orio tantaka batzuk baño. *Eguía batzen diñardut, neuretzako ta neure semiarentzako zertxobait gertetako, jan-da il gaitzezan.*

13. —Ez bildur izan, erantzun eutsan Eli'k: *esan dozuna egi-zu, baña lenengo, sutauspean éretako opila gertau egidazu neuri, gero egingo dozu zeure semearentzako-ta. Ona, ba, Jauna'ren itza: Zure aspi-lan urun ezik ez da izango, ez da zure ontzitxoan be orio ezik, arek eta Jaungoikoa'k luíera euria izuri arte.*

14. Igarleak agindu eutsonez egin eban emakumeak, eta aiezkerok, beti izan zan uruna aren aspilan eta orioa aren ontzian.

15. Andik geroago, emakume aren semea il zan. Eli'k



oyu egin eutson Jauna'ri esanaz: *Jauna, mutil onen gogoa bere soiñera bañiro biurtzeko, aren eskatzen dautzut.*

16. Ta mutikoa bañiro biztu zan.

17. Emakume arek poz ta esker - onez iñotson Eli'ri: *Oraintxe, bai, dakust Jaungoikoa'ren gizona zareala zu, ta Jauna'ren itza dagola zugan.*

ELI'REN OPARIA

18. Iru urte ta erdian ez eban euririk egin.

19. Orduan Jauna'k esan eutson Eli'ri: Zoaz ta Akab'i aurkeztu zakioz, luñera euria izuri dagidan.

20. Akab'ek, Eli ikusi ebanean, asařatuta esan eutson: Zer? ez ete zara, ba, zeu Isřael neke-lořetan daukazuna?

21. —Ez, erantzun eutson Eli'k, ez naz ni ezbear onen erudun, zeu ta zeure aitaren etxea bařo, Jaungoikoa'ren agindua ezetsi ta jainko-izunak aintzakotzat artu dozuezalako. Batu egizu, ba, orain Isřael-eria Karmel-mendian, baita Bal'en 450 jaupariak be.

22. Eli'ren esana egin eban Akab'ek, gosete gořia zan ba.

23. Eřiari aurkeztu ta esan eutson Eli'k: Noiz arte zabiltzakeze batera ta bestera erenka? Jauna, Jaungoiko ba-dozue, jařaitu egiozue, Bal, Jaungoiko ba-dozue, bařiz, jařaitu beroni.

24. Eřiak ez eban itzik erantzun.

25. Orduan bařiro esan eutsen Eli'k: **Jauna'ren igarrietatik neu bakařik** geratu naz, Bal'en jaupariak, bařiz, 450 dira. Ekarguzuez idi bi, aukeratu begie bata eurak, eta zatitu, ta egur-gañean ipiņi begie, baņa surik ezarteke. Nik bigařena il eta egur-gañean ipiņiko dot, surik ezarteke. Gero, dei-egin zuek zuen jainko-izunai. Nik neure Jaungoikoa'ri dei-egingo dautsat. Oparia eretako sua bialduko dauana, orixe izan bedi egiazko Jaungoikoa.

26. Eři osoak erantzun eban: Ederto deritxogu.

27. Opaři-gañean lenengo idia ipiņi eben, ba, Bal'en jaupariak, eta goizetik asi ta eguerdiraņo ziarduen deadarka: iBal, entzun ařen! Baņa erantzunik ez zan.

28. Eli'k adařa joten iņotsen: Gogořago deitu egizue, Bal, ausaz, norbaitegaz izango da, edo, bear ba'da, lo egongo da-ta. Baņa arein deadar ta oyuak alpeřikoak ziran.

29. Arátsaldean, Eli'k amabi afigaz opaía egin eban; eta idia zatitu ta egur gañean ipiñi eutzun. Gero, urez busti-busti egin ebazan idi, egur ta opaía, alde guztietatik ura txiñoz jausteraño. Orduan opaí ondoan jañi ta otoi egin eutson Jauna'ri: *Jauna, erakutsi aren gaur, Zeu zareala Israél'go Jaungoiko, ta ni, zure aginduz gauza guzti oneik egin dodazan zure otseña. Entzun, aren Jauna, eñi onek ezagutu dagian Zeu zareala gure Jaungoikoa.*

30. Otoi-egin ordukoxe goitik sua jatsi zan, eta opari, ta egur, ta ari, kiskaldu ta garbitu ebazan.

31. Au ikusi ebanean eñiak, auzpez jañita esan eban: *Jau-*



na da Jaungoiko egiazkoa.

32. Karmel-gurenara igon zan Eli ta otoi egin eban. Bapatera odei zuriskatxoa agertu zan itxasoan; gero, ortzi edo zerua baltzitu, ta euri zapañada gaitza egin eban.

33. Eli' ren aginduz, Bal' en

jaupari guztiak il ebezan Israeldaræk.

34. Oreb-mendiruntz igesi joyala, giñarapean loak artu eban. Jauna'ren aingeruak jo ta itxartu eban esanaz: *Jagi ta jan egizu.* Sutauspéan éretako opila ta katilukada ura artu, ta beñogeñi gau-eguneko barauz eldu zan Oreb-mendira.

35. Eli'k, Elisai aukeratu eban bere ordezkotzat.

36. Jordan-ibaira eldu ziran biok. Eta Eli'k bere txartez urak erdibitu ta oiñak-legor, urez bestalderatu ziran. Ibai-ertza artu ebeneko, su-burdia agertu zan, eta su-burdi antzekoan aingeruak eroan eben, azken-aldian Enok-egaz bañiro gizartera etorteko.

37. Oreb-mendiruntz joyala, Eli'k sutauspean eřeta jan eban opila, eukaristiaren irudi dogu. Ogi aren indařez suspertuta, Eli mendi-gurenera eldu zan legez, gu bere, *zerutik jatsitako ogiz* suspertuta, elduko gara onbidean gorengo maletara.

IKASBIDEA

Indar aundidun da zintzoen otoi azkutsua. Eli, gure ariko gizona zan; alan da be euririk ez jasteko ařenez eskatu eban, eta iru urte ta sei ilabetean ez zan euririk jatsi. Ta bañiro otoi-egiñaz, ortziak euria izuri ta luřak zitu edo frutua ekaři eban. (Jak. 5,17.) Ařetaz, apal, uste osoz ta iraunkiro egin otoitz.

ITAUNAK

1. Nortzuk ziran igarleak?—2. Zer egiten eben igarleak?—3. Etorkizunik iragarten ete eben igarleak eta zeintzuk batez bere?—4. Nor zan Eli ta noz bizi izan zan?—5. Bidera urten-da, zer esan eutson Eli'k Akab'i?—6. Asařatu ete zan Akab itz oneik entzunaz?—7. Zer esan eutson Jauna'k Eli'ri?—8. Goiz-ařatsaldetan, zer eroaten eutsoen belak Eli'ri?—9. Nora joateko agindu eutsan Jauna'k Eli'ri?—10. Uri-atarian, nor ikusi ta zer eskatu eutsan Eli'k?—11. Emakumea ur-eske joala, zer geyago eskatu eutsan Elik?—12. Zer erantzun eutsan emakumeak?—13. Zer yardetsi Eli'k?—14. Igarleak agindu eutsana egin ete eban emakumeak?—15. Andik geroago, zer jazo zan?—16. Bañiro biztu ete zan mutikoa?—17. Zer iñotson emakume arek Eli'ri?—18. Zeinbat urtetan ez eban euririk egin?—19. Zer agindu eutsan Jauna'k Eli'ri?—20. Zer esan Akab'ek Eli'ri?—21. Ta zer erantzun Eli'k?—22. Eli'ren esana egin ete eban Akab'ek?—

23. Zer esan Eli'k eñiari?—24. Eñiak itzik egin ete?—25. Zer esan eutsen bañiro Eli'k?—26. Ontzat artu ete eban eñiak Eli'ren asmoa?—27. Erantzun ete eutsen Bal'ek jauparien deadañai?—28. Zer iñotsen Eli'k adaña joten?—29. Afatsaldean, zer egin eban Eli'k?—30. Zer jazo zan otoi-egin ordukoxe?—31. Au ikusi ebanean, zer iñoan eñiak?—32. Nora igon eta zer egin eban Eli'k?—33. Eli'ren aginduz, nortzuk il ebazan eñiak?—34. Oreb mendiruntz igesi joala, zer jazo yakon Eli'ri?—35. Eli'k, nor aukeratu eban ordezkotzat?—36. Zer jazo zan biok Jordan-ibaira eldu ziranean?—37. Oreb mendiruntz joyala, Eli'k sutauspean eñeta jan eban opila, zeren irudi dogu?

.....

Otoitz egitea, zer ete da?... Zeinbat eratakoak dira otoitzak?... Gogo utsezko otoitza zer da?... Aozko otoitza zer da?... Otoitz zelan egin bear ete da?... Otoitza sañi egin bear ete da?... Zer eskatzen dozu «emoiguzu gaur gure eguneroko ogia» diñozunean?...

XXXII

ELISAI

1. Eli'ren Jaungoikozaletasuna ta mirari edo alatzak egiteko, almena emon eutsozan Jauna'k Elisai'ri.

2. Beñola, Betel'era joyala, mutikote batzuk isekaz asi yakozan deadarka: *iñgon adi, igon adi, kaskamotz ori!*

3. Elisai'k Jaungoikoaren izenez gaiztetsi ebazan mutil koskor areik, eta artzak, otoz-otoan basotik urtenda, 42 mutikote garbitu ebazan.

4. Nâman, Siri'tar gudari-buru ospetsua, burutik beatze-taraño legenañez josita egoan.

5. Mirabe artean, israeldar neskatila bat eban eta onek etxekoandreari esan eutsan: *Gure ugazaba, Samari'n dagon Igar'eagana joango ba'litz, beingoan osatuko leuke.*

6. Joan zan, ba, Nâman, eta Elisai'k geznari bat bialdu eutsan esaten: Zoaz ta Jordan-ibayan saspi bider ukuzi zaite ta garbi geratuko zara.

7. Nâman mindu zan eta bere mo'royai iñotsen: Jgarlea bera eto'ri ta Jaungoikoa'ri otoi-egin eta osatuko ninduala uste neban nik. ¿Zer dala-ta ukuzi bear ete naz Jordan-ibayan? Siri'ko ibayak ez ete dira, ba, Is'rael'go ur guztiak baño obe?

8. Mo'royak erantzun eutsoen: Ara, aita, gauza zailen bat agindu ba'leutzu be, egin bearko zendun. Uretan ukuzlea baño agindu ez dautzun ezkerro, ¿zergaitik egin ez?

9. Saspi bider ukuzi zan, ba, J'ordan-ibayan eta garbi-garbi geratu zan.

10. Baña Elisai'ren alatzik a'riga'riena, berau ilda gero jazo zan. Ila obiratzen ziarduen gizon batzuk, lapu'ren bildu'rez, Elisai'ren obira jaurti eben ildakoaren gorpua. Elisai'ren azu'rai ikutu ordukoxe, ildakoa ba'iro biztu zan.

11. Nâman'en ukuzketa gure bateoaren irudi dogu. Jordan-ibayan ukuziaz, Nâman garbi-garbi geratu zan legez, gu bere, bateo edo ugutzan jato'rizko ta enparau ordurarteko oben-legena'rez garbi-garbi geratzen gara.

IKASBIDEA

Eleizgizonai begirune ta lotsa zor dautsegu, Jaungoikoa'ren ordezeko dira-ta.

ITAUNAK

1. Zer emon eutsan Jauna'k Elisai'ri?—2. Zer deitzen eutsoen Betel'go mut'koak, isekaz, Elisai'ri?—3. Zer jazo yaken arei mut'koai?—4. Nor zan Nâman eta zer gaitz eban?—5. Nok esan eutsan Nâman'i Elisai'gana joateko?—6. Zer agindu eutsan Elisai'k Nâman'i?—7. Mindu ete zan Nâman Elisai'ren aginduaz?—8. Zer erantzun eutsoen Nâman'i bere mo'royak?

—9. Jordan-ibayan ukuzi ta garbi geratu ete zan Náman?—10. Noz jazo zan Elisai'ren alatzik afigaíena ta zer izan zan?—11. Zeren irudi dogu Náman'en ukuzketa?

.....
Eleizaren ordezkoi itzal eta lotsarik izan bear ete yake?... Zergaitik izan bear yake lotsa ta itzal aundia abade ta gañerako Eleizgizonai?... Zetarako ipiñia ete da Bateoa?... Noz eroan bear dira umiak eleizara bateatzeko?... Eta estualdietan, nok bateatu daike?

XXXIII

J O N A

1. Elisai'ren uréngo Jona igarlea eregi eban Jauna'k.
2. Ninibe'ra joan-da, garbai ta damua aldaírikatzeko agindu eutsan Jauna'k Jona'ri.
3. Baña Jona'ri ez yakon gogoko izan Jauna'ren agindua ta iges egiteko asmoz itxas-ontzi baten sartu zan.
4. Ekaitz gogoía sortu eban Jauna'k itxasoan eta ontzia, ez murgilduko, bai murgilduko jaíi zan.
5. Ontzi baíenean, lo-zoíoan etzan Jona, ta ontzi-buruak iratzartu ta esan eutson: *Zer? lotan al zagoz? Jaiki ta zure Jaungoikoa'ri dei egiozu, gugaz gomutauko da, ba, ausaz, galdu ez gaitazan.*
6. Ontzian joyezanak alkaíi iñotzen: *Erduze ta zotz-egin dagigun, ezbear onen erudun nor dan jakiteko.*
7. Zotz-egin eben, ba, ta Jona'ri jausi yakon.
8. Orduan Jona'k bere obena autortu eban eta esan eutsen: *Itxasora bota nagizue, neu naz, ba, ekaitz onen erudun.*
9. Itxasora jaurti ebenekoxe, araintzar batek iruntsi eban Jona ta iru egun-buruan egon zan araiñaren sabelean, Jauna'ri

otoika. Irugañen egunean, itxas-ertzera bota eban araiñak.

10. Ninibe'ra joan - da garbaya aldañikatzeko agindu eutsan bañero Jauna'k.

11. Uri aundi onetan sartu ala, asi zan deadarka: *Berogei egun baru Ninibe porokatu izango da.*

12. Jauna'ren deya entzun eta damutu ziran Ninibe'tarak, eta Jauna eruki izan yaken, eta ez eutsen zematutako zigoñik ezañi.

13. Biziro minberatu zan Jona Jauna'ren eruki onetzaz, baña laster erakutsi eutsan Jauna'k, bere asarea bidezko ez zala.

14. Txabola zar baten bizi zan Jona, ta kerizpean etzan al zedin, untzoñia sortu-azo eban Jauna'k.

15. Aukeran etzan Jona untzoñipean, baña urango goizean arak jo ta bertantxe igertu zan.

16. Eguzki bero ta aize ereak kiskaldu bearez, eriotza eskatson Jona'k Jauna'ri.

17. Jauna'k erantzun eutson: *Gabaz erne ta gabaz igertu dan untzoñia bide dala oñen asare zara zu, ita esker-eskumak bereizten ez dakiezan 120.000 ninibetar umez, ez al nintzan Ni eruki izan bear?*

18. Jesukristo'ren irudi dogu Jona. Idazlari ta parisaitarak ezaugañi ta zantzo-eske ziarduen baten, Jesus'ek erantzun eutsen: *Gizaldi gaizto ta dolor au ezaugañi-bila dabil, ta Jona igarlearen ezaugañia baño beste ezaugañirik ez yako emongo. Izan bere, Jona araiñaren sabelean iru gau eta iru egun egon zan legez, Giza-semea bere iru egun eta iru gau egongo da luñaren biotzean.*

IKASBIDEA

Gaizto-gaiztoak ziran Ninibe'tarak, baña damutu ordukoxe, Jauna eruki izan yaken eta parkatu eutsen. Ninibe'tařen antzera oben egin dogunok, arein antzera damutu bear gara,

ITAUNAK

1. Nor eregi eban Jauna'k Elisai'ren uréngo?—2. Zer agindu eutsan Jauna'k Jona'ri?—3. Gogoko izan ete yakon Jona'ri Jauna'ren agindua?—4. Zer sortu eban Jauna'k itxasoan?—5. Non etzan Jona ta zer esan eutsan ontzi-buruak?—6. Ontzikoak, zer inñotsen alkañi?—7. Nori jausi yakon zotza?—8. Jona'k autortu ete eban bere obena?—9. Itxasora jaurti ebenekoxe, zer jazo yakon Jona'ri ta zeinbat egun egin ebazan araiñaren sabelean?—10. Ninibe'ra joatekorik agindu ete eutsan bañiro Jauna'k?—11. Uri aundi onetan sartu ala, zertan asi zan?—12. Jauna'ren deya entzun eta damutu ete ziran ninibetañak?—13. Biziro minberatu ete zan Jona Jauna'ren eruki onegaz?—14. Non bizi zan Jona ta zer sortu azo eban Jauna'k?—15. Zer jazo yakon untzoñari?—16. Zer eskatson Jona'k Jauna'ri?—17. Ze erantzun Jauna'k?—18. Noren irudi dogu Jona?

.....

Damua zer da?... Zeinbat eratakoa da biotzeko damua?... Zer da maitasun-damua?... Zer da bildur-damua?... Eta zein da bietatik onena: maitasun-damua ala bildur-damua?... Zergaitik da maitasun-damua damurik onena?... Zelan jatsi zan Jesukristo zintzoen linbora?... Zelan gelditu zan, ilda gero, Jesukristo'ren gorputza?... Zelan berbiztu zan Jesukristo irugañen egunean?

XXXIV

ISRAEL'EN AZKENA

TOBI TA TOBITXO

1. Beste igarle batzuk bere bialdu eutsezan Jauna'k israeldañai, jainko-izunak itxi ta oneratu eitezan. Baña israeldañak entzun-da gor egin eutsoen Jauna'ren deyari.

2. Laster izan eben Jauna'ren zigoña. Salmanasar, Asiri'ta'ren erégeak, Israel ondatu ta israeldañik geyenak lotuta croan ebazan Asiri'ra.

3. Jopuen artean ba-zan bat, Tobi eritxona, gizon zintzoa, gaste-gastetatik Jaungoikoa'ren legepean iraun ebana.
4. Salmanasar'ek, begi onez ekusan Tobi, ta nai ebana egiteko baimena emon eutson.
5. Tobi'k, bere eritañak ikertu, ta al ebanez poztu, ta gose ziranai jaten, eta bilosik egozanak jantziten eragoyon.
6. Salmanasar'en uréngo, Senakerib, aren semea, jañi zan érege.
7. Onek goñoto ebazan israeldañak eta eurotarik asko erail bere bai.
8. Tobi'k bere etxean ezkutau eroyazan ildakoen gorpuk eta gabaz obiratzen ebazan.
9. Bein, baña, lanez nekatuta, orma ondoan lo etzala, enara-korotza begietara jausi yakon eta itsutu egin zan.
10. Ane, Tobi'ren emazteak, eungintzan irabazten eban eguneroko ogia.
11. Beñola, Ane'k aumea ekañi eban etxera. Tobi'k somau ebanean, esan eutsan: *Begira aume ori lapuñetan egindakoa edo ez ete dan. Jabeari biurtu egiozue, lapuñetakorik ez jan, ez ikutu be ezin gegike-ta*
12. Emaztea asañatu zan eta esan alak esan eutsozan bere senar gaxoari.
13. Baña Tobi'k ixil-ixilik intziriz otoi egian.

TOBI'REN AZKEN-AGUÑA TA TOBITXO'REN OSTEREA

14. Ainbeste neke artean, eriotz-ordua eldu yakolakoan egoan Tobi, ta Tobitxo bere seme bakañari dei egin, eta azken-aguña egin eutson esanaz: *Ene seme, Jaungoikoa'k nire gogoa beragana eroandakoan, nire gorpua obiratu egikezu. Zure*

biztaldiko egun guztietan dedu ta lotsa izan zure ama, bere sabelean zu eroanaz artu ebazan neke latzak gogoraturik.

Egunero Jaungoikoa gogoan erabili eikezu.

Ez egundo obenik egin, ez Jaungoikoa'ren agindurik ausi.

Zure burua zaindu, ene seme, aragikeritik, eta zure biotz ta itzetan aro-usainik ez-peite izan, galbide sustraya arokeria dozu-ta.

Zure otseñai alogera emon, eta ez egundo iñori egin, besteak zeuri egiterik nai ez dozunik.

Zure eukietatik ukara egikezu. Asko ba-daukazu, asko emon, gitxi ba-daukazu, daukozuntxotik be gogo onaz emon.

Aldi oro Jauna goretsi ta zure bideak zuzendu dagizala eskatu. Ez bildur izan, ene seme, txiro ta beartsu bizi gara, bai, baña Jaungoikoa'ren bildur izan eta txarretik alde ta on-egiten ba-dogu, ondasunik asko izango dogu.

15. *Biotz samuñez erantzun eutson semeak: Aita, agindu daustazun guztia egingo dot*

16. *Artzeko bat eban Erages'en Tobi'k eta araxe joateko lagun-bila bialdu eban Tobitxo.*

17. *Etxetik urtenaz batera, bidezta zirudian gaste bategaz topo egin eban. Erapel goi-aingerua zan. Baña Tobitxo'k ez eban ezagutu.*

18. *Agurtu ondoren esan eutson: Erages'erako biderik ba al dakizu gaste?*


19. *—Bai, badakit, erantzun eutson aingeruak.*

20. *Orduan, aitarenera eroan eban eta onek egin eutson: Erages'era Gabelo'ren etxera, lagun egin al ete zengikio, ene seme oni?*

21. *—Bai, bai, ara joaten eta etxera biurtzen be lagunduko dautsat.*

22. *—Zoaze, ba, ta Jauna izan bedi zuekaz ta Jauna'ren aingeruak lagun bekizue.*

23. Aratsalde atan, Tigris-ibaira eldu ziran, eta Tobitxo oiñak garbitzen asi zanekoxe, araintzar bat atomau yakon iruntsi-guraz ta izutu zan.



24. Zaputzetik elduyozu ta luñera atara, esan eutson aingeruak.

25. Luñeratu ebanean, aingeruak esan eutson: *Baŕua idigi egiozu, bai, ta beaztuna ta gibela gorde osakitzat.*

26. Ibili ta ibili uri batera eldu ziran eta Tobitxo'k iñotson: *Non izango ete dogu ostatua?*

27. —*Erangel deritxon gizon bat bizi da emen, zure senitartekoa,*

ta onek Sare deritxon alaba bakaña dau. Emaztetzat eskatuyozu, emongo dautzu-ta.

28. — Senar asko izan ei ditu, baña, Sare'k, eta txerénak garbitu ei dautsaz guztiak. Neuri be, beste orenbeste jazoko ete yatan bildur naz, ta seme bakaña nabe-ta, nire gurasoak tamalez ilgo litzakez, esan eutson Tobitxo'k.

29. — Ara, Jaungoikoa biotzetik jaurti ta atsegin-irits edo egariz ezkontzen diranak, orixek eroan oi ditu txerénak, erantzun eutson aingeruak.

30. Sartu ziran, ba, Eragel'enean, eta Tobitxo'k bere burua ezagutu-azo eutsenean, pozaren-pozez egundoko oturuntza gertau eutsen.

31. Baña Tobitxo'k esan eutson: Nik ez dot, ez jan, ez edango, arek-eta nire eskaria ontzat artu, ta Sare, zure alaba, emaztetzat emon arteraño.

32. Len jazo zanaz gomutauta, Eragel bildurtu zan, baña aingeruak esan eutson: Ez egizu kezkarik izan zure alaba oni emoteko, Jaungoikoa'ren bildurdun da-ta.

33. Eragel'ek ondo eretxi eutson, eta gaste bien eskumak alkañen gañean ezañi ta esan eutsen: Abraban, Isaak eta Jakob'en Jaungoikoa zuekaz izan bedi ta Berak batu ta onetsi bizayez.

34. Tobitxo eztegu-jayetan zan bitartean, aingerua Erages'era joan-da artzekoa eskuratu eban.

ETXERUNTZ

35. Amabost egun igarota gero, Eragel'ek ez eutsen itxi-gura, baña bere aita ta ama itun izango zirala-ta, Tobitxo'k etxeruntzkoa artu eban.

36. Biderdian, gotzona ta biak auferatu ziran eta aingeruak esan eutson: Etxeratutakoan, zure aitaren begiak araiñaren

beztunaz igortzi egikezuz ta argia ikusiko dau, ta zu ikusiaz poz-
tu ko da.

37. Bitartean, Tobitxo'ren gurasoak, luze joyala - ta, saminez biozkatzen asi ziran. Batez be, bere amak, negar-ta negar inoan: *i Ai ene semetxo! zergaitik bialdu ete zaitugu atzerira zeu, gure begien argia, gure bizi-poza ta gure ondorengo itxaropen zarean ori? Ez geuntzun joaten itxi bear.*

38. Alpeñik inar-eban Tobi'k poz-emoten. Egunero urte-
ten zan mendi-muño batera, andik bere semea begiztatzeaen.

39. Nozbait begiztau eban, eta ariñeketan joan zan To-
bi'ri esaten: *Gure semea ba dator.* Beingoan eldu zan Tobitxo'k
eroan eban txakura, bustenari erainka ta pozez jauzika.

40. Orduan Tobi itsua, itsu-mutila lagun ebalá, bidera
urten yakon, baita bere emaztea bere. Pozez alkar besarkatu
ta alkañi mosu emonaz, atsegiñez negara erioen. Tobitxo
asko poztu zan bere aita bizirik eta osasuntsu aurkitu ebalako.

41. Jaungoikoa'ri esker-egiñaz otoi-egin ondoren, Tobi-
txo'k arañaren beztunaz begiak igortzi eutsozan, eta arau-
tza-mintz antzekoak jausi yakozan, begiak argi geraturik.

42. Jaungoikoa goretsi eben guztiak eta Tobi'k inoan:
*Goresten zaitut ene Jaun Israe'go Jaungoikoa, Zeuk gexotu ta Zeuk
sendotu nozulako, ta ona emen, bañero dakust Tobitxo neure semea.*

43. Saspí egun bañu eldu zan Sare be, ta asko be asko
poztu ziran.

44. Tobitxok osterako bañi emon eutson bere aitari ta
inotson: *Ezelan bere ezin ordaindu gengikioz gaste onek egindako
mesede ta eskerak, baña, badezpada, esayozu aren, gure ondasunik
erdiak artuko ete leukezan.*

45. Baña aingeruak ez eban ezertxo bere artu gura izan
eta esan eutsen: *Goretsi ta esker-egiozue Jauna'ri zuekaz eruki izan
dalako. Oso on da oloya-barauagaz, ta ondasunak pilatzea baño obe*

ukar egitea. Zuk negaréz otoi-egin eta ilak obiratzen zenduzanean, neuk aurkeztu nerayozan zure otoyak Jauna'ri. Jaungoikoa'ren gogoko ziñalako, ziltzaldiz aztertu bear ziñan. Zu sendotu ta Sare txerengandik jareiteko bialdu nau Jauna'k. Erapel goi-aingerua naz, ba, ni, Jaungoikoa'ren aurean gagozan saspiretatik bat.

46. Au entzun ebenean, bilduréz auzpeztu ziran.

47. Aingeruak esan eutsen: *Bakea* zuekaz, ez bildur izan. Jaungoikoa'ren aginduz izan naz zuekaz. Onetsi ta abestu bere aintzak. Au esanaz ezkutau zan.

48. Aita-semeak luzaro bizi izan ziran oraindik eta Jaungoikoa'ren besoetan il ziran.

IKASBIDEA

Gaste-gastetatik izan yatzun Tobi Jaungoikozale. Egunero egin oi ebazan bere otoyak eta Jaungoikoa'gazko eginbearak zietz bete, bai bere erian, bai atzerian. Gastearoan jarten da giza-bizitzarako onaria. Gastetan zintzo dana, zartzaroan be izango da.

GURASO ONA. Buruz ikasi ta biotzetan ezañi ta itsatsi bear leukiez gurasoak Tobi'k bere semeari emon eutsozan burubide ta aolkoak.

SEME ZINTZOA. Semetxoa ondo azteko Tobi'ren lanak ez ziran alpeñikoak izan. «Aita, aginduko daustazun guztia egiteko gertu naukazu» iñotson Tobitxo'k bere aitari. Ikasi begie seme-alabak, gurasoen esanak, bizkor, gogoz ta zietz egiten.

ITAUNAK

1. Beste igarlerik izan ete eben israeldar'ak?—2. Zigoñik ezañi ete eutsen Jauna'k israeldar'ai ta zer zigor?—3. Nor zan Tobi?—4. Begi onez ete ekusan Tobi Salmanasar'ek?—5. Zetan eragoyon Tobi'k erbestean.—6. Nor izan zan Salmanasar'en uringo erege?—7. Goñoto ete ebazan onek israeldar'ak?—8. Non ezkutau eroazan Tobi'k ildakoen gorpuak?—9. Zer

jazo yakon Tobi'ri orma ondoan lo etzala?—10. Zetan irabazten eban Ane'k eguneroko ogia?—11. Zer ekañi eban Ane'k etxera ta zer esan eutson Tobi'k?—12. Emaztea asafatu ete zan?—13. Zer egian Tobi'k?

TOBI'REN AZKEN-AGUÑA TA TOBITXO'REN ÖSTEREA

14. Zer eldu yakolakoan egoan Tobi ta nori dei egin eutson?—15. Zer erantzun eutson semeak?—16. Zer eban Tobi'k Érages'en?—17. Etxetik urtenda, nogaz topo egin eban Tobitxo'k?—18. Agurtu ondoren, zer itandu eutson?—19. Zer erantzun aingeruak?—20. Norengana eroan eban Tobitxo'k aingerua ta zer itandu aitak?—21. Zer erantzun aingeruak?—22. Zer yardetsi Tobi'k?—23. Nora eldu ta zer jazo yakon Tobitxo'ri Tigris-ibayan?—24. Zer esan eutson aingeruak?—25. Aíaiña luferatu ebanean, zer agindu eutson?—26. Ibili ta ibili nora eldu ziran eta zer iñotson Tobitxo'k aingeruari?—27. Zer erantzun aingeruak?—28. Zer Tobitxo'k aingeruari Sare'ri buruz?—29. Nortzuk eroan oi dituala txerenek esan eutson aingeruak Tobitxo'ri?—30. Norenean sartu ziran eta zer gertau eutsen Éragel'ek?—31. Zer esan eutson Tobitxo'k Éragel'i?—32. Bildurtu ete zan Éragel Tobitxo'ren eskaria entzunaz ta zer esan eutson aingeruak?—33. Ontzat artu ete eban Éragel'ek aingeruaren azalbena ta gaste bien eskuak alkañen gañean ezañita, zer esan eutsen?—34. Tobitxo eztegu-jayetan zan bitartean, zer egin eban aingeruak?

ETXERUNTZ

35. Zeinbat egun igarota artu eban etxeruntzkoa Tobitxo'k?—36. Biderdian zer egin eben aingeruak eta biak?—37. Bitartean, zelan egozan Tobitxo'ren gurasoak eta zer iñoan bere amak?—38. Alpeñik ete eragoyon Tobi'k emazteari poz-emoten?—39. Zer egin eban amak bere semea begiztau ebanean?—40. Nora urten eutson Tobi'k itsu-mutilla lagun ebala?—41. Jaungoikoa'ri esker egin ondoren, zer egin eutson Tobitxo'k bere aitari?—42. Goretsi ete eban Jaungoikoa ta zer iñoan Tobi'k?—43. Zeinbat egun bañu eldu zan Sare?—44. Osterako bañi emonaz, zer iñotson Tobitxo'k aitari?—45. Ezer artu gura izan ete eban aingeruak eta zer esan eutsen?—46. Au entzun ebenean, zer egin eben aita-semeak?—47. Zer esan eutsen aingeruak?—48. Luzaroan bizi izan ete ziran eta zelan il ziran aita-semeak?

.....

Jaungoikoa'ren Legea betetako eragozpenik garaitu bear ete da?... Ziltzaldiak zer ete dira?... Zein da gurasoen umeakazko eginbeara?... Gurasoai dedu ta lotsa, nok ete dautsez?

XXXV

ISAI TA BESTE IGARLE BATZUK

—Orain arteko igarleak ez eben ezer idatzi. Ba-dira itzaldi ta iragarkiak idatzita itxi euskuezanak. Amasei doguz oneitarikoak: lau nagosiak, Isai, Jeremi ta Baruk, Ezekiel ta Danel: beste amabi, txikiak. Idazti aundi-samañak idatzi ebezanai deritxe nagosiak; ta txikiak, idazti txikiak idatzi ebezanai. Bat edo beste gure arloari yagokonez aitatuko doguz.

1. **Isai.** Dabid'en jatorikoa zan Isai. Joatan, Akaz ta Ezeki'ren eregetzan jardun eban Igarle aundi onek. Manase, erege gaiztoak, zeratuta erail eban bere emastearen neba zan igarle Jaungoikozale au.

2. Jesukristo'ren bizitz ta nekaldiko gora-berak, zortzi-reun urte lenagoz, iragañi ebazan Isai'k.

3. Ona emen batzuk: *Ara birjiñak sabelean sortu ta argitara ekañiko dau, ta Aren izena Emmanuel edo Jaungoikoa geugaz izango da.* Jaungoiko-Semea'ren gizakundea adirazten dausku emen igarleak. Andra Maria'ren sabel garbi-garbian, Espiritu Santu edo Goteunaren egitez sortuko dala diño, ta Bere izena Emmanuel edo Jaungoikoa geugaz izango dala.

—*Jese'ren erotik kimua sortuko da.* Jese'ren erotikoa zan Andra Maria, ta Andra Maria'gandik sortutako kimua, Jesus.

—*Umetxoa jayo yaku, semea emon yaku.* Ume ta seme ori,

Jesus Jaungoikoa'ren Semea ume eginda dogu. Egueri eguneko irugañen mezan jarten ditu Eleiza'k Isai'ren itzok.

—*Basoan oyuz dagonaren otsa. Jauna'ren bidea atondu egizue. Basoan deadarka dagonaren ots ori, Yon Ugutzari edo Batea-*



tzalea da. Jauna'ren bideak atonduteko bialdu eban Jaungoikoa'k.

—*Nai ebalako emon eban bere burua, ta gure obenak Berak leporatu ebazan. Ainbat bider adierazi eutsen Jesus'ek bere are-rioai, nai ebalako emoten ebala Bere burua. Gu maite ginduzalako, ta gu maite ginduzalako baita gure gaiztakeriak be leporatu ebazan.*

— *Ardia ilteko legez eroan eben eta ez eban aorik zabaldu. Eroan be alantxe eroan eben Jesus, ta Bere burua aldezteko ez eban aorik zabaldu.*

— *Eri guztiak Arengana joko dabe ta bere ilobia ospetsua izango da. Izan be, Jesus gurutzean il ezkerro, eri guztiak Arengana jo izan dabe, ta Bere ilobia ospetsu da, Jesus aintzatsu biztu bai zan.*

4. **Jeremi.** Jesukristo etori baño 588 urte lenago, Nabukodonosor'ek Jerusalem guztiz suntsitu eban. Jauretxe, jauregi ta etxeak ere ta auts biurtu, ta inguruetako orma-
-esiak eratsi ebazan. Sedeki, Juda'ko eregea, begiak atara,



ta lotuta eroan eban Babilon'era. Biztanlerik geyenak, berebat, aratu ebazan. Basamortua zirudian Jerusalem edeñak. Jaungoikoza-le bezain erizale zan Jeremi igarlea, ta bañeneraño eltzen diran eresi samur ta saminez agertu eban bere biotz

-miña. Aste Gureneco otoi-aldietan erabilten ditu Eleizak Ala-eresiok eta Ama Nekatuaren bakartaroari ezarten dautsoz.

Lagunez beteriko uria bakar-bakara geratu bai dala!—Bidez zozzen guztiok adi ta begira nirea lako onazerik ete dan.

5. **Ezekiel.** Atzerian, Babilon'en bizi izan zan Ezekiel,

Erbestean ziran judatañai Jaungoikoa'ren legea adirazi ta arein biotzak jasoten jardun eban. Bañiro abeñira biurtuko zirala iragañi eutsen. Ikuskizun añañiak izan ebazan igarle onek, eta euron artean, lau Goizpargile edo Ebangelariak irudikiz iragañi ebazan. Añanoaren irudia, Yon deunari ezañi izan dautsoe; ume-irudia, Matai deunari; idi-irudia, Luka deunari ta legoi irudia, Marka deunari.

6. **Joel.** Goteun edo Espiritu Santuaren etorkundea iragañi eban Joel'ek. *Jauna'k diño: Azken-egunetan, gizakume guztiai izuriko dautset nire Arnasa, ta zuen seme-alabak igari egingo dabe.*

7. **Mikai.** Jesus Betlen'en jayoko zala iragañi eban Mikai'k: *Ta zu, Betlen, Juda'ko baster ori, ez zara ez Juda'ko nagosietan txikiena, zugandik sortuko bai da, Israël, nire eria laratuko dauan Zuzendaria.*

IKASBIDEA

Gure arbasoai igarli bidez itz egiten eutsen Jauna'k. Guri Jesukristo'ren aoz itz egiten dausku. Jesukristo'ren ordezko eleizgizonak doguz. Eleizgizonen aoz itz egiten dausku Jesus'ek. Entzun, ba, ta gogoan artu eleizgizonen irakatsiak.

ITAUNAK

1. Nor zan Isai, noz bizi ta nok erail eban?—2. Jesukristo'ren bizitz ta nekaldiko gora-berak, zeinbat urte lenagoz iragañi ebazan Isai'k?—3. Iragarki batzuk esan eiguzuz.—4. Jesukristo etoñi baño 588 urte lenago, zer egin eban Nabukodonosor'ek Jerusalem'az ta Sedeki, Juda'ko eñegeaz, ta zelan agertu eban Jeremi'k biotz-miña? Noz e-abili ta nori ezarten dautsoz Eleiza'k Jeremi'ren Ala-eresiok?—5. Non bizi izan ete zan Ezekiel ta zertan jardun eban atzeñian? Ikuskizun añañiak izan ete ebazan eta euron artean zein?—6. Zer iragañi eban Joel'ek?—7. Zer iragañi eban Mikai'k?

.....

Irugaíen siñiskaya zein da?... Irugaíen siñiskai onek, zer irakasten dausku?... Eta Gizakundeak zer adierazten dausku?... Zelan gizatu zan Jaungoikoa'ren Semea?... Zergaitik nai izan eban Jesukristo'k nekaldia igaro ta gurutzean il?... Jesukristo'ren neke-oñaze guztiak gu erosteko beaíezkoak ete ziran?... Zergaitik artu nai izan eban Jesukristo'k ainbeste neke-oñaze?... Non jayo zan Jesukristo...

XXXVI

ERBESTEAN

DANEL TA BERE LAGUNAK

1. Gasterik eder ta bikañenen artean, Danel, Anani, Azari ta Misel aukeratu ebazan Nabukodonosor'ek bere moíoi izateko.
2. Azle baten ardurapean ipiñi ebazan gasteok.
3. Éregeren maitik jaten emoten eutsen, baña gaste areik, Mois'en Legean debekatutako gauzarik ez jateko erabagia artu eben, eta barazkiak eta ura bakaírik emoteko, aíen, eskatu eutsoen Azleari.
4. *Zuen arpegiak. cnparau gastienak baño zurbilago ikusi ba dagiz éregek, bizia kenduko ete daustan bildur naz, erantzun eutsen Azleak.*
5. *Amar egun buruan ikusi egizu, ta gero, nai dozuna egin, yardetsi eutsan Danel'ek.*
6. Barazkiak eta ura emon eutsezan, ba, ta gaste areik besteak baño mardulago ta gordiñago, baita zuíago ta argiago be agertu ziran, eta éregek bere otseintzat artu ebazan.

DANEL ETA SUSANE

7. Babilon'go judatar jopuen artean, ba-zan Jokin eritxona, Susane, emakume eder-eder ta Jaungoikoa'gazko bildurdunaz ezkondua.

8. Jokin'enean batzen ziran judatarak, aundikienetarikoa zan berau-ta. Baita gizonik zañen biak be, etxe onetan ebazten ebezan judatar arteko auziak.

9. Gizon zintzotzat ebezan epaikari zar biok, baña biotzez ustelak ziran.

10. Baratz eder bat eban Jokin'ek etxe-ondoan, eta eña etxeratzen zanean, eguerdian, baratz onetara joan oi zan Susane, egurastera.

11. Ba-ekien au agure zar biak, eta egun batez, baratzean ezkutau ziran, eta Susane'k ateak itxi ebazanean, agure biok elduta, zantarkeri bat egiteko eskatu eutsoen. Osterantzean, *gaiztakerian artu zaitugula autortuko dogu.*

12. Antziz ta intziriz erantzun eutsen Susane'k: *Estu ta lañi nago: Zuek gura dozuena egin ba-dagit, Jaungoikoa'ren aurrean galdua naz, ezpa-dagit, bañiz, zuen eskuetan jausi bear. Baña erubarik zuen eskuetan jausi nayago dot, Jaungoikoa'ren aurrean oben egin baño. Ta deadarka laguntza-eske asi zan*

13. Baita agureak be deadarka ekin eutsen, eta bietatik batek, baratzeko atea idigi ta eñiari ots-egin eutson.

14. Uréngo egunean, Jokin'enean batu zan eña. Guraso, seme-alaba ta senideak negaiez lagun egioen Susane'ri, guztiak maite eben, ba, emakume uren eta zintzotzat ebelako.

15. Agureak guzuez salatu eben Susane, ta epaikari zuzenak ziralakoan, arein esanak siñistu ta eriotzez zigortu eben,

16. Eriotzara eroyela, ozengi deadar egin eban Danel'ek esanaz: *Nire burua garbi bego emakume oren odolez.*

17. — *Zer da diñozun ori? egin eutsan eñiak.*

18. — *Baño ebatzi egizue, epaikari oñeik guzuzerz salatu dabe-ta, erantzun eutsen Danel'ek.*



19. Eñia atzeratu zan, ba, ta Danel'ek esan eutsen: *Banandu egizuez epaikariok.*

20. Banandu ebezanean, lenengoari esan eutson: *iDeunge ori! oraintxe datorkitzuz len egindako gaiztakeri guztiak. Susane oben egiten ikusi izan ba-dozu, ¿zein zugazpetan ikusi dozu?*

21. Agureak erantzun eban: *Eloñipean.*

22. — *Ain zuzen be, zure buruaren aurka guzura esan dozu, egin eutson Danel'ek.*

23. Gero bigarrenari itandu eutson: *Esaidazu, azen, zzein zugazpetan ikusi dozu Susane gaiztakeritan?*

24. — *Artepean, erantzun eban.*

25. — *Baita zuk be zure buruaren aurka guzura esan dozu.*

26. Orduan, guzuzez salatu ebela igari eban eriak, eta Beragan itxaropena daukanak gaizkatzen dituan Jaun zuzen erukioari esker-egin ondoren, agure biak arika garbitu ebezan.

IKASBIDEA

ZINTZOTASUNA. Zintzotasun eredu doguz Danel ta bere iru lagunak. Barazki ta ur utsa baño atsegiñago izango yakezan bein, eregeren maiko janari gozo ta ardao biziak. Baña Lege-bidean zintzo izatearen, buruai atsegin au ukatu ta utsa janaz bizi izan ziran. Bai Jauna'k saritu be zintzotasun au. «Il arteraño zintzo ta kirmen iraun eta bizitzarako burestuna emongo dautzuet». (Apok. 2, 10).

NEURITASUNA. Aratuzte, barau ta neuriz jateak ez dau inor galtzen. Gogorako baizen onuratsu yakoz gizonari osasunerako, oitura edeok. «Aseak asko il izan dauz; baño gizon neuridunak bere bizia luzatu daroa». (Ekli. 37, 34).

GARBITASUNA TA SENDOTASUNA. Garbi ta sendo alkairegaz ibili oi dira. Garbiak sendo ta sendoak garbi izan oi yatzuz. Bildotsa otso bien artean legez aurkitzen zan Susane agure bien artean. Baña garbia zalako, sendo jokatu eban, eta sendoa zalako, garbi iraun. «Gizonki jokatu ta azkartu zaiteze». (Korint. 1.^a, 16, 13).

JAUNGOIKOA BEGIRA. Toki guztietan dago Jaungoikoa ta guri maitekiro begira dago. «Ez gaitu inok ikusten», inotsen agure txotxolo areik Susane'ri. «Zuen eskuetan garbi jausi nayago dot, Jaungoikoa'ren auzean oben egin baño», inoan Susane zurak. «Nire auzean ibili zaite ta on-ona izango zara». (Gen. 17. 1).

ITAUNAK

1. Gaste eder ta bikañen artean, nortzuk aukeratu ebazan Nabukodonosor'ek bere mo'oitzarako?—2. Noren ardurapean ipiñi ebazan gaste oneik?—3. Zer janari emon eta zer eskatu eutsoen gaste areik Azleari?—4. Zer erantzun Azleak?—5. Zer gasteak Azleari?—6. Besteak baño mardulago ta gordiñago agertu ete ziran gaste oneik?—7. Nor zan Jokin ta nogaz egoan ezkondu?—8. Nortzuk batzen ziran Jokin'enean?—9. Zintzoak ete ziran epaikari zar biak?—10. Zer eban Jokin'ek etxe-ondoan eta noz ta zertara joan oi zan Susane baratzera?—11. Ba-ete ekien au agure biak eta zer eskatu eutsoen Susane'ri?—12. Zer erantzun Susane'k?—13. Dedarka ekin ete eutsen agure biak?—14. Zer jazo zan u'engo egunean?—15. Guzu'ez salatu ete eben agureak Susane?—16. Eriotzara eroyela, nok deadar egin eban?—17. Zer erantzun eutsan e'riak?—18. Zer agindu Danel'ek?—19. Atzeratu ete zan e'ria?—20. Banandu ebazanean, zer esan eutsan Danel'ek lenengoari?—21. Zer erantzun onek?—25. Zer esan Danel'ek?—26. Guzu'ez salatu ebela igari ete eban e'riak eta ondoren, zer egin?

.....

Zein da Eleizaren laugarren agindua?... Barau zelan egiten da?... Barau-egunetan goiz-aratsetan ezer artu ete lei?... Nastau al daitekez aragia ta araiña barau-egunetan?... Nortzuk dagoz barau egitera beartuak?... Eta bear dan besteko zio barik barau egiten ez dabenak, zelako obena egiten dabe?... Zer debekatzen dau aragi-izteko aginduak?... Nortzuk dagoz aragi-iztera beartuak?... Zelako obena egiten dabe aragi-izteko agindua austen dabenak?... Zeri deritxo guzu'ezko testigantza?... Zer da guzu'ezko salakuntzea?... Non dago Jaungoikoa?... Jaungoikoa'k guztia ete dakus?

XXXVII

NABUKODONOSOR'EN AMESA

1. Beñola, ames la'ria egin eban Nabukodonosor'ek. Artega itxartu zan, baña ezin gomutau eban amesa. Bere menbeko igarle ta jakitunak deitu ebazan, ba, ta ameskizuna

ta amesak esan gura ebana adirazteko agindu eutsen.

2. — *Amesa esaiguzu ta zer esan gura dauan azalduko dautzugu, erantzun eutsoen.*

3. *Asaré be asaré jaíri zan Nabukodonosor ta igarle ta jakitun guztiak ilteko agindu eban.*

4. *Orduan, Danel'ek, éregegana joan-da, egun batzuetarako epea eskatu eutson.*

5. *Bere lagunekaz otoiketan jardun eban, eta, gabaz, ameskizuna ta amesak esan gura ebana agertu eutsozan Jauna'k.*

6. *Éregeri aurkeztu yakon, ba, ta esan eutson: Goiko Jauna'k agertu daroaz ezkutukiak. Amesetan agertu dautzu Berak geroko aldietan jazoko dana. Lotan zengozala irudi aundi-luzea ikusi zendun. Aren burua urézkoa zan, bular ta besoak zidañezkoak, sabel ta isterak uraidezkoak, berna ta orkatilak burdiñezkoak, eta oiñak, zatika burdiñezkoak eta zatika, bustiñezkoak. Eta ora, gizonek jaurtiltzeke, menditik bera ari bat amildu zan, eta irudi au oñetan jo, ta ausi, ta austu eban. Aria, bañiz, luía beteko mendi biurtu zan.*

7. *Gero, amesa azaldu eutson esanaz: Zeu zara éregen-érege, Goiko Jauna'k emon dautzuz éregetza, almena ta ospea, zeu zara, beraz, urézko burua. Zure uréngo beste éregetza bat sortuko da zurea baño txikaragoa, zidañezkoa, irugaréna, uraidezkoa izango da, luía-soaz jabetuko bai da, laugaréna, burdiñezkoa izango da, burdiñak gauza guztiak eziten dituan legez, éregetza onek bere, beste enparauak suntsitu ta triskatuko ditu, baña maka!-aldea be izango dau, orixegaitik bere oiñak, zatika burdiñezkoak, zatika luñezkoak. Azkenez Goiko-Jauna'k eraikiko dau oneik guztiok beraganatuko dituan jaureria ta jaureri onek betiko iraungo dau.*

8. *Au entzunaz, Nabukodonosor'ek auzpez jaírita esan eban: Zuen Jaungoikoa bai dala guztien Jaungoiko ta érege guztien Jaun!*

9. Aginpide ta éregetza Jaungoikoa'gandik datorzala ta Jaungoikoa'ren eskupean dagozala adierazi nai izan eutson Jauna'k Nabuko'ri ames-bidez.

10. Eleiz-irudi dogu ames au. Urezko éregetzaren uéngo, medi ta persita'ren zida'rezkoa eto'ri zan; gero, uraidezkoa, makedonita'rena; u'éngo, éromata'rena, burdiñezkoa. Baña éregetza guzti o'reik baño bikañago ta zabalago izan zan lauga'rena, Eleizarena. Auxe zirudian zerutik jausi ta enparau jaure'iz jabetu ondoren lu'-beteko biurtu zan a'riak. A'ri onen antzera, Eleizaren asiera, azalez, txiki-txikia izan zan, baño lu'asoa betetaraño eldu zan.

IRU MUTILLAK LABA GORIAN

11. Beñola irudin ikaraga'ri bat ja'ri eban Nabukodono-sor'ek Babilon'go zelayan. Eta turutotsa entzunaz batera, guztiak belauniko irudiña gur-egiteko agindu eban. Gur-egiten ez ebana, ba'riz, laba gorira jaurtiko ebala.

12. Iru mutil, Anani, Azari ta Misel baka'rik geratu ziran zutunik.

13. Érege asa'ratu zan eta iru mutilai dei-egiñik, esan eutsen: *Belauniko ja'ri ta irudiña gur-egikezue, edota laba gorira jaurtiko zaituet. Ta zein Jaungoiko'k atarako zaitue nire eskutik?*

14. Iru mutilak erantzun eutsoen: *Laba goritik eta zure eskupetik be atarateko almena dauka gure Jaungoikoa'k, baña atera nai ezpa-gaitu be, ezin gegike irudiñik gur-egin.*

15. Oi zan baño saspí bider geyago sutu-azo eban, ba, labea, ta bertara jaurti ebazan iru mutilak lotuta.

16. Baña Jauna'ren aingerua labara jatsi zan eta suga'rak ez eutsen ikuturik be egin, loka'riak azkatu baño. Jauna go-resten ziarduen irurak.

17. Abesti onek entzuki, labako atakara eldu zan Nabuko, ta bañura begiratuaz, añituta, ba-diñotse bere otseñai: *Jru mutil ez ete genduzan guk, esku-oiñak lotuta, labara bota? Nik lau dakustaz, ba, ta laugarrena, Jaungoiko-Seme lakoxe ederistatsua. Ta atakatik deadar egin eutsen: Urten, Jaungoikoa'ren moñoyok. Eta be-realaxe atara ziran gasteak, eta suak buruko uletxo baten be ez eutsela ikutu ikusi eben.*

18. Orduan Nabuko'k añituta esan eban: *Onetsia izan bedi aingerua bialdu ta bere otseñak gaizkatu dauzan Jaungoikoa. Gaur-geroz agintzen dot, norbaitek Jaungoiko au gaiztetsi ba-dagi, galdua izan daitela. Ez da, ba, bere moñoyak oñela gaizkatu legikezan beste Jaungoikorik.*

IKASBIDEA

Ezbear ta zoritxañetan esan egikezu: Zoritxar onetatik atara-teko almena bai dau gure Jaungoikoa'k; baña atara nai ezpa-gaitu be, Bere naitara jañiko gara.

ITAUNAK

1. Zer egin eban Nabukodonosor'ek, beñola, ames lañia izan ebanean?—2. Zer erantzun eutsoen igarle ta jakitunak?—3. Asañatuta, zer agindu eban Nabuko'k?—4. Zer egin eban, orduan, Danel'ek?—5. Zetan jardun eban Danel'ek bere lagunekaz?—6. Ezaiguzu amesa.—7. Amesaren azal-bena.—8. Au entzunaz, zer esan eban Nabuko'k?—9. Zer adierazi nai izan eutsan Jauna'k ames-bidez?—10. Eleiz-irudi ete dogu ames au?

IRU MUTILLAK LABA GORIAN

11. Zer ipiñi eban Nabuko'k Babilon'go zelayan eta zer agindu?—12. Nortzuk geratu ziran zutunik?—13. Iru mutilai dei-eginda, zer esan eutsen eñegek?—14. Zer erantzun iru mutilak?—15. Oi zan baño zeinbat bider geyago sutu-azo eban labea?—16. Nor jatsi zan labara ta zer jazo

yaken?—17. Abestiak entzuki zer egin eban Nabuko'k?—18. Zer esan eta zer agindu eban Nabuko'k aítuta?

.....

Zein da Jaungoikoa'ren Legeko lenengo agindua?... Zer agintzen dausku lenengo aginduak?... Zertara beartzen gaitu, oñezaz ganera, lenengo aginduak?... Zer debekutzen dausku lenengo aginduak?... Jaungoiko-aizunkeria zer da?... Siñiskeria zer da?... Otoitz-egitea zer da?... Zeinbat eratakoak dira otoitzak?... Gogo utsezko otoitza zer da?... Aozko otoitza zer da?... Eleiza zer da?... Egiazko Eleizaren ezaugarriak zeintzuk dira?

XXXVIII

BALTASAR'EN OTURUNTZA

1. Nabukodonosor'en uréngo, Baltasar aren semea jaíri zan éregetzan.

2. Beñola, oturuntza egin eutsen Baltasar'ek aundiki ta euron emazteai, ta Nabukodonosor'ek Jerusalem'go jauretxean ostutako ontzi deunetan edaten ziarduen bai éregek, bai aundiki ta emazteak.

3. Onetan, esku bat agertu zan itz oneik orman idazten: *Mane, Tezel, Pares.*

4. Érege zurbildu ta bildurak-ilik jaíri zan, baita maiki-deak bere. Ériko jakitunai dei egin eutsen itzok azaltzeko, baña iñortxok be ez eban al izan.

5. Orduan, Danel ekaíri eben eta onek esan eutson éregeri: *Goiko Jauna'ren aurka jaiki zara zu, érege. Ontzi deunok zure aitak jauretxean lapurétan egin eta ona ekartea naikoa ezpai'litzan, zeuk eta zure aundiki ta euron emazteak ontzi óreitatik edan dozue. Ona, ba, Jauna'k iru itz óreitan diñotzuna: **Mane**, Jaungoikoa'k zure éregetzako egunak zenbatu ditu ta zureak egin dau: **Tezel**, neur-*

tua izan zara ta neurira ez zara eldu: **Pares**, zure eria persi ta meditaeren artean banandua izango da.



6. Urengo gabaz bete zan iragarki au; Baltasar erail eben, ba, ta persi ta meditaarak banandu eben aren eria.

DANEL TA BEL JAINKO-IZUNA

7. Kir, persitaeren eregea jabetu zan Babilon'go eriaz ta bere maikide egiteraño jaso eban Danel.

8. Bel eritxon jainko-izuna gur - egiten eben Babilon' daarak, baita Kir be, egunero joan oi zan jainko-izun oren

jauretxera ta gur-egiten eban; baña Danel'ek Jaungoiko egiazkoa bakañik gur-egin eroyan.

9. *Zergaitik ez dozu Bêl gur-egiten?—iñotson éregek.—Ortzi ta luía egin dituan Jaungoiko alguztiduna bakañik gur-egiten dot nik, erantzun eutson Danel'ek.*

—*Bêl Jaungoiko bizia danik ez dozu uste ala? ¿Egunero ez dakuzu, ba, jan-edaten?—Oker zagoz, érege, jainko-izun ori barutik bustiñezkoa da, azalez, bariz, uraidezkoa, orek ez dau egundo jaten.*

10.—*Asaíatu zan érege ta Bêl'en irurogei ta amar jaupariak deitu ta esan eutsen: Janari oneik nok iruntsiten dauzan esan ezpa-dagistazue, ilgo zaituet, baña Bêl'ek jaten dituala egiztuten ba-daustazue, Danel ilgo dot.*

11. —*Zure itzari natxako, erantzun eutson Danel'ek.*

12. Orduan, Danel ta biak joan ziran Bêl'en jauretxera ta jaupariak esan eutsoen éregeari: *Gu atarako gara ta zuk, érege orek, ipiñiko dozuz jaki ta ardaoa jainko-izunaren aurean eta gero atea itxi. Goizean-goiz etoñi ta Bêl'ek janariak iruntsi ezpa-ditu, guztiok ilgo gara.*

13. Janariak opa-mayan ipiñi ta érege ateak itxitera joyala, Danel'ek bere moíoyai autsa ekañi-azo ta galbai battegaz jauretxe zier zabaldu eban.

14. Jaupari ta euren etxeakoak gabaz etoñi, ta opañipean eben eskutu-zulotik sartu ziran, eta jan-edariak beingo baten iruntsi ebezan.

15. Uñengo goizean-goiz eldu ziran érege ta Danel jauretxera, ta opa-maya garbi ikusirik esan eban éregek: *Zu, bai aundia zareala ta iruzurik zukan ez dala, Bêl!*

16. —*Bera begiratu egizu ta oreik uratzok norenak diran ikusi, egin eutson Danel'ek.*

17. —*Izan be, gizon, emakume ta umien uratzak dagoz emen, esan eban Éregek.*

18. Ezkutu-zuloa aurkitu eben eta jaupariak erail eban; jainko-izunaren irudia, bañiz, Danel'i emon eutsan eta onek, jauretxe ta guzti, apurtu eban.

IKASBIDEA

ORDIKERIA. Ordikeriak ekañi eutzun Baltasar, jauretxeko edontziak donausi, ta éregetza ta bizia bapatera galtzeraño. Burua galdu-azo ta adimenik ez daben aberien mañara erasten gaitu salokeri ta ordikerietan; eta bizitza onetako arazoetan biotza gogortu ez dakizuen, eta eriotz-eguna itsumustuan ez datorkizuen». (Luk. 21-34).

DONAUSTEA. Itun Zañeko edontziak donaustea oñen gogorki zigortu ba'eban Jauna'k ¿zein zigorgañoigo izango ete gara gu, txarto autortu ta deungaro jaunartzen ba-dogu! «Bakoitzak bere burua aztertu ta gero, ogi au jan eta ontzi onetatik edan begi; bear ez danez jan-edaten dauanak, bere gaiztezena iruntsi daroa-ta». (Korint. 1.^a 11-28).

ITAUNAK

1. Nabukodonosor'en uréngo, nor jañi zan éregetzan?—2. Zer gertau eutsen Baltasar'ek aundiki ta euron emazteai?—3. Jan-edaten egozala, zer jazo zan?—4. Zurbildu ete ziran érege ta maikideak eta nortzuei dei egin eutsen?—5. Nor ekañi eben, orduan, eta zer esan eutson Danel'ek éregeri?—6. Noz bete zan iragarki au?

DANEL TA BEL, JAINKO-IZUNA

7. Nor jabetu zan Babilon'go ériaz ta noraño jaso eban Danel?—8. Zein jainko-izun gur-egiten eben Babilon'dañoak eta Kir'ek be?—9. Zer esan eutson éregek Danel'i ta zer erantzun Danel'ek?—10. Nortzuei deitu ta zer esan eutsen éregek?—11. Zer erantzun Danel'ek?—12. Danel ta biak jauretxera joan ziranéan, zer esan eutsen jaupariak?—13. Janaria opa-mayan ipiñi ta éregek ateak itxi baño len, zer egin eban Danel'ek?—

14. Jaupari ta euron etxekoak, zer egin eben gabaz?—15. Uréngo goizean -goiz, nortzuk eldu jauretxera ta zer esan eban éregek?—16. Zer oartu eutson Danel'ek?—17. Gizon, emakume ta umien urátzik ikusi ete eban éregek?—18. Ezkutu-zuloa aurkitu ezkeru, zer egin eban éregek?

.....
Donaustea zer ete-da?... Bere autorkuntza dongaro egiten dauanak, órétan oben-astunik ete dagi?... Dongaro nor autortzen da?... Oben astu-
nean dagola jakiñez gañera eukaristia artzen dauanak, artzen ete dau
Jesukristo?

XXXIX

DANEL LEGOIAKAZ

1. Iransuge izugaña be, Jaungoikotzat gur-egiten eben Babilon'darak; baita éregek, be, lelo-lelorik, suge ori jauresten eban.

2. Beñola, Danel'i esan eutson éregek: *Ez dozu esango, óraitiño, au Jaungoiko bizia ez danik.*

3. —*Zure baimena emon egidazu ta makila ta ezpata bage austuko dautzut suge ori, erantzun eutson Danel'ek.*

4. Baimen ori emon eutson éregek eta jaki batzukaz eten-eragin eutsan iransugeari: *Or dozue, zuek gur-egiten dozuen jainko ori!* esan eutsen.

5. Zalaparta gogoña jaiki zan érian eta éregegana joan -da esan eutsoen: *Emoiguzu Danel, edota zeu ta zure sendia erailgo zaituguz.*

6. Éregek, samiñez, baña Danel emon eutsen eta legoi-tegira bota eben; saspí ziran lunak; egunero gizon bi ta ardi bi emoten eutsezan janaritzat; egun areitan, osterá, ez eutsen ezer emon, Danel bizkoñago garbitu egien, baña lunak ez eutsoen ikuturik egin.

7. Sei egun eroyazan Danel'ek lunategian eta gose zan. Aldi atan, Abakuk eritxon igarlea bizi zan Jerusalem inguru-marietan. Zukua egosi ta igarliekana eroyala, Jauna'ren aingerua agertu ta esan eutson: *Eskuetan dozun bazkari ori eroan egiozu an, Babilon'*

go lunategian dagon Danel'i—Jauna, nik ez dot egundo Babilon ikusi ta lunategi ori be ez dazaut, erantzun eutson igarleak.

8. Orduan, aingeruak ulietatik elduta, iraizean ipiñi eban Babilon'go lunategian. Danel'i oyu



egin eta esan eutson Abakuk'ek: *!Danel, Jaungoikoa'ren mo'oi ori! eutsi Jauna'k bidaltzun bazkaria.—Danel'ek, eskerik asko, erantzun eban: Nitzaz gomutau zara Jaun oi, ta maite zaitunik ez dozu, bertan-bera izten. Jaiki ta jan eban. Eta aingeruak ba'iro itzuli eban Abakuk bere e'ira.*

9. Saspigaren egunean, lunategira eto'ri zan erege ta Danel, lunen erdian jeza'ita, ikusi ebanean, a'ituta dear egin eban: *Aundia zara Danel'en Jaungoiko ori! Ta lunategitik atara, ta salatu ebenak jaurti ebazan ara; lu'ari ikutu ba'no len garbitu ebezan, ba'riz, lunak gizonok.*

10. Ba'iro a'ituta esan eban eregek: *Danel'en Jaungoikoa itzal izan daigun guztiok, Bera da, ba zantzu ta a'igariak egiten dituana.*

IKASBIDEA

JAUNGOIKOA'REN ALMENA. Alatz bi egin ebazan Jauna'k Danel'en alde: bata, luna-gosetiak ikuturik be egin ez; bigařena, aingeruak iraizean Juda'tik Babilon'eraño Abakuk ekaři. Iru asmoz egin ebazan Jauna'k alatzok: 1.^a, Danel bere moři zintzoaren arduraz: 2.^a, zantzoak eta ařigariak egin legikeazan egizko Jaungoiko bakařa Bera zala erakutsi, bai ařotzai, bai Kir'i: 3.^a, Jauna'ren eřia jarein, eta abeřira itzuli, ta jauretxea bařiro eraikiten izteko, eřegeri bultz-eragin.

ESKER-ONA. Eskeřak-esker gure Aita Jaungoikoa'ri, Jesukristo'ren bidez, siņisbakoen erokerietatik atara ta siņismen-argitara ekaři gaitualako.

ITAUNAK

1. Zer be gur-egiten eben Babilon'dařak?—2. Beņola zer esan eutson eřegek Danel'i?—3. Zer erantzun Danel'ek?—4. Emon ete baimen ori eřegek eta zer egin Danel'ek?—5. Zalapartarik izan ete zan eta zer eskatu eutsan eřiak eřegeri?—6. Emon ete eutsen eřegek Danel ta nora bota eben?—7. Sei egun lunategian eroyazala, zer jazo zan?—8. Nok eta zelan croan eban Abakuk lunategira?—9. Zeinbakařen egunean etoři zan eřege luna-tegira, ta Danel lunartean jezařita ikusirik, zer egin eban?—10. Bařiro ařituta, zer esan eban eřegek?

.....

Zelan da Jaungoikoa alguztiduna?... Zeinbat Jaungoiko dira?... Jainko-izunkeria zer da?

XL

ABEŘIAN BAŘIRO

1. Irurogei ta amar urte iraungo ebala judatařen erbeste-roak iragaři eban Jeremi'k, eta ondoren abeřira itzuliko zirala. Iragarki au ber-esan eban Danel'ek, baita Jerusalem'go

jauretxea bañiro eraiki ta irurogei ta amar urte-aste edo 490 urte bañu, Jesukristo'k gurutzeko eriotzaz gizadia erosiko ebala be. Iragak biok egin-egiñean bete ziran.

2. Erbestean irurogei ta amar urte eroyezala, Kir, Persi'



ko eñegek, judatarai ots-egin eta esan eutsen: *Judatar dana, bua Jerusalem'era ta eraiki begi bañiro Jauna'ren etxea.*

3. Judatarak taldeka aberiratu ziran, Zorobabel, Dabid' en belauneko aundikia, ta Esdar, jaupari ta lege-gizon jakituna buru ebezela.

4. Aberiratu ta urango urtean ipiñi eben jauretxe bañia-

ren oiñaia, ta geroago jaso ebezan Jerusalem uri-inguruko ormatzaiak eta toreak.

5. Zaiak, jauretxe baia lengoa baño txatxaia zala-ta, tamalez ziran; baia Agai ta Zakari igarlien aoz adierazi eutsen Jauna'k, jauretxe baia au lengoa baño aintzatsuago izango zala, bertara etoia zalako Mesi, Jaungoikoa'ren Seme gizon-egia.

6. Irureun urtetan, bakez bizi izan ziran judataiak euren aberian.

ESTER

7. Persi'ko eregeak txera ona egiten eutsen judataiai ta oneitariko batzuk an bertan geratu ziran. Judatar onein bidez zabaldu zan Jaungoikoa'ren ezaguera arotzen artean, eta batzuk, Danel'en antzo, eregien onulari izateraño eldu ziran.

8. Babilon'en geratu ziranetako bat zan Ester. Gaste-gastetxea zala il yakozan gurasoak eta Mardokai, bere osabak, alabatzat artu eban. Eder-edeia zan Ester, ta Asuer edo Kerkes'ek, ezagutu ebaneko, bere emaztetzat artu eutzun.

9. Aldi atan, Aman eritxon gizon aia egin eban aldun edo agintari nagosi Asuer'ek. Erega'ren otsein guztiak belau-niko ia ta Jaungoikoa bai'litzan gur-egiten eben Aman, Mardokai'k izan ezik. Mardokai'k ez eutson gizon soilari egin nai, Jaungoikoa'ri bakaik zor yakon gurtza.

10. Aman'ek asaituta, judatar guztiak, ume, emakume ta aguretaraioakoak erail ta euren ondasunekaz jabetzeko agindua izenbetu eragin eutsan eregeri.

11. Agindu onen baia jakin-azo eutsan Mardokai'k Ester'i, ta eregeri eiaaren alde otoi egiteko esan eutsan.

12. Persitaen artean, eregek berak deitu ezik, ezin sar-

tu eitekean iñor aren aretoan. Sartzen zana, eriotzez zigortzen eben.

13. Barau ta otoi-egin ondoren, soñeko ta bitxirik eder-enakaz bere burua apainduta, joan zan Ester éregerengana. Baña aren aunditasun, mosu itzal ta begi txinpartatsuak ataritik ikusi ordukoxe, konorte barik jausi zan.

14. Érege biozperatu zan, eta besoetan artuta, iñotson:

Zer dozu, Ester?

*Zure neba nozu,
ez bildur izan, ez
zara ilgo, lege au
enparauentzako
jaña da, ez zure-
tzako.*

15. Seneratu zanean, Ester'ek esan eutson: *Eder ba-nayatzu, zatoz gaur neugaz bazkariten, eta betor Aman be.*



16. Ester'ek bazkaltzera dei egin eutsola-ta, pozez atara zan Aman jauregitik. Atarian egoan Mardokai jezañita, ta Aman igaroařen ez eban zirkiñik be egin. Nagosi añoak, minduta, gau atan bertan Mardokai urkatzeko urkemendia gertau eban.

17. Uřengo gabaz ezin loak artu izan eban érege. Astia erazoteko, bere biztaldiko gora-berak irakurten ziarduan, eta berari bizia kentzeko mořoi batzuk alkartu zirala ta arein asmoak Mardokai'k agertu ebazala jakitera eldu zan.

18. *Zer sari emon yakon Mardokai'ri?* itandu eutsen éregek

bere otseñai.—*Ezertxo bere ez, erantzun eutsoen otseñak.— Nor dago or?* itandu eban éregek.—*Aman, erantzun eutsoen.* Mardokai urkatzeko baimen-eske joyan gizon zitel au goizean-goiz.

19. —*Zer egin legikio éregek goratu nai dauan gizonari?* itandu eutson Aman'i. Aman'ek, bera izango zalakoan Asuer'ek aupa-
patu nai ebana, esan eutson: *Éregek goratu nai dauan gizona, érege-soñekoa jantzi, ta burestuna ezari, ta éregeren zaldian jari, ta aundikietan lenenak eroan begi kalerik-kale deadarka: «Ona emen éregek goratu nai dauana».* Egin, ba, bertatik diñozun ori, or atarian jezari-ta dagon Mardokai'gaz, esan eutson éregek. Min artu eban Aman'ek, baña nai-ta ez egin bear éregeren agindua.



20. Bitartean, jateko ordua eldu zan, eta érege, Aman eta Ester, irurak bazkaritan zirala, éregek esan eutson Ester'i: *Zer nai dozu, Ester? Nai dozun guztia emoteko gertu naukozu.* Ester'ekerantzun eutson: *Zure begietan eder ba-nozu,*

érege, neure ta nire ériaren bizia eskatzen dautzut, ni ta nire éria sakaildu, saraskitu ta ondatuak izateko etsita gagoz-ta — Ta nor da gauza óreik egingo dituan asari ori? itandu eutson éregek:—*Aman, auxe Aman gaizto au dogu gure arerio ta etsai, erantzun eutson Ester'ek.*

21. Aman, bilduñez izutu zan. Efege, bañiz, asařatuta jaiki zan. Mořoi batek esan eutson: *Mardokai urkatzeko urkamendia jasota dago Aman'enean.*—Eskegi egizue, ba, bertatik, agindu eban eřegek.

22. Egun atan bertan izentau eban eřegek Mardokai bere ordelari ta judatařak ilteko agindua atzeratu eban. Judatařak pozez be poztu ziran, eta ařotz asko be jazokun au ikusita, Jaungoikoa'gana biurtu ziran.

23. Andra Maria'ren irudi dogu Ester. Persitařen legeak, Ester izan ezik, beste enparau guztiak artzen ebazan legez, jatořizko obenak bere, Andra Maria izan ezik, beste enparau guztiak kutsutu garoaz. Ta Ester'ek bere otoi ta eskariz Juda-eřia gaizkatu eban legez, alantxe Andra Maria'k be, bere otoi ta eskariz gaizkatu daroa kistar-eřia.

IKASBIDEA

AŘOKERIA. Griņa txar au bide zala ondatu nai izan ebazan Aman'ek, bai Mardokai, bai Juda-eřia, baņa bere burua baño ez eban ondatu. Aberastasun, aginpide, ospe... gizonak opa legiken guztia eban Aman'ek: alan-da guzti be, bekaizkeriz biotza zitelduta ebalako, zoritxařeko zan.

ZURTASUNA. Mardokai ta Ester'ek zurki jokatu eben. Barau ta otoi egiņaz, ta Ester'ek bere asmoa eřegeri polito-polito agertuaz, zuřak zirala erakutsi eben.

ZUZENDASUNA. Asuer'ek bakoitzari berea emon eutson, bai Aman'i, bai Mardokai ta judatařai.

NEUŘITASUNA. Asařean bere buruari eutsiņaz erakutsi eban Asuer'ek neuřitasuna; ez, ostera, Aman'ek, Mardokai gořoto izanaz ta judatařak ilteko erabagia itsumustuan artuaz.

SENDOTASUNA. Ester'ek, eřegin izanařen, ez eban bere eřia ukatu; apal izan zan eta bere eřitařen alde bizia emoteko gertu egoan.

ITAUNAK

1. Zeinbat urte iraungo ebala judatañen erbestearoak iragañi eben Jeremi ta Danel'ek, eta zer geyago Danel'ek?—2. Ots-egin eta zer esan eutsen Kir'ek judatañai?—3. Zelan abeñiratu ta nortzuk ebezan buru judatañak?—4. Noz ipiñi eben jauretxe bañiaren oiñaña ta noz ormatzar ta tofeak?—5. Lengoa baizen edeña ete zan jauretxe au?—6. Zeinbat urtetan bizi izan ziran bakez judatañak?

ESTER

7. Judatar guztiak abeñiratu ete ziran?—8. Nor zan Este?—9. Aldi atan, nor egin eban Asuer'ek agintari nagosi ta zergaitik ez eban gur-egiten Mardokai'k?—10. Aman'ek asañatuta, zer izenbetu eragin eutson eñegeri?—11. Agindu onen bañi jakin-azo ta zer esan eutson Mardokai'k Ester'i?—12. Eriozpean zigortuta ete egoan Persitañen artean, eñegek agindu ezik, aren aretoan sartzea?—13. Zer egin eban Ester'ek?—14. Ester konorte barik ikusita, biozperatu ete zan eñege ta zer esan eutson?—15. Seneratu zanean, zer eskatu eutson Ester'ek eñegeri?—16. Pozez atara ete Aman jauregitik eta zer jazo yakon atarian?—17. Urango gabaz, zer jazo yakon eñegeri?—18. Zer itandu eban eñegek, Mardokai'k eriotz-zoritik atara ebala jakin ebanean?—19. Zer itandu eutson eñegek Aman'i ta zer erantzun Aman'ek?—20. Eñege, Aman eta Ester, irurok bazkaritan zirala, zer jazo zan?—21. Izutu ete zan Aman, eta zer egin, eta zer agindu eban eñegek?—22. Nor izentau eban eñegek bere ordelari?—23. Noren irudi dogu Ester?

.....

Zer dira grazi laguntzaleak?... Eskar laguntzale ori, beañezkoa ete da?.. Griña txar nagosiak zeinbat dira?... Zergaitik deritxe nagosiak saspi griña txar onei?... Zeintzuk onoimen dagoz saspi griña txar onein aurka?... Zeintzuk dira ekandu onoimenak?... Nor da Andra Maria?

XLI

ELEAZAR

1. Irureun urte gentza ta bakez igaro ondoren, Antiok, Siri'ko éregea jabetu zan Jerusalem'az. Idazti edo Liburu Deunak ére-azo ta Jaungoikoa'ren Legea jagoten ebenak eriotzaz zigortzen ebazan.

2. Judatar asko, bilduréz, éregeren esanetara jaí ziran, baña beste askok, Jauna'ren Legea ausi baño len, bizia galdu nayago izan eben.

3. Onein artean ba-zan Eleazar eritxon larogei urteko agurea, gizon ospe-tsua lege-jakituna. Indar-buruz aoa idigi ta txaríkiá jan-eragin gura eutsoen. Baña Eleazar'ek oben egin baño eriotza nayago izan eban eta nekeak-neke jasan ebazan.



4. Bere adiskide batzuk, éruki gaiztoz biozperatuta, jan legikean arakia ekaíko eutsoela-ta, txaríkiá jan-ziñu egiteko beintzat iñotsoen.

5. Baña Eleazar'ek gogor erantzun eutsen: *Ziñukeririk ez daqokio nire adiñari; nik olangorik egingo ba'neu, gasteak esan al izan*

go leukie: «Eleazar agureak bizia zaintzaŕen siñismena ukatu daroa», ta baltzune naskagaŕia ezaŕiko neuskio neure buruari. Oŕetzaz gañe-
ra, zer irabazten dot nik gizonen neke-miñetatik iges-egiñaz? Alguzti-
dunaren eskuetatik ezin igesik egin negike, ba, ez bizirik, ez ilda. Le-
gearen alde, beraz, ta bulartsu alan be, noa eriotzara. Nire zartza-
roari yagokonez bizitza amaitu ta gasteai ikasbide jaŕaigaŕia itxiko
dautset.

6. Itzok esanaz, alaiki joan zan eriotzara. Iltzer egoala,
intziriz iñoan: Jauna, Zuk ondo dakizu neke-miñok Zugazko itzal
ta maitetasunez daroazana. Ta eriotz aintzatsu ta jaŕaigaŕiz il-
zan.

SASPI ANAI MAKABAITAŔAK

7. Antiok'ek, ama ta saspi seme ekaŕi ebazan bere auŕe-
ra, txaŕikia jan-eragiteko.

8. Baña erantzun eben: *Gure Legeak galazoten dausku-ta ezin
jan gegike.*

9. Orduan eŕegekek irezilakaz astintzeko agindu eban.

10. Anayetatik zaŕenak esan eutson: *Jauna'ren Legea ausi
baño, iltea be nayaŕo dogu guk.*

11. Eŕegekek, asaŕatuta, galdara ta topiñak goritu-azo eba-
zan. Gero, zaŕenari, miña atara, ta buruko mintza eratsi, ta
esku-oiñak ebagi, ta galdarara bota eban, kiskaldu zedin.

12. Beste bost anai be, bata bestearen uŕengo, oñazez
eyota, erail ebazan. Txikeŕena bakaŕik geratu zan. Ondasunak
ugari ta bere adiskidetasuna eskintzen eutsan eŕegekek gaste-
txoari, Jaungoikoa'ren Legea austeaŕen. Baña gaste kementsu
arek ez eban eŕegeren agintzarik aintzat artu. Amari ots-egin,
eta bere semetxoari Jaungoikoa'ren Legea ausi-azoteko eska-
tson eŕegekek. Ama aŕigaŕiak bere izkuntzez, semetxoari samur

-samurki inotson: Begira, aren, enetxoa, zeru-lurak ta bertan dagon guztia, ta Jaungoikoa'k utsetik sortu dituala gogoratu. Ez, ba, zigor-



tzalearen bildur izan, zure anayen ideko agertu zaitte, guztiok itxaroten dogun betiko bizitzan bariro aurkitu zagikedan.

13. Amak oraindik eragoyola, mutilak esan eutsen: Noren zain zagoze? Nik ez dot eregeren agindurik beteko, Mois'en bidez Jaungoikoa'k emon euskun Legea baño. Ta eregeri: Gure gaitz guztien erudun zarean orek, ez dozu Jaungoikoa'ren eskuetatik igesik egingo.

14. Orduan bakaldunak, suminduta, beste anayak baño gogoñago zigortuta erail eban txikañen au. Ta azkenez ama be bai.

IKASBIDEA

¡LENAGO IL! Jaungoikoa'ren Legea ausi baño lenago il. Auxe zan ama agurgañi ta gaste bioztunen erantzuna éregeri. Ernebañi zirala oraindik, ez neke, ta ez eriotzaren zemaiz, ez éregeren leusinkeri ta ondasun irrikaz be, ez eben zirkiñik egin. «Izan be, zertarako litzakio gizonari ludi osoa irabaztea, bere burua galtzekotan? ala zer emon legike iñok bere biziaren ordañez?» (Mat. 16, 26).

NAGOSIAREN AGINDUAK. Nagosien aginduak egin beañik ez dogu Jaungoiko edo Eleiz-Lege aurka diranean. «Gizonen esanetara baño lenago jagi bear gara Jaungoikoa'ren esanetara». (Egip. 5, 29).

ITAUNAK

1. Irureun urte gentzaz igaro ezkerro, nor jabetu zan Jerusalem'az ta zer egin eban?—2. Éregeren esanetara jañi ete ziran judatañak?—3. Nor zan Eleazar?—4. Éruki gaiztoz biozperatuta, zer iñotsoen adiskide batzuk?—5. Zer erantzun Eleazar'ek?—6. Itzok esanaz, zer egin eban Eleazar'ek eta zer esan iltzer egoala?

SASPI ANAI MAKABAITAÑAK

7. Zertara ekañi ebazan Antiok'ek ama ta saspi seme bere auñera?—8. Zer erantzun eben?—9. Zer egin eban, orduan, éregek?—10. Zer erantzun eutson anayetatik zañenak?—11. Zer egin eban éregek asañatuta?—12. Zer jazo zan anairik txikañenaz?—13. Amak eragoyola, zer esan eutsen mutilak?—14. Zer egin eban orduan bakaldunak?

.....

Gurasoz gañera, nortzuk dira aintzat euki bear doguzanak?... Nondik dau Eleizak bere aginduak ipiñi ta aldatzeko eskubidea?... Zein da Eleizaren laugañen agindua?... Zer debekatzen dau aragi-izteko aginduak?... Nortzuk dagoz-aragi-iztera beartuak?... Zelako obena egiten dabe aragi-izteko agindua austen dabenak?

XLII

JUDA MAKABAIRA

1. Antiok'ek judatañai gogor erasoten ziarduan aldian, Matati bere bost semegaz bizi zan Judai'n.



2. Antiok'ek egin eroyazan triskantzak ikusita, biotza saminez erdibitu yakon. Eta Jaungoikozaletasunez suturik, bere erikideai oyu egin eutsen esanaz: *Lege-zale dana betor nire ondorik.*

3. Eta bost semeak, eta judatar jatoiak lagun ebazala, mendira iges egin, eta jainko-izunen opaiaak apurtu ta Lege aldez gogor jokatu eban.

4. Matati il ezkeru, Juda bere semea jaia zan gudari-buru. Gizon adoretua zan Juda; ainbat gudaketan azpiratu ta poiokatu ebazan bere arerioak. Jerusalem baia beregandu, ta jauretzea garbitu, apaindu ta onetsi, ta opa-maya be donetsi eban.

ANTIOK'EN ERIOTZA

5. Makabaitaen garaitza ta gurendaz suak artuta, gudarozte ikaragaia gertau eutzun Antiok'ek, eta berbera gudari-buru zala, Jerusalem'erako bidean jaia zan.

6. Baia burditik bera jausi ta azuak ausi ebazan; gorputza arez bete yakon, eta zatika-zatika jausten yakozan soinatal ustelduak. Goyetako izaia eskuz artuko ebazala uste eban gizon aru ori, or dakutzu atsa dariola, iaor bere alboan egon ezinda.

7. Jerusalem'en egindako gaiztakeriakaz gomutau zan, orduan, Antiok, eta Jaungoikoa'ri otoi egin eutson, len egindako okeiak zuzendu ta lurbira-zier, aldaia, Jaungoikoa'ren aunditasuna iragarten joango zala aginduaz.

8. Baia Jauna'k ez eban aren otoy entzun. Ez zan, ba, benetakoaren damu ta garbaya. Eriotzaren bilduak eta oiazeak erasoak ziran aren eskari ta agintzak.

9. Jaungoikoa'ren zigorpean, eriotz zakaiez, il zan gizon gaizto ta biraoti au.

JUDA'REN OPARIA

10. Antiok'en urfengo bere semea jañi zan Siri'taren egege. Gudari-bururik ospetsuenak bialdu ebazan onek Juda'ren aurka. Jaungoikoa'ren laguntzaz, guztiok aspiratu ebazan Juda'k.



11. Beñola, judatar batzuk il ziran gudaketan. Ufengo egunez, ildakoen gorpuak obiratzten inar ebela Juda ta be-reak, arein soñekoetan jainko-izunai eskiñitako gauzak idoro ebezan. Legez debekatuta eben judatañak, jainko-izunai opal-

dutako ezer eurekanatzea. Igañi eban, ba, Jaungoikoa'ren zigoñez il zirala. Orduan Juda ta bere lagunak, Jaungoikoa'ren erabagiak onetsi ta otoi egin eben, Jauna'k parkatu egien gaiztakeri ori, ta ildakoen alde opari ta ordaiñak eskintzeko, amabi mila drakma (39.000 bat eñial) bialdu ebazan Juda'k Jerusalem'era. «*Asmo deuna ta osasungarria da, ba, ildakoen alde otoi egitea, Jauna'k oben-zoia parkatu dagikeoen*».

JUDA'REN ERIOTZA

12. Bakides, asiritar gudalburua, 20.000 oiñezko ta 2.000 zaldizkogaz aurkeztu yakon Juda'ri. Ori baño gudarozte garatzagorik austu izan eben Juda'k eta bere 3.000 guda-mutilak, baña oraingoan izuak artu ebazan, eta geyenak iges egin eben, 800 bakañik Juda'gaz geraturik.

13. Oneik bere, etxeratzea nai eben, gudaketarako adu oberik izango ebela-ta. Baña Juda'k erantzun eutsen: *Iges egin?... iez orixe! Ilteko ordua eldu ba-yaku, gizonki il gaitezán, baña ez daigun gure ospea lausotu*

14. Zortzireun gizonakaz eraso eban gudaroztearen eskumaldea; egun osoan iraun eban buñuketak; bai zirudian Juda garaitzale geratuko zala, baña esker-aldea atzetik jarki yakon, eta Juda ta bereak Jaungoiko ta Legearen aldez galdu eben bizia.

15. Juda'ren uréngo, Jonata ta Simon, aren anayak jañi ziran nagosi: Simon'ek jarein eban bere eñia atzeñitañen menbetik.

16. Simon'en ondorengoak, semerik-seme izan eben eñi-zaintzea. Juda'tañak, itzez Jaungoikoa autortu ta gur-egin eroyen, baña biotzez ta oituraz ustelduta egozan. Atzeñitañen siñiskeriz ta ekandu zantañez kutsututa eben gogoa.

Luñasoa, berebat, griña txárez ta jainko-izunkeriz endekatuta etzan. Alde guztietako zintzo banakak, deadañez eskatzen eben Jauna'k agindutako Salbagile edo Gaizkatzalea. Iragar-kiak beteta egozan. Bat bakañik peitu zan, Jakob'ek Juda bere semeari egindakoa: *Etortekoa ez zala etoriko arek eta aginpidea Juda'ren eskuetatik urten arteragiño. Au be laster bete zan.*

17. Juda'ta'arak alkañen arteko guda sortu eben. Buñukea ebazteko, eromatañai ots-egin eutsen. Erromata'arak Juda-eriaz jabetu ziran eta Erode, Idumaita'ra, izentau eben judatañen erege.

Aldi onetan jayo zan JESUKRISTO Jaungoiko-Seme gizon-egiña.

IKASBIDEA

Gure bañua argi dakus Jaungoikoa'k. Jaungoikoa'ri ezin iruzuñik egin. Antiok'en biotza ekusan, eta bere damua azal-utsekoa zala bere bai. «Jaungoiko biziaren eskuetan jaustea bai dala izugarí!» Zure damua benetakoa ete da? Zure autor-tzak biotz-damuz egiten ete-dozuz?

ITAUNAK

1. Antiok'ek judatañai gogor erasoten ziarduan aldian, nor bizi zan Juda'n?—2. Antiok'ek egin eroyazan triskantzak ikusita, zer egin eban Matati'k?—3. Bost semeak eta judatar jato'ak lagun ebazala, nora iges eta zer egin eban?—4. Matati il ezkeru, nor jañi zan gudari-buru?

ANTIOK'EN ERIOTZA

5. Makabaitaŕen gurendaz suak artuta, zer egin eban Antiok'ek?—
6. Zer jazo yakon?—7. Jerusalem'en egindako gaiztakeriekaz gomutau ete zan?—8. Entzun ete eban Jauna'k Antiok'en otoya?—9. Zelan il zan Antiok?


JUDA'REN OPARIA

10. Antiok'en uŕengo nor jaŕi zan Siritaŕen eŕege ta zer egin eban?—
11. Beñola, judatar batzuk gudaketan il-da, zer egin eban Juda'k?

JUDA'REN ERIOTZA

12. Zeinbat gudamutilez aurkeztu yakon Bakides Juda'ri ta zeinbat geratu ziran Juda'gaz?—13. Oneik bere etxeratzea nai ete eben eta zer erantzun eutsen Juda'k?—14. Zeinbat gizonegaz eraso eban gudaroztearen eskumaldea ta zer jazo zan?—15. Juda'ren uŕengo, nortzuk jaŕi ziran nagosi?—16. Simon'en ondorengoak, semerik-seme izan ete eben eŕi-zaintzea ta zelan egozan aldi atako judataŕak?—17. Alkaŕen arteko auziak ebazteko, nortzuekana jo eben eta nor ipiñi eben eŕomataŕak judataŕen eŕege?

.....
Autortza ondo egiteko zeinbat gauza bear dira?... Azterketa zer da?... Azterketa zelan egiten da?... Damua zer da?... Zeinbat eratakkoa da biotzeko 'damua?... Zer da maitasun-damua?... Zer da bildur-damua?... Zegaitik da maitasun-damua damurik onena?... Eta autortza ondo egiteko bildur-damua naikoa da ala maitasunezkoa bear da?... Garbitokia zer da?... Zertarako joaten dira arimak garbitokira?... Garbitokiko arima gaxoai lagundu ete daiketsegu?



ITUN-BARÍA

XLIII

JESUS'EN ERIA

1. Jesus'en eríari Palestina deritxo, baita Luálde Deuna be. Lau erki ebazan Jesus'en aldian: 'Judai, Samari, Galilai ta Pere.

2. **Judai.** Palestina'ko egoaldean zan Judai. Jerusalem eban uri-buru ta lau erkietatik ospetsuena zan, berton bai ziran Jauretxe, Batzar Nagosi, abade edo jaupari-buru ta Lege-jakitunak.

3. **Samari.** Judai ta Galilai bitartean zan Samari. Bertoko biztanleak lotuta eroan eta beste batzuk ekaíri ebezan luálke onetara Asiri'tarak. Judatar ta arotz, naste bizi ziran, ba, Samari'n. Jaungoikoa gur-egiten eben eta Garizim-mendian jauretxea jaso be bai. Samari'tar ta Juda'tarak alkaíren goíotoz bizi ziran. Batzuk bestiekaz artu-emonik ez eben.

4. **Galilai.** Palestina'ko ipaáldean zan Galilai. Lur yori, ugari ta ekarkoía zan. Galilai'ko basteák arakatu ebazan Jesus'ek, Jaungoikozko irakatsiak zabaltzen. Amabi Bialduetatik amaika galilaitarak ziran, baita Jesus'en jaíaitzalerik zintzoenak be. [Aramaitar izkuntza erabilan Palestina'ko erí zeyak. Izkuntz onetan azaltzen ebazan Jesus'ek bere irakaskizunak. Baña galilaitarak, oguzkera bereziz, ezagun-ezagun ziran].

5. **Pere.** Jordan-ibayaren sortaldean zan luálde au. Biñitan ibili zan Jesus alde onetan: lenengoz, Gadara'ko txerendunak sendotu ebazanean: bigañenez, Galilai'tik, Pere-zier, Tiro ta Sidon aldera joan zanean. Pere ipar-sortaldean ziran Trakonitis, Iturea ta Abiline.

AGINTARITZA

ERODE

6. Jesus jayo baño 40 urte lenago, Eñoma'ko Batzañak Judai'ko eñege izentau eban Erome. Odol-erioz jabetu zan eñegetzaz. Arerio guztiak erail ebazan, baita Mariamme bere emaztea be, Judai'ko eñege-geyen senitartekoa zalako. Gero, judatañai eder egiteañen, Jerusalem'go jauretxea añigañiro bañiztu ta amaitu eban. Baña judatañak goñoto eben, bai idumaitaña zalako, baita bere lizunkeriz ta ankerkeriz goñotagañi egin zalako be. Erome izan zan, Jesus'en jayotzaldian, Betlen inguruetako urte bitik berako umeak erailteko agindu ebana.

ERODE'REN ONDORENGOAK

7. Iru seme itxi ebazan Erome'k bere oiñordeko: Judañ ta Samari'ko eñege, Arkelao: Galilai ta Pere'ko laurenburu, Erome Antipas: ta Trakonitis ta Iturea'ko laurenburu, Pilipe.

8. Baña Judañ'n matxinada ta zalaparta gogañak izan ziran, eta Arkelao il ezkeru, Eñomatañak jaurle edo gobernadora ipiñi eben Judañ'n.

9. Jaurle oneitatik ospetsuena Pontzi Pilat dogu. Gizon aña, zetatsua baña makala zan Pilat. Jesus'en zintzotasuna ezagutu ta autortuañen, makalkeri ta koldarkeriz zigortu ta gurutzeratu eban.

10. Erode, aitaren seme jator-jatoía agertu zan, bai aundikeri-usaiñaz, bai lizunkeriz. Emakume nabarmenari atsegin egitearren, Yon Ugutzari edo Bateatzale deunari burua moztu eutsen, eta Jesus, isekaz, zuriz jantzi eban.

EŔI-ARAZOAK

11. Irutzuk ziran, Jesus'en aldian, eŕi-arazoak erabilezananak: abade edo jaupariak, zaŕak eta idazlariak. Irurogei ta amabi bazkide ebazan Sanhedrin eritxon Batzar Nagosiak.

Jaupariak izan oi ziran Batzar onetan nagosi. *Zaŕak*, leiñu bakoitzeko buruak ziran. Babilon'dik eŕiratu ezkeru, onei bitzuo*i idazlari* edo lege-jakitunak ezaŕi yakezan.

ELEIZGIZONAK

12. Eleizgizonen artean ezagunak doguz Ana ta Kaipa. Kaipa zan jaupari-buru, baña Ana, maltzur ta aizeri zaŕa, arazo guztiak azpi-janez aztertu ta ebazten ebazana.

ALDERDIAK

13. Iru ziran alderdiak: *parisaitaŕak*, *sadukaitar* ta *esenitaŕak*.

14. Legezale ta enparauak baño zintzoagotzat agertzen eben euren burua *parisaitaŕak*. Baña bein baño saŕiago estu artu ebazan Jesus'ek, eta arein zintzotasuna azal-utsezkoa zala erakutsi eban. Jesus'en areriorik gogoŕenak izan ziran *parisaitaŕok*, Nikodemo ta Gamaliel edo izan ezik.

15. Aundiki ta dirudunak ziran *sadukaitar*. Jan-edan eta atsegiñetan bizi, zan *sadukaitaren* uste ta asmoa. *Parisaitaren* etsai izanaŕen, Jesus'en aurka egiteko alkar artzen eben.

16. *Esenitaŕak*. Jordan ibai-basteŕean baltsuan edo naste

bizi ziran *esenitarrak*. Nozbait baño ez dira Jesus'en bizitzan agertzen. Jaungoikozale ta zintzo zirudien, baño uste oker asko eben.

17. *Zergalariak*. *Zerga* edo kontribuziñoa batzen ibiltzen ziran. Inortxok ezin ikusi izaten ebazan ta gaizto ta obendizat ebezan *zergalariok*. Baña Jesus'en itzaldiak, *parisaitarrak* baño gogotsuago entzuten ebezan, eta bat baño geyago onera biurtu be bai. *Zergalari* artekoa zan Matai deuna.

ITAUNAK

JESUS'EN ERIA

1. Zelan deritxo ta zeinbat erki ebazan Jesus'en eriak?—2. Non zan Judai ta zergaitik zan erkirik ospetsuena?—3. Non zan Samari ta nortzuk ziran Samaritarrak?—4. Non zan Galilai ta zelakoak galilaitarrak?—5. Non zan Pere ta zeinbat bider ibili zan Jesus alde oretan?

ERODE

6. Nor zan Erode?—7. Nortzuk itxi ebazan Erode'k oiñordeko?—8. Arakelao il ezkerro, nor ipiñi eben eromataarrak Judai'n?—9. Nor zan Pilat?—10. Aitaren seme agertu ete zan Erode?

ERI-ARAZOAK

11. Nortzuk ziran, Jesus'en aldian, eri-arazoak erabilezanak?

ELEIZGIZONAK

12. Eleizgizonen artean, nortzuk doguz ezagun?

ALDERDIAK

13. Zeinbat ziran alderdiak?—14. Nortzuk ziran *parisaitarrak*?—15. Nortzuk *sadukaitar* ta zer arein uste ta asmoak?—16. Nortzuk ziran *esenitarrak*?—17. Nortzuk ziran *zergalariak* eta begi onez ikusten ete ebezan *zergalariok*?

XLIV

JAUNGOIKO-SEMEAREN GIZAKUNDEA

1. Nazaret eritxon Galilai'ko eriskatxoan bizi zan Andre Maria, Yokin eta Ane'ren alaba, orban bage sortua, ta Joseba



gizon zintzoaren emaztegeya. Neskaria zan Maria ta Jaungoikoak bere Semearen amatzat aukeratuta eukan.

2. Gabirel aingerua agertu yakon Maria'ri ta esan eutson: «Agur, eskarez beteoi, Jauna zugaz, onetsia Zu emakumietan». Agur

au entzunda, Mari artegatu zan, baña aingeruak egin eutson: «Ez bildur izan, Mari, Jaungoikoaren edeía dozu-ta. Ara, sabelean semea sortu ta egingo dozu ta Jesus izena ezaríko dautsazu».

3. Mari'k aingeruari erantzun eutson: «Zelan izan daiteke ori, gizonik ez baidot ezagutzen?—Aingeruak erantzun eutson: Goteun edo Espiritu Santua jatsiko yatzu, ta Goikoaren indaíak bere kerizpean artuko zaitu. Ta zugandik sortuko dan Deuna, Jaungoiko-Seme eritxiko da».—Orduan Mari'k erantzun eutson: «Ona Jauna'ren mirabea; zuk diñozuna egin bekit». Eta bat-batean, Jaungoiko-Semea, Goteunaren bidez, gizon egin zan Andre Mari'ren sabelean.

4. Geroko egunetan, Mari, Elisabete bere lengusiña ikusterá joan zan Ebron urira. Ta Zakari'renian sartuaz, Elisabete'ri agur egin eutson. Eta ara, Mari'ren aguía Elixabete'k entzun ala, sabelean eroyan seña jauzika asi yakon eta Elisabete Goteunez bete zan. Eta pozez oyuka esan eutson: «Onetsia zu emakumietan, eta onetsia zure sabeleko umea bere. Baña nor naz ni, nire Jauna'ren Ama nigana etorteko? Oía ba; zure agur-itza belañietara orduko, seintxoa nire eíayetan ijutika asi da. Zorioneko, bañiz, Jaunaketz Zuri esanak beteko dirala siñestu dozun ori».—Ta Mari'k esan eban: «Jauna goresten dau nire gogoak...»

JON UGUTZARI EDO BATEATZALEAREN JAYOTZA

5. Elisabete'k semea izan eban, eta aitaren izena, Zakari, ezaíi gura eutsoen senideak.

6. Baña amak ezelan be ez eban gura aitaren izena ezarterik, Jon baño.

7. Aitari kiñuka itandu eutsoen, ba, ta Zakari'k idaztoltxo bat eskaturik, idatzi eban: Jon da oñen izena.

8. Guztiak añitu ziran. Ta Zakari'ri ao ta mingaña azkatu yakozañ, eta Jaungoikoa gorosten ekin eutsan.



9. Umea, bañiz, azkortzen joyan eta indartzen; eta basoan bizi izan zan, Isñael'i agertzeko egunerañ.

Ta egun au eldu zanean, Jordan-ibai basteretan agertu zan, Jesu-Kristo'ri bideak gertetako oben-nekea aldañikatu ta bateatzen. Orixegaitik deritxo Jon Batayatzalea.

IKASBIDEA

Andra Mari'ren antzera garbi ta apal izan. Jaungoiko-Semearen Gizakundea gogoratzeke, goiz, añats ta eguerditan «Angelus» edo «Jaunaren Aingeruak Mari'ri iragañi eutson» otoy a esan.

ITAUNAK

1. Nor zan eta non bizi zan Andra Maria.—2. Nor agertu yakon eta zer esan eutson Gabirel Aingeruak Andra Maria'ri?—3. Zer erantzun Andra Mari'k aingeruari?—4. Geroko egunetan nora joan zan Andra Mari

ta zer jazo zan an?—5. Elisabete'k semea izan ebanean, zein izen ezañi gura ete eutsoen?—6. Amak zer erantzun eban?—7. Ta aitak?—8. Zer jazo zan gero?—9. Nora joan zan Jon Ugutzaria ta noz ta non agertu zan?

.....

Irugañen siniskaya zein da?... Irugañen siniskai onek zer irakasten dau?... Gizakundeak zer adirazten dausku?... Zelan egin zan gizon Jaungoikoaren Semea?... Jaungoiko-Semeak gizon egitean galdu ete eban bere Jaungoikotasuna?

XLV

JESUS'EN JAYOTZA

1. Andra Mari ta Jose deuna Galilai'ko Nazaret urian bizi ziran.

2. Egun areitan lurbira osoa eñoldu edo zenbatzeko agindua agertu eban Augusto, Eñomako Kaiser'ak. Eta Jose ta Mari, Dabid'en jatoñikoak ziran-da, Belen'era igon ziran, euron jayoteñian izenak emoteko asmoz.

3. Belen'en zirala, sein-egiteko aldia bete yakon Andra Mari'ri, ta bere semea izan eban, eta oyalez batu ta ukulu-askan ezañi eban; aroztegian etzan, ba, areintzako tokirik.

4. Alde atan ba ziran ainbat artzain, gabaz, aldizka, artaldeak zaintzen. Eta ara, Jauna'ren aingerua agertu yaken, eta bilduñez izutu ziran artzañak.

5. Baña aingeruak esan eutsen: «Ez bildur izan; entzun; eñi guztia poz-poztuko dauan bañi ona iragarten natorkizue: Gaur jayo yatzue Dabid'en urian Jaregile edo Salbatzalea, Kristo Jauna. Ona emen ezaupideak: Umea oyalez batuta ta ukulu-askan etzunik aurkituko dozue.

6. Bat-batean zerutar-samalda aundi bat aingeruakin batu zan, Jaungoikoa goresten ebela esanaz:

«Goyetan aintza Jaungoikoa'ri
ta luñean bakea ta gogo ona gizonai».

7. Artzañak Belen'eratu ziran eta Jaungoiko-gizon jayo-
baria gur-egin eben.



8. Zortzigañen egunean bilebaitu eben Umea, ta bere
Amaren sabelean sortu baño len aingeruak emondako Jesus
izena ezañi eutsoen.

9. Jesus jayo-ta berogeigañen egunean, Jerusalem'go jau-
retxera eroan eben, Jaunari aurkezteko, ta oparitzat uso bi
eskiñi ebezan.

10. Ba zan an Simeon eritxon agure zintzo ta Jaungoiko-

zale bat, ta onek goi-argiz ezagutu eban axe umea zala Jaungoiko-Seme gizon egiña, ta besoetan artu, ta Jauna onetsi ondoren, Ama'ri emon eutson esanaz: «Zure biotza alderik-alde ezpatak uratuko dau, biotz askotako asmoak agertu daitezana».

IKASBIDEA

Zorionekoak gogoz txiro ta beartsu diranak, zeru-jaureña eurona dabe-ta. Ikasi Sendi Deunagandik txiroa ta men izaten.

ITAUNAK

1. Non bizi ziran Andra Mari ta Jose deuna?—2. Zer agindu eban egun areitan Augusto Kaiser'ak eta nora igon ziran Jose ta Mari?—3. Zer jazo yakon Mari'ri Belen'en zirala?—4. Nortzuk ziran alde areitan artzain eta nor agertu yaken?—5. Zer esan eutsen aingeruak artzañai?—6. Zer abesten eben, bat-baten aingeruakaz batu ziran zerutar-samaldak?—7. Zer egin eben artzañak?—8. Noz bilebaitu ta zein izen ezañi eutsoen umeari?—9. Nora eroan eben Jesus jayo-ta befogeigañen egunean?—10. Nor zan an aldi atan eta zer esan eutson Jesus'en Ama'ri?

.....

Non jayo zan Jesu-Kristo?... Zelan jayo zan Jesu-Kristo Andra Maria-gandik?... Jesu-Kristo'ren Ama'k beti Birjin iraun ete eban?... Nor da Andra Maria Birjiña?... Andra Maria Jaungoikoa'ren Ama dala, zegaitik diñozu?...

XLVI

JESUS'EN UMEAROA

1. Jesus Belen'en jayo ezkeroz, azti-jakitun batzuk eldu ziran sortaldetik Jerusalem'era ta itandu eben: «Non ete da Juduen elege jayo-barria? Aren izaña ikusi dogu, ba, Eguzki-aldean ta gur-egitera gayatorkoz».

2. Au entzunda Erode bakalduna artegatu zan eta berakin Jerusalem osoa bere bai.

3. Ta abade nagosi ta e'riko idazleak batzartuta, itandu eutsen non jayo bear ete zan Kristo.

4. Areik erantzun eutsen: «Judai'ko Belen'en: olantxe iragañita dauka Mikai igarleak-eta».



5. Orduan Erode'k azti-jakitunak etxeratu ta izaña noz agertu yaken ikasi ezkeroz, Belen'era bialdu ebazan esanaz: «Zoaze, bai, ta arduraz bilatu egizue Ume ori, ta aurkitutakoan, iragañi egidazue, neu be agur egitera noakion».

6. Joan ziran, ba, ta ara, sortaldean ikusi eben izaña aurretik joakien, Umea egoan etxe gañean geratu arte.

7. Ta etxean sartuta, Umea bere Ama Mari'kin idoro

eben, eta auzpezturik agur-egin eutsoen, eta kutxak idigita, uré, intzentzu edo kedats ta miña adiguritzat eskiñi eutsoezan.

8. Amesetan agindu eutsen Jauna'k Erode'gana ez biurtzeko, ta etxeratzeko beste bide bat artu eben.

9. Aztiak iruzur egin eutsoela igañi ebanean, Erode asañe-goñian jañi zan, eta Belen-inguruetan ziran urtebitik berako ume guztiak ilteko agindu eban.

10. Baña Jauna'ren aingerua amesetan agertu yakon Jose deunari ta esan eutson: «Jaiki, ta Umea, ta bere Ama artu, ta



Aigito'ra iges-egizu, ta antxe zagoke neuk esan arteraño, bizia kentzeko asmoz Ume-bila dabil Erode-ta».

11. Jaiki zan, ba, Jose deuna ta Umea ta Ama artu ta gabaz joan zan Aigito'ra.

12. Erode ilzan arte egon ziran Aigito'n; orduan, bañiro, amesetan aingerua agertu ta Nazaret'era itzuli ziran.

13. Amabi urte ebazala, Jerusalem'go jauretxera igon zan Jesus gurasoakaz; ta egunak igarota, osterakoan, Jerusalem'en geratu zan gurasoak oartzeko.

14. Lagun artean zalakoan, egun-beteko bidea egin ondoren, asi ziran senide ta ezagunen artean Ume-bila Jose ta

Andra Maria. Baña aurkitu ezinda, bañiro Jerusalem'era itzuli ziran, eta irugañen egunean idoro eben Jauretxean, irakasleen erdian jezañita, arei entzun eta itaun egiten.

15. Amak esan eutsen: «Ume, zergaitik egin dauskuzu ori? Ara, aita ta biok atsekabez genbiltzan zure bila».



16. Jesus'ek erantzun eutsen: «Baña zertarako ibili nire bila? Nire Aita'ren arazoetan jardun bear nintzala ez zenkien ala?»

17. Ta bere gurasoak Nazaret'era jatsi zan eta ogetamar urte bete arte euren menbean bizi zan.

18. Bitarte onetan il zan Jose deuna.

IKASBIDEA

Otoi eta lan egiten jardun eben Jesus, Mari ta Jose'k Nazaret'eko etxetxoan. Otoya ta lana dira kistar-etxien zorionbide. Gurasok ikasi begie Jose ta Maria'gandik umeak ondo zaintzen, ta umeak Jesus'engandik gurasoai men-egin ta maite izaten.

ITAUNAK

1. Jesus Belen'en jayo ezkeroz, nortzuk eldu ziran sortaldetik bere bila?—2. Zer jazo yakon Erode'ri ta Jerusalem osoari Jesus'en bila etorzela jakin ebenian?—3. Nortzuei itandu eutsen Erode'k non jayoko ete zan Kristo?—4. Zer erantzun eutsen abade nagosi ta idazleak?—5. Zer egin eban orduan Erode'k?—6. Agertu ete yaken bañero izaña azti-jakitunai ta non geratu zan?—7. Nogaz aurkitu eben Umea ta zer eskiñi?—8. Amesetan, zer agindu eutsen Jaunak aztiari?—9. Aztiak iruzur egin eutsoela jakin ebanean, zer agindu eban Erode'k?—10. Nor agertu yakon amesetan Jose deunari ta zer agindu?—11. Nora joan zan gabaz Jose deuna Ama-Umeakaz?—12. Noz arte egon ziran Aigito'n eta nora itzuli?—13. Zer jazo zan Jesus'ek amabi urte ebazala?—14. Zenbakañen egunean eta non idoro eben Jesus?—15. Zer esan eutson Amak Jesus'i?—16. Zer erantzun Jesus'ek Ama'ri?—17. Nora jatsi zan Jesus bere gurasoakaz?...—18. Bitarte onetan zer jazo zan?

.....

Zeinbat izate ditu Jesu-Kristok?... Zeinbat notin dira Jesu-Kristogan?... Jesukristo gure Jaunak, gizon danez, aitarik ete dau?... Eta San Jose nor da?... Zer egin eban Jesukristok ogeitamar urtera arte?

XLVII

JESUS'EN BATEO TA ZIRIKALDIAK

1. Jordan ibai-aldean ziarduan Jon Ugutzariak batayatzten eta Jesus bere bateo edo uguzpen eske etoñi yakon.
2. Jon'ek esan eutson: Zeuk ni bateatu bear ninduzuke ta nigana zatoz Zeu?»
3. Baña Jesus'ek batayatzeko agindu eutson eta Jon'ek ugutzau edo bateatu eban.
4. Jesus uretatik urten ezkeroz, odeiak erdibitu ziran, eta Jaungoikoa'ren Arnasa (Espiritu Santua) uso-irudiz Jesus'

en buru-gañera jatsi zan, eta goitiko deya entzun zan esaten: «Auxe, atsegin yatan nire Seme kutuna».

5. Gero, Jesus basartera joan zan. Eta berogei gau-egun baraurik egin ezkeru, gose izan zan.



6. Txerén ondoratu yakon, ba, ta esan eutson: «Jaungoikoa'ren Seme ba-zara, ariok ogi biurtu egizuz».

7. Jesus'ek erantzun eutson: «Ez dok gizona ogi utsez bizi, Jaungoikoa'ren aotik dato'ren itzez baño».

8. Orduan txerének uri deunera (Jerusalen'era) eroanda, jauretxeko galúretan ipiñi eban esanaz: «Jaungoikoa'ren Seme ba-zara, buruz-bera jaurti zaitez: idatzita dago, ba, ain-

geruak eskuetan artuko zaituela, zure oñak arien bat jo ez dagian».

9. Jesus'ek erantzun eutson: «Baita idatzita dago: Ire

Jaungoikoa ez dok zirikatu-ko».



10. Ostera be, mendi-ton-toñera eroan eban eta luñasoko eñi guztiak erakutsi eutsozan eta esan eutson: «Guztiok emongo dautzudaz auzpeztuta gur-egiten ba-nozu».

11. Jesus'ek esan eutson: «Utikan, Satan ori! idatzita bai yagok: Ire Jauna gur-egikek eta Berari bakañik moñoi akio».

12. Orduan aingeruak jatsi ziran eta Jesus'i jaten emon eutsen.

IKASBIDEA

Buñukaldia dogu gure bizitza. Txerñen da gure zirikatzañe, baña aingeruak doguz lagun. Ez bildur izan. Ikasi Jesus'engandik zirikadai gogor eusten.

ITAUNAK

1. Zetan ziarduan Jon Ugutzariak Jordan ibai-aldean eta zeren eske etoñi yakon Jesus?—2. Zer erantzun eutson Jon'ek?—3. Zer agindu Jesus'ek?—4. Jesus uretatik urten ezkerro, zer jazo zan?—5. Gero, nora joan eta zer egin eban Jesus'ek?—6. Nor ondoratu ta zer esan eutson Jesus'i?—7. Zer erantzun Jesus'ek?—8. Orduan, nora eroan eta zer esan eutson txer'enek?—9. Zer erantzun Jesus'ek?—10. Ostera be, nora eroan, zer erakutsi ta zer esan eutson txer'enek?—11. Zer erantzun Jesus'ek?—12. Zer jazo zan orduan?

.....

Zer dira diabruak?... Jaungoikoaren Legea betetako eragozpenik garaitu bear ete da?... Ziltzaldiak zer ete dira?... Zeintzuk dira gure arimearen etsayak?... Zelan garaitzen da diabrua?... Zelan garaitzen da mundua?... Zelan garaitzen da aragia?...

XLVIII

KANA'KO EZTEGUAK

1. Ezteguak egin ebezan Kana eritxon Galilai'ko urian. Jesus'en Ama an zan eta Jesus ta ikasleak bere ezteguetara deitu ebezan.

2. Ardoa aitu edo gastau zan, ba, ta Jesus'i bere Ama'k esan eutson: «Ardaurik ez dabe».

3. —«Andra Zuri ta niri zer? Ezta oraindiño nire ordua eldu» erantzun eutson Jesus'ek.

4. Jesus'en Ama'k esan eutsen mirabeai: «Esango dauztuena, dana dala, egizue».

5. Ba-ziran an sei upel, judaitar'ak garbiketarako erabilten ebezanak. Jesus'ek esan eutsen otseiñai: «Bete upelok

urez». Ta goraño bete ebezan. Gero esan eutsen: «Orain atara ta maiburuari emoyozue». Ta eroan eutsoen.

6. Maiburuak ardao egindako ura murtxatu ebanean,



senar bañiari ots-egin eta esan eutson: «Edozeñek ardaorik onena mayeratzen dau lenengo; gero, naikoa eginda dagozanean, txarrena; zuk, ostera, azkenerako itxi dozu ardao ona».

7. Auxe izan zan Jesus'en lenengo mirari edo alatza.

IKASBIDEA

Gure bear izan guztietan Andra Maria bitartekotzat artu.

ITAUNAK

1. Non izan ziran ezteguak eta nortzuk deitu ebezan ezteguetara?—
2. Ardaua aitu ezkeroz, zer esan eutson Jesus'i bere Amak?—3. Zer erantzun Jesus'ek?—4. Zer esan Jesus'en Amak mirabeai?—5. Zeinbat upel ziran an eta zer esan eutson Jesus'ek otseñai?—6. Ardao egindako ura murtxatu ezkeroz zer esan eutson maiburuak senar bañari?—7. Zeinbakeñen alatza zan au?

.....

Zetarako da Ezkontzako Sakramentua?... Zer bear da Sakramentu au ondo artzeko?... Eta oben astunean dagonak, zer egin bear dau Ezkontzako Sakramentu au bear dan lez artzeko?... «Matrimonio civil» deritxon ori, kristiñauen artean Sakramentu ete da?... Kristiñau-katolikoak egin ete dagikie «matrimonio civil» deritxon ori?... Ezkontza-auste edo «divorcio civil» oñek azkatu ete lei ezkontzako buztañirik?

XLIX

JESUS TA UMEAK

1. Umeak maite ebazan Jesus'ek. Txikitxoa besartean edo gona magalari eutsola etorkiozan amarik asko. Jesus'ek umetxoak laztandu, onetsi ta pozez bialtzen ebazan.
2. Ikasleak, ostera, ori ikusita, akar egioen gurasoai. Bañña Jesus'ek esan eutsen: «Umetxoak Nigana etorten itxi, ta ez eragotzi; Jaungoikoa'ren eñia oñelakoena da-ta».
3. Beñola ikasleai iñotsen: «Nor dala nagosi deritxazue zeru-eñian? Ta umetxo bat arein erdian ipiñi ta esan eban: Benetan diñotzuet: umetxoak lako biurtu ta egiten ezpa-zarie, etzarie zeruan sartuko. Beraz umetxo au baizen txiki biurtzen dana, orixe da zeruan aundiena. Ta oñelako umetxoren bat beragan artzen dauanak Nerau artzen nau. Nire siñestun txikitxo oneitariko bat okeferatzen dauanak, bañiz,

obe leuke erotaña samatik txintxil ezaña, itxas - barenera jaurtiko ba'lebe».

4. Umetxoak bere oso maite eben Jesus. Pozik etorten ziran Jesus'engana, ta Jerusalem'en ospetsu ta aundiro sartu



zan egunean, gizataldearen añez joyezan mutilxoak deadarka: «Gora Dabid'en semea.

IKASBIDEA

Umetan maite dozuen letxe maite izan Jesus aundi eginda gero be. Ta umetan goñoto dozuen legez goñoto izan gero be oben eta gaiztakeria.

ITAUNAK

1. Umerik maite ete eban Jesus'ek?—2. Zer egiten eutsen Jesus'ek ume-
txoai?—3. Zer esan eutsen Jesus'ek ikasleai, umeak ekarzen gurasoai akar-
-egiten eutselako?—4. Zer iñotsen beñola ikasleai? Nor da nagosi zeruan?
Nor artzen dau, umetxoa beragan artzen dauanak? Zer obe leuke siñestun
txikitxo oneitako bat okeferatzen dauanak?

.....
Zer da gaizpidia?... Zein da gaizpide guztietan Jesukristo'k geyen txar-
esten dauana?... Ba-ete daukagu iñori emondako gaizpidia kendu beařík?

L

JESUS ETA GASTEAK

1. Beñola, mutil gaste zintzoa, baña jzoritxañez! aberatsa
eldu yakon Jesus'i, ta Bere auñean belaunikoturik itandu eu-
tson: *Trakasle on, zer egin bear dot betiko bizitza jaristeko?*

2. Jesus'ek esan eutson: *Zergaitik diñostazu Trakasle on?*
On danik ez dago Jaungoikoa baño.

3. Jaungoikoa bakzńik da berez ona; Jesus be on-ona
zan, baña mutil arek, gizon utsa zalakoan deitzen eutson Je-
sus'i ona. Beraz Jesus'ek, Jaungoiko-gizon egiña zala Bera,
adierazi eutson gaste ari.

4. Gero, jaraitu eban esanaz: *aginduak ba dakizuz: ez iñor
il, aragikeririk ez egin, ez ostu, ez guzuzeko autońik esan, iruzurik ez
egin, gurasoai dedu ta lotsa izan.*

5. Gasteak erantzun eutson: *Trakasle, txikitandik bete ditut
guzti oreik.*

6. Orduan Jesus'ek, maite-atsegiñez begiratuta, esan eu-
tson: *Baten bear zara: zoaz, dituzun guztiak saldu ta txiro edo eska-*

leai emoyezuz, ta zeruan altxor edo saria izango dozu. Orezkero, gu rutza artuta, jaraitu egidazu.

7. Itzok entzunaz, naibagetuta joan zan gastea, aberats-
-aberatsa zan ba-ta.

8. Jesus be atsekabetu zan eta ikasleai esan eutsen: *Aberatsak bai nekez sartuko dirala Jaungoikoa'ren erian!*

9. Itzok adituta, ikasleak aritu ziran. Baña Jesus'ek bañiro esan eutsen: *Ene semeok, ondasunetan biotza dabenak zeruan sartzea bai dala zaila! Jostoratz zulotik gamelua erazago igaroko da, aberatsak Jaungoikoa'ren erian sartu baño.*

10. Orduan Kepa'k esan eutson: *Ona gu, dana itxita, jarai gayatortzuz.*

11. Jesus'ek erantzun eutson: *Benetan diñotzuet: inor ez da, bere etxe, anai-areba, aita ama, seme-alaba ta ondasunak Nigaitik eta Bañi Onagaitik itxi ezkerro, eunetan beste ainbeste artuko ez dauanik orain, aldi onetan, zeruan, bañiz, betiko bizitza.*

12. Ondasunak ez dira berez txarrik; baña txarerako bide izan oi dira, gaste ari Jaungoikoa'ren deya ez jaraitzeko bide izan yakozan legez.

IKASBIDEA

Orain euneko beste ainbeste ta gero betiko bizitza jaritxi nai ba-dozu, zure aita ta ama, ta zure ondasunak itxi, ta Jesus'i jaraitu.

ITAUNAK

1. Beñola, nor eldu yakon Jesus'i ta belaunikoturik, zer itandu eutson? —2. Zer esan Jesus'ek?—3. Nor da berez ona ta zer adierazi izan nai eutson Jesus'ek gasteari?—4. Zer esanaz jaraitu eban gero?—5. Zer erantzun eutson gasteak?—6. Orduan maite-atsegiñez begiratuta, zer esan eutson Jesus'ek? —7. Itzok entzunaz, naibagetu ete zan gastea?—8. Jesus be atse-

kabetu ete zan eta zer esan eban?—9. Itzok adituta aítu ete ziran ikasleak eta zer esan eutsen baíro Jesus'ek?—10. Zer esan eutson orduan Kepak? - 11. Zer erantzun Jesus'ek?—12. Ondasunak berez txarák ete dira?
.....

Zer esan nai dau «betiko bizitzeak»?... Zelakoa da betiko bizitzea?... Gaiztokira ez juateko ta zerua irabazteko, zer egin bear dogu?... Zerua zer da?... Nortzuk doaz zerura?

LI

JESUS, JAUNGOIKOÁ'REN SEME

1. Jaungoikoa'ren Seme zala siñistu-azoteko mirari ta alatzak egin zituan Jesus'ek.

2. Jaungoikoak bakaírik egin legikean zerbait deritxogu alatz edo miraria.

3. Beñola, Kaparnaun'en zala, etxean sartu ezin ala lagun batu zan. Ta or, lau gizonek elbaíridun (perlesidun) bat ekartzuen; eta etxea gizonez beterik ikusiki, sabaya zulatu ta zulotik eratsi eben elbaíriduna oyan.

4. Jesus'ek arein siñismena ikusirik, elbaíridunari esan eutson: «Seme, zure obenak parkatzen yatzuz».

5. An ziran idazle batzuk mar-marka ziarduen euren kautan: «Zer diño o'rek? Birao dagi. Nok parkatu legikez obenak, Jaungoikoa'k izan ezik?»

6. Arein asmakeriak igaírita, Jesus'ek esan eutsen: «Zer diarduzue or mar-marka? Zer da e'razago? «obenak parkatzen yatzuz» elbaíridunari esatea, ala «jaiki, zure ze'aldoa artu ta zoaz» esatea? Beraz Gizasemeak obenak parkatzeko eskubidea daukala jakin dagizuen, elbaíridunari diñotso: «Jaiki, ze'aldoa artu ta zoaz etxera». Ta bertantze jaiki ta etxera joan zan.

7. Beste alatz asko be egin ebazan Jesus'ek: itsuai ikusmena emon, goñai entzumena, gexoak bapatera sendatu, itxaso asáretua baretu, ogiak ugaritu ta ilak biztu.

8 Iru ildako biztu ebazan Jesus'ek: Jair'en alaba; Nain'go alargunaren semea ta Lazar eritxon gizon bat, ilda laugañen egunean.

9. Baña Jesus'ek bere Jaungoikotasuna agertzeko egin eban alatzik añañaena, bere burua biztutea izan zan. Auñez iragañi eban Jesus'ek ilgo ebela baña irugañen egunean biztuko zala.

IKASBIDEA

Al dozunik benetan eta sañitan esan: «Siñisten dot Jaungoiko Aita alguztidun...»

ITAUNAK

1. Jaungoikoa'ren Semea zala siñistu-azoteko, zer egin eban Jesus'ek?
- 2. Mirari edo alatz zer da?—3. Zer jazo zan, beñola, Jesus Kaparnaun'en zala?—4. Arein siñismena ikusiki, zer esan eutson Jesus'ek elbañidunari?
- 5. Zer iñoen idazleak mar-marka euren kautan?—6. Arein asmakeriak igañita, zer itandu eutsen Jesus'ek? Zer ete da eñazago, obenak parkatzea ala elbañitua bapatera sendatzea?—7. Beste alatzik egin ete eban Jesus'ek?
- 8. Zeinbat ildako biztu ebazan Jesus'ek?—9. Jesus'ek bere Jaungoikotasuna agertzeko egin eban alatzik añañaena, zein izan zan?

.....

Zer egin eban Jesukristo'k bere azkenengo iru urtietan?... Jesukristo bera Jaungoikoa ta bere irakaskizunak Jaungoikoarenak dirala siñistu-azoteko, bere alatz añañaiez gañera, ete dago beste agiririk?

LII

JESUS, IRAKASLE

1. Gure Irakasle bakaña Kristo da. «Irakasle izenik ez ar-tu, bat bakañik da, ba, zuen Irakasle, Kristo» iñotsen Jesus'ek ikasleai.

2. Jesus'en irakatsiak Kistar-Ikasbidean dagoz. Bitarikoak dira: batzuk siñistu beañoekoak; besteak, egin beañoekoak.

3. Jaungoiko bat eta iru notin 'dirala, Jaungoikoa gure-tariko bakoitzaz arduratzen dala, guztiok Aita Goikoa'ren se-me gareala ta anai legez alkar maite beañ dogula, Jaungoikoa'ren naya bete beañ dogula, eriotz ostean guztiok epaituko gaituala ta bakoitzari irabazi dogun sari edo zigoña emongo dauskula...egi guztiok Jesukristok irakatsiak dira.

4. Egin beañoekoetan, batzuk guzti-guztiok, nai-ta-ez, egin beañoekoak dira; beste batzuk on-ona izateko beañoekoak.

5. Nai-ta-ez egin-beañoekoak: «Latari edo lege-gizon ba-tek itandu eutson beñoia Jesus'i: Irakasle, zer egin beañ dot betiko bizitza jadesteko? —Jesus'ek erantzun eutson: Zer da-go Legean idatzita? Zelan irakurten dozu?—Latariak esan eu-tson: Zure Jaungoiko Jauna biotz-biotzez, gogo-gogoz, ado-re-adorez ta adin-adiñez maite egizu; zure lagun urkoa, bañiz, zeure burua-aña.—Ederto erantzun dozu, esan eutson Jesus'ek. Ori egizu ta biziko zara.

6. On-onak izateko irakatsiak «Mendiko itzaldi» garai ta edeñean dagoz.

7. Gizataldea ikusita mendira igon zan Jesus, ta luñean jezañita, bere ago jaungoikozkoa zabalduz, irakasten asi zan Jesus, esanaz:

Zorionekoak biotzez txiroak, zeruetako eña eurena dabe-ta.
Zorionekoak otzanak, luñaren jabe egingo dira-ta.
Zorionekoak negar dagienak, poztuak izango dira-ta.



Zorionekoak zuzendasunaren gose-egañi diranak, aseak izango dira-ta.

Zorionekoak erukioñak, erukia jadetsiko dabe-ta.

Zorionekoak biotz-garbiak, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta.

Zorionekoak baketsuak, Jaungoikoa'ren seme eritxiko yake-ta.

Zorionekoak zuzenañen neke-miñak daroezanak, zeruko eña eurena dabe-ta.

IKASBIDEA

Buruz ikasi ta gogoan erabili Jesus'en irakatsiak.

ITAUNAK

1. Nor da gure Irakasle bakaña?—2. Non dagoz ta zeinbatarikoak dira Jesus'en irakatsiak?—3. Siñistu beañoekoak, zeintsuk dira?—4. Egin-beañoekoetan, zeinbatarikoak dira?—5. Nai-ta-ez eginbeañoekoak esan egizuz?—6. Nongo itzaldian dagoz on-ona izatekoak?—7. Mendiko itzaldia esan egizu?

LIII

IRUDI EDO ALEGIAK

1. Irudi edo alegi bidez irakasten eban Jesus'ek. Itzez-itz jañiko doguz bat edo beste.

GARI-EREIĒEA

EreiĒea azi ereitera urten zan. Eta ereiten, eskukada bat bide ertzean jalgi zan eta ostikopean zapaldu, ta eguratseko egaztiak jan eben. Beste bat, añi artean jalgi zan, eta erne orduko igertu, ezorik ez ebalako. Urēngoa, arantzartean jalgi zan, eta arantzak aregaz batera erneta, ito egin eben. Azkena, lur onean jalgi zan, eta ernetakoan, bateko eun ekañi ebazan. Au esanda, deadar egin eban: «Entzuteko belañidunak entzun begi». (1)

(1) Kistar-Ikasbideari ezarteko egoki ta adiñon-adiñona dozu irudi au; ikasi-beaña, ikasteko era, ikastearen arerioak, ikastetik datorkiguzan onurak, itaunai erantzunaz, umeak eurak ulertuko dabez irudi onen bidez.

ITAUNAK

1. Zeren bidez irakasten eban Jesus'ek?—2. Nor ete da azi-ereilea?—3. Zer, azia?—4. Zer adirazten dausku bide-ertzean jalgi ta ostikopean zapaldutako aziak?—5. Noren irudi dira eguratseko egaztiak?—6. Zein ariarteetan jalgi zan azia?—7. Zer esan gura dau «ezorik ezak»?—8. Zer arantzartean jalgi zanak?—9. Arantzak zer ete dira?—10. Zer adirazten ete dausku lur onean jalgitako aziak?

PARISAITAÑA TA ZERGALARIA

Euren buruak zintzo ta besteak ezer ez diralakoan aro-aro dabiltzan batzuei, alegi au esan eutsen Jesus'ek: Gizon bi igon ziran jauretxera otoi egiteko; bata parisaitaña, bestea



zergalaria. Parisaitañak, zutunik, otoi au egiten eban bere kautan: Ene Jaungoikoa, esker dagitzut ni beste gizonak lakoa enazalako, lapur, oker, ezkontz - ausle; ezta oñako zergalari ori lakoa be. Astean biritan barau egiten

dot, eta daukadan guztien amañenak emoten dodaz.

Zergalariak, bañiz, urñean, begiak be ez ebazan gora jaso

gura, ta bular joka iñoan: «Ene Jaungoikoa, obendi onetzaz eruki izan».

Ba-diñotzuet ba: Au zintzotuta jatsi zan etxera; bestea ez; burua goresten dauan edonor, eratsiko da, ta burua erasten dauana, goretsiko da.

ITAUNAK

1. Nortzuei ipiñi eutsen Jesus'ek parisaitar eta zergalariaren alegia?—
2. Nortzuk ziran parisaitarak?—3. Nortzuk zergalariak?—4. Otoi egitea zer da?—5. Zelan egin bear da otoi?—6. Zer da arokera?—7. Zein da arokera aurkako onoinena?—8. Zer egiten dautse Jaunak burua goresten dabenai?—9. Zer burua erasten dabenai?

LIV

SEME GALDUA

Seme bi ebazan gizon batek, eta gastienak esan eutson aitari: *Aita, emoidazu niri dagokidan zatia*. Ta aitak bien artean banandu ebazan bere ondasunak.

Egun gitxi baru, semerik gastiena, bere eukiak batuta, urinetara joan zan, eta an, nasaikerietan irion edo ondatu ebazan bere ondasun guztiak.

Eukan guztia eralgi ebanean, gosete izugaria sortu zan bastealde atan, eta bear izan goñian aurkitu zan.

Joan zan ba ta ango eritar baten moñoi jañi zan. Onek lañara bialdu eban txarizain. An txarriak jaten ebezan ondakinetaz bete nai leukean sabela, baña iñok ez eutson emoten.

Orduan, bere senean sarturik iñoan: *Amaika otseñek ba dabe nire aitarenean ogia ugari, ni bariz, goseak ilten nago emen*. Jaikiko

naz ba, ta nire aitarengana joan eta esango dautsot: *Aita, Goikoaren aurka ta zuri buruz oben egin dot, ez naz nor zure seme izateko, baña zure moñoyetan artu nagizu, ařen.*

Jaiki zan, ba, ta aitarengana joan zan. Oraindik uñin zala, bere aitak ikusi eban eta biotza erdibitu yakon; arin bai arin egin eban semearengana, ta besarkatu ta mosu emon eutson.



Orduan semeak esan eutson: *Aita, Goikoaren aurka ta zuri buruz oben egin dot, enaz zure seme-izena eroateko nor, baña zure moñoi artean artu nagizu, ařen.*

Baña aitak moñoyai esan eutsen: *Ekari bizkor soñekorik ederena, ta jantzi egiozue, ta eskuan erestuna ezari ta oñetan oski edo za-*

patak. Gero zekor guria ekañi ta il egizue, ta bazkaria edo oturuntza gertau ta jai egin: nire seme au ilik egoan, ba, ta berbiztu da, galdua zan eta bañero agertu da.

Bitartean semerik zañena alor edo solotik etxeratu zan. Etxerantzean eresi ta dantza-soñuak entzun ebazan, eta moñoi bat deituta zer ete zan a itandu eutson. Moñoyak erantzun eutson: *Anaya etoñi yatzu bai, ta zure aitak zekor gize-na il eragin dau, semea osasundun etxeratu yakolako. Asañatu zan ba, ta ez eban sartu nai. Orduan aita aterata, sartzeko añen asi yakon. Baña berak erantzun eutson: Ona, ainbeste urtetan moñoi nayatzu ta zure agindurik ez dot egundaño ausi, ta aume bat ez daustazu iñoz emon nire adiskidiekaz janaldi bat egiteko. Lizunke-rietan bere ondasunak iruntsi dituan seme ori, osterá, etxeratu daneko-xe, zekor guria il dautsozu. Baña aitak erantzun eutson: Seme, zu beti neugaz zagoz, ta nire guztiak zure dira. Egoki da baña, oraingo poz ta jaya, zure anai au ilik egonda biztu bai da, galdua zan ta agertu bai da.*

ITAUNAK

1. Nor da alegi onetako aita?—2. Noren irudi seme gastea?—3. Autor-tzari ete yagoko irudi au?—4. Autortza ondo egiteko zeinbat gauza bear dira?—5. Noz egin eban gazte arek azterketa?—6. Noz agertu eban da-mua?—7. Maite-damua ala bildur-damua ete eban?—8. Noz izan eban as-moa?—9. Noz autortu ebazan obenak?—10. Noz bete eban oben-nekea?

LV

ARTZAIN ONA

1. *Artzain Ona Neu nozue, iñotsen Jesus'ek parisaitarai, ta artzain onari yagokozan ezaugañiak emon eutsezan.*

2. **Atetik sartu.** Eskortan atetik sartu beárean, beste inondik sartzen dana, mausari ta lapur da. Atetik sartzen dana, bariz, artzaiña da. *Ardi-atea Neu nozue* Orain arte etóri diran guztiak mausari ta lapur ziran. *Ate Neu naz.* Jesus'ek bialduta ez datořena, ez da artzain, lapur baño. *Nigandik norbait sartzen ba-da,* jaregingo edo salbauko da, ta sartu-urtenak eta lařak aukeran aurkituko ditu.

3. **Alkar ezagutu.** Artzaiñak ardiak eta ardiak artzaiña. *Neure ardiak ezagutzen dodaz ta nire ardiak be ezagutzen nabe.* Artzain onaren ots ta txistua ezagutzen dabe ardiak, eta berak bakoitzaren izenez bere ardiak deitu ta lařatzen ditu.

4. **Ardiak lařatu.** Lařa ugari ta mamintsuak damotsez Jesus'ek bere ardiai: egia, adimenaren janari; ona, gogoaren bazkari; edeřa, biotzaren gozagaři. Ořezaz gañera, inongo artzaiñi bururatu ez yakona: enparau artzaiñak ardien esne ta aragiz alikatzen dira; Jesus'ek bere Soin eta Odolez janaritzen gaitu eukaristian.

5. **Ardien alde bizia emon.** Artzain onak bere ardien alde bizia emoten dau. *Mořoyak, bařiz, ardien jabe ez danak, otsoa etorten ikusitakoan, ardiak deslai itxi ta iges egiten dau,* ta otsoak artaldeřa sakaildu ta sakabanatzen dau. *Mořoya mořoi da-ta,* ardiak bereak ez dira-ta, iges doa. Jesus'ek bere ardien alde bizia emon eban. Jesus'en ordezko zintzo diranak be, orixe egiten dabe. Baña mořoi diranak, ardiekaitik ezer ez dautsenak, ezbeařak jotakoan, ardiak bertan-bera itxi ta iges egiten dabe.

6. **Beste ardi batzuk.** Saletxe edo eskorta onetako ez diran beste ardi batzuk bere ba-ditut. Oneik be ekartea dagokit, eta nire mintzo edo deya entzungo dabe, ta artalde bat eta artzain bat baño ez da izango. Ařotz edo jentilak ziran Jesu-'en eskortan sartu bage egozan ardiak. Jesus'ek txistu egin eta asko be asko artalderatu ziran. Baña oraindik beste askok ez bade

Jesus'en deadaña entzun eta areik be bere eskortan nai ditu Jesus'ek.

7. **Ardi galdua.** Artaldean beti izan oi da lagunekandik iges egin eta otsoaren atzaparetan jausteko ariskuan jarten dan ardiren bat. Ardi galdu ori geu gara; atsegin bigunen irrikaz Jesus'gandik iges egiten dogunok. Larogei ta emeretzi lañan itxi, ta ardi galduaren bila ataraten da Jesus Artzain Ona. Ta aurkitakoan, bere lepoan pozik ezañi, ta etxera eldu ala, adiskide ta auzokoak batzen ditu esanaz: *poztu zaiteze nigaz, ardi galdua idoro dot-eta.*

8. Jesus'en ordezeko Artzain Ona Aita Santua dogu. Aita Santuari siñistu ta bere esanak egin bear doguz, Jesus'en artaldean zintzo irauteko.

IKASBIDEA

Jesus'en irakatsiak ikasi ta egin.

ITAUNAK

1. Zer iñotsen Jesus'ek parisaitaíai?—2. «Atetik sartu» ete da artzain onaren lenengo ezaugaña?—3. «Alkar ezagutu» ete bigaíen ezaugaña ta banan-banan ezagutzen ete gaitu gu Jesus'ek?—4. «Ardiak laíatu» ete da irugaíen ezaugaña ta zelan laíatzen gaitu gu Jesus'ek?—5. «Ardien alde bizia emon» ete da laugaíen ezaugaña ta gure alde bizia emon ete eban Jesus'ek?—6. Beste ardirik ete eban Jesus'ek eta nortzuk ziran, eta asko ete oraindik eskortaratu ez diranak?—7. Zeintzuk dira ardi galduak eta zelan bilatzen ditu Jesus'ek?—8. Nor ete da orain Jesus'en ordezeko artzain ona ta Aita Santuari siñistu ta bere esanak egin beaíik ete dogu?

.....

Eleiza zer da?... Éromako Aita Santua nor da?... Éromako Aita'ri siñistera beartuak ete gagoz?... Éromako Aita'ren esanak egitera beartuak ete gagoz?... Zeinbat Eleiza irasi zituan Jesukristo'k?

ABERATS ZEKENA TA LAZAR ESKALEA

Ba zan gizon aberats bat, purpuraz ta miesaz jantziten zana ta egunero janaldi gogoñak egiten ebazana. Ba zan baita Lazar eritxon eskale bat be, aberats aren atondoan zauriz josirik etzanda, aberats aren maitik jalgiten ziran apur-guraz.



Txakuñak osterá, etorkiozan eta zauriak miazkatzen eutsoezan. Il zan ba eskalea, ta aingeruak Abrahan'en altzora eroan eben. Aberatsa be il zan-da lurpean eortzi eben. Suberoan, oñazez, egoala begiak jasota, Abrahan uñndik ikusi eban, baita Lazar be aren altzoan. Eta deadañez esan eutson: *Abra-*

han aita, nitzaz eruki izan, ta bialdu Lazar nigana, bere erpurua uretan busti ta nire mingaña ozkiritu dagistan, su-gar onetan oñazez nago-ta. Baña Abraham'ek erantzun eutson: Seme, gomutau zaite bizitzan atsegin asko izan zendula, Lazar'ek bariz atsekabeak. Orain, oster, a atseginetan dago, zu bariz, oñazetan. Gañera gu ta zuen artean bitarte sakona dago, ez emendik ora, ez ortik ona inor igaro ez daiten.

Aberatsak esan eutson: Bialdu aren, aita, Lazar ori beñik bein nire aitaren etxera, bost anai ditut ba, ta aitzen emon dagiela, oñaze-toki onetara etori ez daitean.

Baña Abraham'ek esan eutson: An dabez Mois ta Igarleak, arei entzun begie.

Aberatsak inotson: Ez, Abraban aita, baña ildakoren bat agertzen bayake, damu izango dira.

Abraham'ek erantzun eutson: Ara, Mois ta Igarleai entzuten ezpa-dautse, ezta ildako norbait biztuta bere, ez dabe sinistuko.

IKASBIDEA

Diruari ez biotzik ezañi. Eruki-bera izan. Eskalea Jesukristo' ren irudi da; aintzakotzat artu.

ITAUNAK

1. Gaiztokia zer da?—2. Nortzuk joaten dira gaiztokira?—3. Gaiztokian dagozanak atera al ete daitekez?—4. Zerua zer da?—5. Nortzuk doaz zerura?

LVI

ELEIZA

1. Amabi gizon aukeratu ebazan Jesus'ek bere ordezkotzat ta baster guztietara *bialdu* ebazan, gizonai Bañi Ona iragar-teko.



2. Zoaze ta eri guztiai irakatsi, ta Aitaren eta Semearen eta Es-
piritu Santuaren izenean bateatu, ta Nik agindutako dana betetan
erakutsi, esan eutsen.

3. Ona emen amabi Bialduen izenak: Kepa deritxon Si-

mon eta Ander aren anaya; Yakob ta Yon anayak; Pilipe ta Bartolomai; Toma ta Matai zergaria, Yakob Alpai'rena ta Yuda; Simon Kananai'koa ta Yuda Iskariote, Jesus saldu ebana. Onen ordez Matia aukeratu eben.

4. Amabi Bialduok dira Eleizaren oñari, baña guztien Buru ta Bere oñordeko Kepa deuna ipiñi eban Jesus'ek.

5. Beñola bere ikasleai itandu eutsen Jesus'ek: *Nor dala Giza-semea diño gizonak?*

6. Ikasleak erantzun eutsoen: *Batzuk Jon Ugutzari edo Bautistea; beste batzuk Eli, beste batzuk Jeremi edo Igarlietako bat.*

7. Jesus'ek ba diñotse: *Ta zuek, nor nazala uste dozue?*

8. Kepa'k erantzun eutson: *Zu zara Kristo Jaungoiko bi-ziaren Seme.*

9. Jesus'ek esan eutson: *Zoriontsua zu, Simon Bar-Jona, ez dautzu ba, ez aragiak, ez odolak ori agertu izan, nire Aita Goi-koak baño. Nik bañiz diñotzut: Zu zara Kepa edo Aitza, ta aitz onen gañean eraikiko dot Nik neure Eleiza ta su-lezeko ateak ez dira aren aurka garale izango. Zuri emoten deutzudaz zeruko giltzak, eta zuk luñean lotua, zeruan be lotua izango da, ta zuk luñean azkatua, zeruan be azkatua izango da.*

10. Iñen artetik biztu ezkeroz bayetsi eban Jesus'ek orain Kepa'ri agindutako nagositasuna.

11. *Simon Kepa, maite al nozu?*—itandu eutson Jesus'ek.

12. *Bai Jauna, Zuk dakizu maite zaitudana,*—erantzun eutson Kepa'k.

13. *Lañatu ba nire bildotsak*—diñotso Jesus'ek.

14. *Simon Jon'ena, maite al nozu?*—itandu eutson bañiro.

15. *Bai Jauna, Zeroñek dakizu maite zaitudana.*

16. *Zaindu, ba, nire ardiak.*

17. *Simon Jon'ena, maite al nozu?*—itandu eutson irugañez.

18. Kepa'k, lañi-lañi, erantzun eutson: Jauna, Zuk dana dakizu: Zuk ba dakizu maite zaitudana.

19. *Lañatu ba nire ardiak.*



20. Ardi ta bildotsak eleizgizon ta kistar lauen irudi dira. Kistar lau ta eleizgizon guztiok, jañi ebazan Jesus'ek Kepa'ren menbe ta ardurapean.

IKASBIDEA

Begietako niniak baizen maite izan Eleiza, ta burua eleiztar agertzen ez egundo lotsatu.

ITAUNAK

1. Zeinbat gizon aukeratu ebazan Jesus'ek bere ordezeko ta zertarako bialdu?—2. Zer esan eutsen amabi Bialduai?—3. Zeintzuk dira Bialduen izenak?—4. Eleizaren oñari ete dira Bialduak eta nor guztion Buru?—5. Zer itandu eutsen beñola Jesus'ek ikasleai?—6. Zer erantzun ikasleak?—7. Zer itandu bañero Jesus'ek?—8. Zer erantzun Kepa'k?—9. Zer esan eutson Jesus'ek Kepa'ri?—10. Noz baietsi eban Jesus'ek orain Kepa'ri agindutako nagositasuna?—11. Zer itandu eutson Jesus'ek Kepa'ri?—12. Zer erantzun Kepa'k?—13. Zer esan Jesus'ek?—14. Zer itandu bigarenez Jesus'ek?—15. Zer erantzun Kepa'k?—16. Zer esan Jesus'ek?—17. Zer itandu irugarenez Jesus'ek?—18. Zelan erantzun Kepa'k?—19. Zer esan Jesus'ek?—20. Ardi ta bildotsak nortzuen irudi dira?

.....

Gure Ama Eleiza deuna nok irasi eban?... Eleiza zer da?... Eñoma'ko Aita Santua nor da?... Eñomako Aitaren esanak egitera bearturik ete gagoz?... Eñomako Aitari siñistera beartuak ete gagoz?... Zelan da utseziña Eñomako Aita?... Zetan da utseziña Eñomako Aita?... Eñomako Aitaren urango, Jaungoikoaren aginduz, nori zor dautseguz itzala ta menbeta-suna?... Zer dira Gotzaniak?... Zeinbat Eleiza irasi zituan Jesukristo'k?... Egiatzko Eleizaren ezaugarriak zeintzuk dira?... Eleiza betikoa ete da?

LXVI

JERUSALEN'EN SAÑERA

1. Il baño len, Jerusalem'en ospetsu ta aundikiro sartu nai izan eban Jesus'ek.

2. Oñretarako, Betani'tik Oliamendira eldu ziranean, ikasle bi bialdu ebazan esanaz: *Zoaze or uréan dozuen eriskara ta be-reala aurkituko dozue asto-eme bat lotuta ta astakumea bere bai. Azkatu ta ekañi egidazue. Ta iñok ezer esango ba'leutzue, Jaunak bear dituala erantzun,*

3. Guzti au egin zan Zakari igarleak esan ebana bete zedin: *Esayozue Sion'go alabari, o'ra or datorkitzu zure Érege otzanik astogañean...*

4. Joan ziran, ba, ikasle biak eta Jesus'ek agindu eutsena egin eben.

5. Asto-ama ta umea ekañi ta bizkañean euren soñekoak ezañirik, Jesus astogañean jañi eben.



6. Gizatalde aundia zan Jerusalem'en, jai egunetarako etoñita, ta euren soñekoak bidean edatzen ebezan eta eriñotz-abararak ebagita, Jesus'en aurre ta atzetik joyezan esanaz: *One-tsia Jaunaren izenez datoñena! Gora goi-goyenetaraño!*

7. Jesus jauretxera joan zan eta toki deun atan saldu-erosten ziarduenak jaurti ebazan esanaz: *Idatzita dago: Nire etxea otoi-etxe da, zuek bariz, lapur-zulo egin dozue.*

8. Ta an ziran itsu ta érenak sendotu ebazan.

9. Mutiltxoak jauretxe baruan oyuka ziarduen: *Gora Dabid'en Semea!*

10. Jesus'en arerioak ezin iruntzi ebezan Jesus'i egioezan gorakak eta esan eutsoen: *Ez al dozu entzuten oreik diñoena?*

11. —*Bai. Ez al dozue beinbe irakuri: Ume ta bularékoen aotik gora-deadaña atera dozu?*

12. Orduan eleizgizon eta parisaitarak, bekaitzez, Jesus galtzeko asmoa artu eben.

13. Onetan, Juda Iskariote eldu yaken eta esan eutsen: *Zer emon gura daustazue ta neuk eskuratuko dautzuet.*

14. Ogetamar zidarki emotekotan geratu ziran.

IKASBIDEA

Il, bai; Jesus saldu ezergatik be ez.

ITAUNAK

1. Il baño len zelan sartu nai izan eban Jesus'ek Jerusalem'en?—2. Zer egin eban ofetarako?—3. Zakari igarleak esana betetako jazo ete zan guzti au?—4. Joan eta egin ete eben ikasle biak Jesus'ek agindua?—5. Zer ekañi ta zeren gañean jañi eben Jesus ikasleak?—6. Gizatalde aundia ete zan egun areitan Jerusalem'en eta zer egin eban?—7. Nora joan zan Jesus ta zer egin eban?—8. Itsu ta érenak sendotu ete ebazan?—9. Zetan ziarduen mutilak jauretxe baruan?—10. Zer esan eutsen Jesus'i bere arerioak?—11. Zer erantzun Jesus'ek?—12. Zer asmo artu eben orduan eleizgizon eta parisaitarak?—13. Nor eldu yaken onetan eta zer esan?—14. Zeinbat emoteko geratu ziran?

LVII

EGUEN GUREN

BILDOTS-APARIA (1)

1. Paska-bildotsa jateko eguna eldu zanean, Jesus'ek Kepa ta Jon bialdu ebazan esanaz: *Zoaze ta Paska-aparia atondu egiguzue.*

2.—*Non atonduko ete dogu, ba, Jauna?*—erantzun eutsoen areik.

3. Jesus'ek esan eutsen: *Zoaze urira bai, ta an sartu ordukoixe, pitxar bete ur sorbaldan daroala aurkituko dozue gizon bat, jañai berau sartuko dan etxeraño ta etxeko jaunari esayozue: Irakasleak diño: non dozu nire ikasliekaz Paska jateko tokia? ta apaltegi aundi ta apaña erakutsiko deutzue, antxe atondu*

BELDUAI OÑAK GARBITZEN

4. *Iluntzean batu zan Jesus bere ikasliekaz apaldegia eder onetan.*

5. *Eta apariten asi baño len, Jaungoikoaren Semea zala jakiñik, maitik jaiki, bere soñekoak erantzi, ta miesa bat artu-*

(1) Ebertařak Aigito'n ziralta etxe bakoitzak bildots bana il eta aren odolaz ateburuak igortziteko agindu eutsen Jaunak. Gau atan Jaunaren aingerua igaro zan Aigito-ziar, ta bildots-odolez gořituta ez egozan etxe guztietako semerik zařenak erail ebazan. Bildots ori Jesukristo'ren irudi zan.

Egun au Otil eguna eritxon. Saspı egun buruan orantz edo legamı bako ogi ila jan eroyen judaitařak.

Paska itzak igarote esan nai dau, ebertařak Aigito'tik Jaungoikoak agindutako lufaldera igaro ziran aldia.

rik, geñian lotu eban. Gero aspil baten ura ipiñi, ta Bialduen oñak garbitu edo ikuzi ta geñiko zapiaz legortzen asian.

6. Ba dator Kepa'gana ta onek diñotso: *Jauna, Zuk niri oñak garbitu?*

7. Jesus'ek erantzun eutson: *Nik dagidan au zuk eztakizu orain, gerokoan jakingo dozu.*

8. Kepa'k diñotso: *Ez daustazuz egundo bere niri oñak garbituko.*

9. Jesus'ek esan eutson: *Garbitzen ez bazaitut, ez dozu nigaz artu-emonik izango.*

10. Orduan Kepa'k diñotso: *Jauna, oñak ez eze, eskuak eta burua be bai.*

11. Jesuse'k erantzun eutson: *Garbi dago-*

nak oñak garbitzea naikoa dau. Ta zuek garbi zagoze, baña ez guztiok. Ba ekian ba, Juda Iskariote'k saldu eban.

12. Oñak garbitu ezkeroz, soñekoa bañiro jantzi ta etzan zanean esan eutsen: *Ikasbidea emon dautzuet, Nik zuei egin dautzuedana, zuek be egin dagizuen.*



EUKARISTIA

13. Apari azkeneruntz, mayan ziran opiletatik bat bere eskuetan artu eban Jesus'ek, eta esker-egin, ta onetsi, ta zati-tu ta emon eutsen esanaz: *Artu ta jan, auxe da nire gorputza.*



14. Gero edontzia artu ta onetsi, ta esker-eginda emon eutsen esanaz: *Edan guztiok ontatik. Auxe da, ba nire odola.*

15. Ondoren, berebat egiteko eskubidea ta agindua ezañi eutsezan Bialduai esanaz: *Au egiten dozuen bakoitzean, nire gomutaz egikezue.*

IKASBIDEA

Egunero al ba'litz, edo beintzat alik sañien eta ondo gertautu, Jaunartzera eldu.

ITAUNAK

1. Zer agindu eutsen Jesus'ek Kepa ta Jon'i Paska-bildotsa jateko eguna eldu zanean?—2. Zer erantzun areik?—3. Zer esan Jesus'ek?—4. Noz ta non batu zan Jesus ikasliekaz?—5. Zer egin eban Jesus'ek aparria asi baño len?—6. Zer diñotso Kepa'k?—7. Zer erantzun Jesus'ek?—8. Zer diñotso Kepa'k?—9. Zer Jesus'ek?—10. Orduan zer diñotso Kepa'k?—11. Zer erantzun Jesus'ek?—12. Oñak garbitu ezkeroz zer egin eta zer esan eutsen Jesus'ek?—13. Apari-azkeneruntz zer egin eban Jesus'ek?—14. Gero, zer artuta onetsi ta esker-egin ta emon eutsen?

.....

Zertarako ipiñia da Eukaristia deritxon Sakramentua?... Noz egin eban Jesus'ek eukaristia?... Zer artzen dozu Eukaristia deritxon Sakramentu guztiz deunean?... Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan baño len?... Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan ezkeroz?... Zer dago kalizan Mezerdiko itzak esan baño len?... Zer dago kalizan Mezerdiko itzak esan ezkeroz?... Zeintzuk dira Mezerdiko itzak?... Mezerdiko itzak esan ezkeroz Jesukristo osorik ete dago ostian eta osorik kalizan?... Ogi ta ardoa noz biurtzen dira Jesukristo'ren gorputz ta odol?... Eta Mezerdia ezkeroz, ete dago ostian ogirik eta kalizan ardorik?... Zertarako da abadegintza deritxon Sakramentua?... Noz egin ebazan Jesukristok lenengo abade edo jaupariak?

LVIII

JESUS'EN NEKALDI TA ERIOTZA

GETSEMANI'KO BARATZEAN

1. Apal-ondoan Jesus bere ikasliekaz Getsemani'ko baratzerara joan zan.

2. Ta baratz-saíeran zortzi ikasle itxita, Pedro, Yakob ta Yon beragaz arturik, atsekabe ta laíri izaten asi zan.

3. Ta ikasle onei esan eutsen: *Ilteko baizen laíri dot biotza. Itxoin emen eta itxaírik egon Neugaz. Otoi egizue, zirikaldian ez sar-tzeko.*

4. Ta ańikada bat bide legez aldenduta, auzpez, Aitari



otoi egiten asi zan esanaz: *Ai-ta, nai ba-dozu, Nigandik edontzi au aldendu, ańen, bańa ez pedi nire naya bete, Zeurea bańo.*

5. Iru bider egin eban otoi au, ta gure gaiz-takeri - ordańez artu bear eba-zan neke - ońa-zeak gogoratu-

ta, biotza estutu, ta laíitu zan, ta luńerańo odol-matasaz izerdia zerion.

6. Orduan aingerua agertu yakon eta biotz-lańia arindu ta adoretu eban.

JESUS ATXILOTZEN DABE

7. Jesus'ek otoyá amaitu ordukoxe agertu zan Juda iskariotańa, ezpata ta makilakaz Jesus lotuta eroateko etorzan gizon-pilo baten buru.

8. Ezaupide au emon eutsen Juda'k bere lagunai: *Nik mosu egingo dautsadana, axe da, arduraz lotu.*

9. Ta bereala Jesus'engana elduta, mosu egin eutson esanaz: *Agur, Irakasle.*

10.— Jesus'ek esan eutson: *Adiskide, zertara zatoz? Juda, mosu bategaz iruzur egiten dautsozu Gizasemeari?*

11. Ta gizataldeagana elduta esan eutsen: *Noren bila zabilte?*

12. Eurak erantzun eutsen: *Jesus Nazaretararen bila.*

13. Jesus'ek ba diñotse: *Neu naz.*



14. Jesus'ek *Neu naz* esanaz batera, atzera egin ta luñera jausi ziran.

15. Bañiro itandu eutsen Jesus'ek: *Noren bila zatoze?*

16. Eurak erantzun eben: *Jesus Nazaretararen bila.*

17. Jesus'ek ba diñotse: *Neu nazala esan dautzuet. Beraz nire bila ba-zatoze, itxi onei joaten.*

18. Orduan Simon, Kepa'k ezpata atera ta abadeburuaren moñoya jo ta eskumako belarria moztu eutson.

19. Baña Jesus'ek esan eutson: *Sartu ezpata ori bere zoñoan. Ezpata artzen daben guztiak ezpataz ilgo dira-ta. Aitak emon dautan ontzia ez dot edango ala?*

ANA TA KAIPA'RENEAN

20. Lapuía bai litzan lotuta, jo ta bultzaka ekaíi eben Jesus Ana'renera.

21. Kaipa, abadeburuaren aitagiñareba zan Ana, ta Jesus'i bere ikasle ta ikaspideaz itaun egin eutson.

22. Jesus'ek erantzun eutson: *Nik agirian itz egin izan dautset guztiai, ta eskutuan ez dot ezer esan. Zer dala-ta niri itandu? Entzun daustenai itandu egiezu.*

23. Ori esanda, ango otsein batek matralekoa emon eutson Jesus'i esanaz: *Olan erantzuten dautsazu abadeburuari?*

24. Jesus'ek esan eutson: *Oker itz egin badot, erakutsi egidazu zetan uts egin dođan, zuzen egin badot, bariz, zergaitik joten nozu?*

25. Ana'renetik Kaipa'renera eroan eben. Emen ziran idazlariak eta zaíak batuta. Batzarean sartu ta Kaipa'k itandu eutson: *Jaungoiko bi-ziaren agintzen dautzut, esaiguzu ete zarian Kristo, Jaungoikoaren Seme.*

26. Jesus'ek erantzun eutson: *Bai, Neu naz. Ta esan be*



*ba'diñotzut: laster ikusiko dozue Gizasemea Jaungoiko altsuaren esku-
maldean jezarita odehyetan etorten.*

27. Orduan abadeburuak bere soñekoak uratu ebazan esanaz: *Birao egin dau. Zeuek entzun dozue oraintxe biraoa. Zer deritxazue?*

28. Ta batzarékoak erantzun eben: *Ilgari da.*

29. Onezkero, arpegira txuka, ta joka, ta baita batzuk matralakoka be asi yakozen esanaz: *Igari eiguk, Kristo, nok joten auan.*

30. Bitartean iru bider ukatu eban Pedro'k, bialduen Buru ta bere kutunak, arantzarik zořotzenaz erdibituz Jesus'en Biotza.

JESUS PILAT'ENEAN

31. Uréngo goizean auzitegira eroan eben Jesus ta Pontzi Pilat, Judai'ko jaurlearen eskuetan ipiñi eben.

32. Itaun asko egin eutsozan Pilat'ek Jesus'i, baña ez eban ezertariko utsegiterik bere Jesus'egan aurkitu. Galilaitara zala jakin ebanean, Erode'gana bialdu eban.

33. Erode'k pozik ikusi eban Jesus, alatz edo mirarien bat bere aurrean egingo ebala uste izanik.

34. Baña Jesus'ek erantzun be ez eutson egin gizon zantzar ari.

35. Orduan Erode'k, isekaz, zuriz jantzi eban Jesus ta atzera bialdu eutson Pilat'i.

36. Pilat'ek Jesus azkatu be nai eban. Ba zan an Baraba eritxon gaizkile ospetsu bat eta Jesus ta biok erakutsi ta eřiari esan eutson: *Biotarik zein nai dozue zuei azkatzea?*

37. Eřiak erantzun eban: *Baraba.*

38. Pilat'ek ba-diñotse: Zer egingo dautsot ba Kristoa dan Jesus'i?



39. —Gurutzera ori—erantzun eben.

40. —Zer gaiztakeri egin dau ba? — diñotse Pilat'ek.

41. Baña geroago ta gogoñago deadar egiten eben: Gurutzera ori.

ASTIÑALDIA TA ARANTZAZKO BURUNTZA

42. Ezer jadesten ez ebalá ikusirik, eskuak garbitu ta Jesus astintzeko agindu eban Pilat'ek.

43. Gudamutil sail osoak, Jesus artu, soñekoak erantzi, arlandu bati lotu ta azuñak agertzeraño zigortu eben.

44. Gero arantzakaz buruntza edo koroya eyo, buruan ezañi, kañabera bat eskuetan, eta goñiz jantzirik belauniko jañi ta isekaz gur egiten eben esanaz: *Agur, Judaitařen eñege ori.*

IKASBIDEA

Gurari ta joikera txañak zeure buruari ukatu. Jesus'en gurutze-lagun ixaten ba-gara, zeruan be bere lagun izango gara-ta.

ITAUNAK

GETSEMANI'KO BARATZEAN

1. Apalondoan, nora joan zan Jesus bere ikasliekaz?—2. Baratz-saíeran zeinbat ikasle itxi ta nortzuk artu ebazan beragaz?—3. Zer esan eutsen ikasle onei?—4. Zer otoi egin eutson Aitari?—5. Zeinbat bider egin eban otoi au ta, gure gaiztakeri-ordañez artu bear ebazan neke oñazeak gogoratuta, zer jazo yakon?—6. Nor agertu yakon orduan?

JESUS ATXILOTZEN DABE

7. Jesus'ek otoyá amaitu ordukoxe nor ágertu zan?—8. Zer ezaupide emon eutsen Juda'k bere lagunei?—9. Zer egin eban berealaxe?—10. Zer esan eutson Jesus'ek Juda'ri?—11. Gizataldeagana elduta zer esan eutsen?—12. Zer erantzun eutsen areik?—13. Zer diñotse Jesus'ek?—14. Jesus'ek *Neu naz* esanaz batera zer jazo zan?—15. Zer itandu eutsen Jesus'ek bafiro?—16. Zer erantzun eurak?—17. Zer diñotse Jesus'ek?—18. Zer egin eban orduan Simon Kepa'k?—19. Zer erantzun Jesus'ek?

ANA TA KAIPA'RENEAN

20. Zelan ekaíi eben Jesus Ana'renera?—21. Nor zan Ana ta zer itandu Jesus'i?—22. Zer erantzun Jesus'ek?—23. Ori esanda, ango otsein batek zer egin eutson Jesus'i?—24. Zer esan eutson Jesus'ek otsein oni?—25. Ana'renetik norenera eroan eben Jesus ta nortzuk ziran an ta zer itandu Kaipa'k Jesus'i?—26. Zer erantzun eutson Jesus'ek?—27. Zer egin ta zer esan orduan abadeburuak?—28. Zer erantzun eben batzaíekoak?—29. Onezkero, zer egiten asi yakozen Jesus'i?—30. Bitartean, zer egin eban Pedro'k?

JESUS PILAT'ENEAN

31. Nora eroan ta noren eskuetan ipiñi eben Jesus ufengo goizean?—32. Itaun asko egin ete eutson eta utsegiterik aurkitu Pilat'ek Jesus'egan? Norengana bialdu eban Pilat'ek Jesus?—33. Erode'k pozik ikusi ete eban Jesus? Zergaitik?—34. Erantzun ete eutson Jesus'ek gizon zantar areri?—35. Zer egin eban orduan Erode'k?—36. Azkatu be nai ete eban Pilat'ek

Jesus ta zer egin eban oretarako?—37. Zer erantzun eban eriak?—38. Zer diñotse Pilat'ek?—39. Zer erantzun areik?—40. Zer diñotse Pilat'ek?—41. Geroago ta gogoñago deadar egiten ete eben?

ASTIÑALDIA TA ARANTZAZKO BURUNTZA

42. Ezer jadesten ez ebala ikusirik, zer egin ta zer agindu eban Pilat'ek?—43. Zelan zigortu eban Jesus?—44. Gero zer egin eutsoen?

LIX

JESUS GURUTZEAN

1. Gurutze astuna lepoan artuta Golgota-mendira (buruazur-mendira) abiau zan Jesus. Bidean Simon Kirenaitaía emon eutsoen gurutzea eroateko lagun, ez erukiz, aulen-aulez ilgo ete-zan bilduñez baño.

2. Mendira eldu zanean, miñaz ta beaztunez nastautako ardoa emon eutsoen, eta soñekoak erantzi ta gurutzean untzez josi eben.

3. Jesus'en aldamenetan lapur bi gurutzatu ebezan, bat eskumaldean, ezkerrekoan bestea.


4. Eri guztia egoan begira, ta Jesus'i iseka egin eutsoen, burua erabili ta esanaz: *Jaungoikoa'ren Semea ba-da, gurutzetik jatsi bedi ta siñistuko dogu, besteak gaizkatu ditu, bere burua gaizkatu begi.*

5. Baña Jesus'ek iseka egiten eutsoenen alde eskatu eutson Aitari esanaz: *Aita, azketsi egizuz, zer egiten daben ezta-kie-ta.*

6. Lapur bietatik batek Jesus'i esan eutson: *Jauna, gomutau zaite nitzaz zeure jaureñira ordukoxe: Jesus'ek erantzun eutson: Gaur bertan izango zara Neugaz atsetegian.*

7. Jesus'en gurutz-oñetan ziran bere Ama ta Yon ikasle maiteak. Jesus'ek bere Amari esan eutson: *Andra, oía or zure semea*. Gero ikasleari: *Oía or zure Ama*. Añezkero giza-seme guztiok, batez bere kistañak, Andra Mariaren seme gara.

8. Irurak aldean eguzkia ilundu zan, ta lur osoa ilunez



estali ta jauretxeko estalkia erdibitu zan. Jesus'ek deadañez esan eban: *Eli Eli, lamma sabathani?* au da: *Ene Jaungoikoa, ene Jaungoikoa, zergaitik itxi nozu?*

9. Gero, guztia amaitu zala-ta, idatzitakoa bete zedin esan eban: *Egari naz*. Ta an ziranetako batek, belakia ospiñez ase ta edaten emon eutson.

10. Jesus'ek ospiña artutakoan esan eban: *Guztia bete da.*

11. Ta ozengi ots egiñaz esan eban: *Aita, zure eskuetan izten dot nire gogoa.* Ta burua makurtuta azken-arnasa emon eban.

ITAUNAK

1. Gurutze astuna lepoan artuta noruntz abiau zan Jesus, ta nor ta zergaitik emon eutsen gurutzea eroateko laguna?—2. Mendira eldu zanean, zer emon eutsen edaten Jesus'i ta zer egin?—3. Nortzuk gurutzatu ebezan Jesus'en aldamenetan?—4. Begira egoan eñiak zer iñotson Jesus'i?—5. Zer eskatu eutson Jesus'ek Aitari iseka egioenen alde?—6. Zer esan eutson Jesus'i lapur bietatik bata, eta zer erantzun Jesus'ek?—7. Nortzuk ziran gurutz-oñetan eta zer esan eutsen Jesus'ek?—8. Zer jazo zan irurak aldean?—9. Gero, guztia amaitu zala-ta, idatzitakoa bete zedin, zer esan eban Jesus'ek?—10. Ospaña artutakoan zer esan eban Jesus'ek?—11. Ta ozengi itz egiñaz zer esan eban?

.....

Zer irakasten dausku laugarren siñiskayak?... Zer da biñerostea deritxon ezkutukia?... Zergaitik nai izan eban Jesukristok nekaldia igaro ta gurutzean il?... Jesukristo'ren neke-oñaze guztiak gü erosteko beañezkoak ete ziran?... Zergaitik artu nai izan eban Jesukristo'k ainbeste neke-oñaze?... Non eta noz il zan Jesukristo?

LX

OBIRATZEA

1. Uringo egunean jai aundia zala-ta, gorputz ilak gurutzean agertu etzeitez, ostiral aratsaldean gurutzean egozan lapur biai ister-azuñak ausi eutsez; Jesus'i bañiz gudari bateg aiztomakil edo lantzaz sayetsa uratu eutson.

2. Jose Arimaitaía ta Nikodemok, Yon deuna lagun ebe-

la, eratsi eben Jesus'en gorputza gurutzetik, eta Ama saminduak besarkatu ondoren, gantzutu ta miesaz lotu, ta Jose'k arkaitzean idigita eban ilobi bañian eortzi edo obiratu eben.

3. Biaramonean, Jesus'en arerioak Pilat'i esan eutsoen:



Jauna, guzurti arek «Iru egun baru biztuko naz» esan ebala gogoratu yaku. Zaintzaleak ipiñi egizuz, ba, ilobian, aren ikasleak etori, ta gorpua artu ta «Ilen artetik biztu da» esan ez dagien.

4. Pilat'ek erantzun eutsen: Or dozuez zaintzaleak, zoaze ta zaindu, dakizuen legez.

5. Joan ziran ba ta zaintzaleak ipiñi ebezan.

IKASBIDEA

Guztiokaitik il zan Jesukristo. Maite iazn, ainbesteraño maite gaituna.

ITAUNAK

1. Zer egin eutsen gurutzean egozan lapur biai ta Jesus'i ostiral añasaldean?—2. Nortzuk eratsi eben gurutzetik Jesus'en gorpua ta non obiratu?—3. Biaramonean zer iñotsen Pilat'i Jesus'en arerioak?—4. Zer erantzun Pilat'ek?—5. Iñobia jagoteko zaintzalerik ipiñi ete eben?

.....

Zein inpernutara jatsi zan Jesukristo eriotz ostean?... Zetarako jatsi zan Jesukristo zintzoen linbora?... Zelan jatsi zan Jesukristo zintzoen linbora?... Zelan gelditu zan il-ta gero Jesukristo'ren gorputza?

LXI

JESUS'EN BIZKUNDEA

1. Il-ta irugañen egunean, igande goizean goiz, Jesus bañiro biztu zan.

2. Jaunaren aingerua zerutik jatsi zan, eta luñari ikara eragiñaz, iñobiko aña irauli ta bere gañean jezañi zan. Aren arpegiak tximista zirudian eta aren soñekoa eduña baizen zuri zan.

3. Zaintzaleak aingeruaren bilduñez lañi-ikaraz ta ilda legez gelditu ziran.

4. Biztu ezkeroz, lenengo-lenengo bere Amari agertu yakon Jesus. Gero, Pedro deunari, uñengo emakumeai, ondo-ren Emaus'era joyezan ikasle biai ta igande-iluntzi atan, juduen bilduñez ateak ondo itxita, etxe bañuan egozan ikasleai.

5. Erdian jañita *Gentza edo bakea zuei* esan eutsen Jesus'ek. Eta au esandakoan, eskua ta sayetsa erakutsi eutsezan.
6. Ikasleak Jauna ikusita poztu ziran.
7. Bañero esan eutsen Jesus'ek: *Gentza zuei. Aitak bialdu*



nindun legez, *Nik be bialtzen zaituet.* Au esanda arnasa bota eutsen esanaz: *Goteun edo Espiritu Santua artu egizue.* Zuek obenak parkatzen dautsezuezanai, parkatuko yakez, ta zuek lotuten dautsezuezanai, lotuko yakez.

8. Areitako bat, Toma Didimo eritxona ez zan bere lagunakaz Jesus agertu yakenean. Ikaskideak esan eutsoen: *Jauna ikusi dogu.* Baña Toma'k erantzun eban: *Jesus'en eskuetan*

untze-uratuak neuk ikusi, ta neure atzamaña untze-zuloetan, eta nire eskua bere sayetsean sartzen ez ba-dautsat, eztoz siñistuko.

9. Zortzi egun bañu, bañiro agertu yaken Jesus ta esan



eutsen: *Gentza zuei. Gero Toma'ri diñotso: Ekatzu ona zure atzamar ori, ta ikusi nire eskuok, ta ekatzu esku ori ta nire sayetsean sartu, ta ez izan siñisgogor, siñestun baño.*

10. Toma'k erantzun eta esan eutson:

Ene Jauna, ta ene Jaungoikoa.

11. Jesus'ek esan eutson: *Ikusi nozulako siñistu dozu. Zorionekoak ikusteke siñisten dabenak.*

12. Berogei egun buruan egon zan Jesus biztuta gero gizartean, eta ainbat bider agertu yaken ikasleai ta euren egikizunak betetako jakin bear ebena irakatsi eutsen.

IKASBIDEA

Jesus'en biztueran poztu; orain bere antzeko izaten ba-gara, bere antzera biztu be egingo gara-ta.

ITAUNAK

1. Jesus il-ta noz biztu zan?—2. Nor jatsi zan zerutik eta zer egin eban?—3. Zaintzaleak bildurtu ete ziran?—4. Biztu ezkeroz nortzuei agertu yaken Jesus?—5. Erdian jařita zer esan eutsen ikasleai?—6. Poztu ete ziran ikasleak Jauna ikusita?—7. Zer esan eutsen bařiro Jesus'ek?—8. Areitako zein ez zan lagunekaz eta zer erantzun eban Jauna ikusi ebela esan eutsoenean?—9. Zortzi egun bařu agertuta, zer esan eutson Toma'ri?—10. Zer erantzun Toma'k?—11. Zer esan Jesus'ek?—12. Zeinbat egunetan egon zan Jesus biztuta gero gizartean?

.....
Zelan berbiztu zan Jesukristo irugařen egunean?... Jesukristo berbiztu zala zelan dakigu?...

LXII

ZERUETARA IGOKUNDEA

1. Īlen artetik biztuta beřogeigařen egunean agertu yaken azkenez Jesus amaika ikasleai ta esan eutsen: *Zeru-luřetan eskubide osoa emon yat. Zoaze, ba, ta, eři guztiai irakatsi, Aitaren ta Semearen ta Espiritu Santu edo Goteunaren izenez bateatu egizuez, ta Nik agindutako guztia betetan irakatsi. Ona emen, Ni zuekaz nago munduaren amayeraño. Siñistu ta bateoa artzen dauana gaizkatuko da, siñisten eztauana bařiz, galduko da.*

2. Gero Oliamendira batu ziran Jesus'en Ama, Bialduak eta bosteunen bat ikasle.

3. Azken-aguřa egin eutsen Jesus'ek bere Ama maiteari ta an ziran ikasle gustiai, ta onesten ebazala, bere alez ta indařez asi zan polito-polito goruntz igoten.

4. Jesus'i begira-begira egozala aingeru bi soņeko zuriz

agertu yakezan eta esan eutsen: *Galilaitarok, zetan zagoze emen goruntz begira? Goruntz igoten ikusi dozuen Jesus au, zeruratzen ikusi dozuen legez etori be datorke.*

5. Orduan ikasleak Jerusalem'era jatsi ziran, eta Jesus'en



Ama Mari ta enparau senideakaz, gogo batez, otoiketan ziar-
duen.

6. Jesus zeruratu ordukoxe, aingeruak aurkeztu jakozan, eta jauretsi eben. Eta Aita Jaungoikoak bere eskumaldian jezañi eban.

IKASBIDEA

Eredu ta ikasbide dogu kistañok Jesus'en bizitza. Berak legez beti-beti Aita Jaungoikoak nai dauana egin beaña dogu.

ITAUNAK

1. Noz agertu yaken azkenez Jesus amaika ikasleai ta zer esan eutsen?
- 2. Non batu ziran gero Jesus'en Ama, Bialdu ta bosteunen bat ikasle?
- 3. Azken-aguía egin ondoren zer egin eban Jesus'ek?—4. Jesus'i begira -begira egozala nortzuk aurkeztu yakezan eta zer esan eutsen?—5. Nora jatsi ziran orduan ikasleak eta zetan ziarden?—6. Jesus zeruratu ordukoze zer egin eben aingeruak eta non jezañi eban Jesus Aita Jaungoikoak?

.....
Zelan igon zan Jesus zeruetara?... Jesukristo zeruan baño ez ete dago? Zer esan nai dau Aita Jaungoikoaren eskumaldean jezañita egoteak?...

LXIII


ESPIRITU SANTUAREN ETORKUNDEA

1. Jesus zeruetara igon ezkeroko bederatzi egunak, apal-tegian, otoiketari eta beste gogo-jardun batzuetan igaro ebezan Apostolu ta ikasleak.

MATIA, JUDAREN ORDEZ

2. Eun eta ogeiren bat senide batuta egozala, Kepa'k, erdian jaikita, esan eutsen: *Senideok, Juda, bere burua eskegita, lertu egin zala, erayak zabalduz, ba-dakizue. «Egoki da, beraz, Jesus Jauna bizi zala geugaz ibili ziranetatik norbait aukeratzea, geugaz batera Jesus'en bizkundera autortu dagian».*

3. Eta bi aurkeztu ebezan; Barnaba ta Matia. Ta otoi-egiñaz iñoen: *Guztien biotzak ezagun dituzun Jaun orek, erakutsi egiguzu biotatik zein aukeratu dozun bialduen lanbide au artzeko. Ta zotz-eginda, Matia geratu zan Juda'ren orderako.*



GOTEUNA ETORKUNDEA

4, Amargañenean, Pentekoste egunez, aize indartsuarena lako durundua bat-batera sortu ta etxe osoa bete eban. Eta suaren antzeko miñak ikusi ebezan bakoitzaren burugañean banandu ta kokatzen.

5. Eta guztiak Espiritu Santuaz bete ziran, eta atzeñitañ-

en izkuntzez itz-egiten asi ziran, Goteunak itz-eragiñez.

6. Baster guztietatik eldutako lagun jaungoikozale asko zan Jerusalem'en. Durundua entzun ebenean, piloka batu ziran etxe inguruan, eta ańituta gelditzen ziran, bakoitzak bere izkuntzez itz egiten entzunaz.

7. Ańiturik ińoen, ba: *Itz egiten daben guztiok galilaitarak ez ete dira? Zelan, ba, guk, bakoitzak jayotzez dakigun izkuntzan entzuten dautsegu? .. Zer da au?*

8. Baziran, ońatińo, *ardaaz aseta dagoz ońeik, isekaz ińoenak.*

9. Orduan Kepa'k itz egin eutsen esanaz: *Ez dagoz oneik mozkortuta zuek uste dozuenez, goizeko bederatzirak bańo ez dira-ta. Zuek gurutzean josi ta il dozuen Jesus, Jaungoiko-Semea, biztu da ta Berak bialdu dausku Goteuna, Joel iqarleak iragarńi ebanez.*

10. Kepa'ren itzaldiaz biotzez damutu ziran ta Belduai ińotsen: *Zer egin bear dogu, anayok?*

11. Kepa'k erantzun eutsen: *Garbatu zaitze, eta obenak parkatzeko, zuetariko bakoitzak ugutza edo bateoa Jesus'en izenean artu begi, ta Espiritu Santua jaritxiko dozue emaritzat.*

13. Iruren bat milek ugutza artu eben egun areitan.

IKASBIDEA

Zure biotza garbi zaindu, Espiritu Santuaren etxe dozu-ta.

ITAUNAK

1. Non eta zetan igaro ebezan Apostolu ta ikasleak, Jesus zeruetara igon ezkeroko bederatzi egunak?—2. Eun eta ogeiren bat senide batuta egozala, zer esan eutsen Kepa'k?—3. Nortzuk aurkeztu ta nor geratu zan Juda'ren ordezt?—4. Zer jazo zan amargańen egunean?—5. Espiritu Santuaz bete ete ziran guztiak?—6. Lagun asko ete zan Jerusalem'en eta etxe-inguruan batu ete ziran?—7. Zer ińoen ańiturik?—8. Isekaz zerbait esa-

ten ebanik ba-ete zan?—9. Zer esan eutsen, orduan, Kepa'k?—10. Kepa' ren itzaldiaz biotzez damututa, zer iñotsen Belduai?—11. Zer erantzun Kepa'k?—12. Zeinbatek artu eben ugutza?

.....

Nor da Espiaitu Santua?... Zer egiten dau Espiritu Santuak zintzoen arimetan? Zeintzuk dira Espiritu Santuaren emaitzak?... Zeintzuk dira Espiritu Santuaren arnariak?... Zeintzuk dira zeruratzeko sakramenturik beaíenak?... Norentzat dira beaíezkoak Bateoa ta Autortza?... Kristiñau zelan egiten gara?

ELEIZAREN ZABALGUNDEA

KEPA'K ERENA SENDOTU

1. Jauretxera igon ziran bein Kepa ta Yon bederatziretarako otoi-aldira. Ta oía, lagunak bizkaíean ekaíen, jayotzez érena zan gizon bat. «Edeía» eritxon atondoan jarten eben egunero, gizajoa, andik sartzen ziranai zerbait eskatzeko.

2. Kepa ta Yon sartzerakoan, ukartxo bat eskatu eutsen. Kepa'k esan eutson: *Begira geuri*. Begira-begira jaíi zan, zerbait artuko ebalakoan, baña Kepa'k ba-diñotso: *Ara, urerik ez zidaírik ez daukat: baña daukadana damotzut. Jesus Nazaretaíaren izenean jagi ta zabiltz*. Ta eskutik eldu ta eregi eban gizona. Ta pozaíen jauzika sartu zan jauretxean, Jaungoikoa onetsi ta goratuz.

3. Eíi osoak ezagutzen eban «Ate Eder» ondoan egoten zan eskalea, ta ibilten ikusi ebenean, aítu ta txundituta gelditu ziran.

4. Orduan Kepa'k itz-artuta esan eutsen: *Israeldarok,*

¿zergaitik zagoze oretzaz ariturik eta guri begira, geure indar ta erukiz gizon au ibildun egin dogulakoan? Gure arbasoen Jaungoikoa'k, Jesus, bere Semea goratu dau, zuek arerioen eskuetan ipiñi ta Pilat'en aurean ukatu zenduena, zuek zapuztu ta il zenduen Jesus. Jaungoikoa'k ilen



artetik berbiztu dau. Ta zuek ikusi ta ezagutzen dozuen gizon au, Jesus'en izenak sendotu dau. Ba-dakit, bai, senideok, zuek, jakiteke, gurutzeratu dozuena Jaungoikoa'k Igortzia. Damutu zaitetze, beraz, ta oneratu zaitetze, zuen obenak parkatu dagitzuezan.

5. Itzaldi onek eraginda, bosten bat mile kistartu ziran.

KEPA TA YON BATZAR NAGOSI AUÑEAN

6. Eñiari itz egiten egozala, jaupari ta jauretxe-zaintzalea ta sadukaitarak asare goñian etoñi ziran eta giltzapean sartu ebezan.

7. Biaramonean, Batzar erdian ipiñi ta esan eutsen: *Zein eskubidez, ala noren izenez egin dozue ori?*

8. Kepa'k, Goteunez beterik, erantzun eutsen: *Zuek gurutatu ta Jaungoikoa'k ilen artetik biztutako Jesukristo Nazaretararen izenean osasundun dago gizon ori zuen aurrean. Eta beste inorgan ez dago osabiderik Jesus'egan baño.*

9. Ta batzaretik alde eraginda, euren artean eragoyoen esanaz: *Gizon onei buruz, zer egingo ete dogu? Agiri-agirian dago, ba, oneik egindako alatza, Jerusalem guztiak daki ta ezin ukatu gengike. Oraitiño, jazotakoa geroago ta jakiñago ta zabalago egin ez daiten, Jesus'en izenik ez aitatu, ta Aren izenez itzik be ez egiteko aginduko dautsegu.*

10. Beraz biak deitu ta Jesus'en izenez ezer ez esan, ez irakasteko agindu eutsen.

11. Baña Kepa ta Yon'ek erantzun eutsen: *Zeuek ikusi, zuen. esanetara ala Jaungoikoa'ren esanetara jartea bidezkoago ete yakun. Geuk ikusi ta entzun dogunik ezin isilean euki gengike-ta.*

12. Ezer egiten ez ziran asartu ta jarei edo libre bialdu ebezan.

LENENGO SIÑESTUNEN BATASUNA TA ALKAR-MAITASUNA

13. Oso maite eben alkar lenengo kistarak: gogo ta biotzez bat ziran; batera otoi-egin; batera jaunartu; inork ez eban berenik; guztia, guztientzako. Arein artean ez zan txiro

edo pobrerik. Eben guztia saltzen eben, eta ordaña Bialduen eskuetan ipiñi; ta andik, bakoitzari bear aña emoten yakon.

ANANI TA SAPIR

14. Anani eritxon batek, Sapis bere emazteagaz itunduta, landa saldu eban, eta ordañetik zerbait ostendurik, enparaia ekañi ta Apostoluen oñetan ipiñi eban.

15. Kepa'k esan eutson: *Anani, zelan artu dautzu biotza Satan'ek, Goteunari guzur-egiñaz, landa-saritik zati bat ostendu dozu -ta? Zeurea ez ete zan, ba, landa? Ta salduta gero be, ordaña zeure eskuetan ez ete zeunkan? ¿Zergaitik erabagi dozu, ba, orrelakorik zure biotzean? Ez dautsezu gizonai guzur-egin, Jaungoikoa'ri baño.*

16. Itzok adituta, Anani bertantxe jausi ta il egin zan.

17. Iruren bat ordu geroago, aren emaztea be sartu zan, jazo zanik jakiteke. Kepa'k itandu eutson: *Esaidazu, onenbestean saldu ete dozue landa?—Bai, orixenbestean, erantzun eutson emakumeak.*

18. Orduan Kepa'k esan eutson: *Zer dala-ta itundu zarie Jaungoikoa'ren Gogoari guzur egiteko? Ora ate ondoan zure senara eortzi edo obiratu dabenen oiñak. Zeu be eroango zaitue. Ta bertantxe jausi ta il zan. Eta bere senara eortzi eben gasteak artu ta senararen ondoan eortzi eben. Eta bai Eleiz osoan, bai jazo-takoa entzun eben guztiekan be, bildur aundia sortu zan.*

IKASBIDEA

«Ni gizonen aurrean autortuko nauana, baita Neuk be nire Aitarean aurrean autortuko dot; Ni gizonen aurrean ukatuko nauana, bari, Jaungoikoa'ren aurrean ukatua izango da».
—Agindu bari damotzuet: alkar maite izan egizue. Nik maite izan zaituedan legez, zuek be alkar maite izan. Orerantxe

igariako dabe guztiak nire ikasle zariela.—Jaungoikoa'ri ez guzuri egin. Zintzo ta lau ibili Jaungoikoagazko eginkizunetan.

ITAUNAK

1. Jauretxera igon ziranean bein Kepa ta Yon, nor ta zelan ekañi eben, eta non eta zertarako jarten eben?—2. Zer esan eutson Kepa'k?—3. Eñi osoak ezagutzen ete eban eñena ta añituta gelditu ete ziran ibiltan ikusi ebenean?—4. Orduan Kepa'k itz-artuta, zer esan eutsen?—5. Itzaldi onek eraginda, zeinbat kistartu ziran?—6. Eñiari itz-egiten egozala, nortzuk etoñi ta zer egin eutsen?—7. Biaramonean, zer egin eutsen?—8. Zer erantzun Kepa'k?—9. Batzañetik alde eraginda, zetan eragoyoen euren artean?—10. Biak deituta, zer agindu eutsen?—11. Zer erantzun Kepa ta Yon'ek?—12. Ezer egiten asartu ete ziran?—13. Oso maite ete eben alkar lenengo kistañak?—14. Zer egin eban Anani eritxon batek?—15. Zer esan eutson Kepa'k?—16. Itzok adituta, zer jazo yakon Anani'ri?—17. Iruren bat ordu geroago, zer itandu eutson Kepa'k aren emazteari?—18. Zer esan Kepa'k eta zer jazo zan?

.....

Jesus-izenak zer esan nai dau?... Zelan gaizkatu ginduzen Jesus'ek?... Kristo-izenak zer esan nai dau?... Zegaz izan zan igortzia Kristo?... Don-austea zer ete da?... Zein da Jaungoikoa'ren Legeko zortzigañen agindua?... Zer agintzen dausku zortzigañen aginduak?... Zer eragozten dausku zortzigañen aginduak?... Guzuña zer da?

LXV

ESPETXEAN BAÑIRO

1. Ikasleak ereiten eben azia garatuaz joyan. Gizon eta emakume, piloka, etorzan Apostoluen itzaldi ta alatz ta añañiak bide zirala. Kepa'ren entzutea, batez bere, aundia zan. Eñiak zeyetara atera, ta zeñaldo ta oyetan ipintan ebazan ge-

xoak Kepa eto'neneko, aren kerixa edo itzalak bederen ikututa osatu eitezan.

2. Jaupari nagosi ta arein alderdikoak, bekaizkeriz e'eta, jagi ziran, eta e'riko baitegian sartu ebezan.

3. Baña Jauna'ren aingeruak baitegiko ateak zabaldu ta atera ebazan esanaz: *Zoaze jauretxera ta Kristo'ren irakatsiak e'riari azaldu.*

4. Jaupari ta za'arak batza'rean batu ziran eta Bialduen eske mo'oyak bialdu ebezan. Baña baitegian ez zan iñor.

5. Orduan jauretxera joan-da, batza'era eka'ri ebezan. Eldu ordukoxe, jaupari-buruak esan eutsen: *Jesus'en izenez ez irakasteko agindu geuntzugun, eta zo'ozki agindu be gero, ta o'ra, zuen irakasketaz Jerusalem bete dozue.*

6. Baña Kepa'k eta Bialduak erantzun eutsen: *Gizonen esanak egitea baño Jaungoikoa'renak egitea bidezkoago dogu.*

7. Erantzun onez e'eta, Bialduak ilteko asmoa erabilen.

8. Baña Gamaliel eritxon gizon jakitun eta itzaltsuak, Bialduak batza'etik aterazo ta esan eutsen: *Gizon o'ei bakean itxiyozue. Asmo ta ekiñaldi au gizonakandikoa ba-da, berez suntsitu ta ezereztuko da, Jaungoikoa'gandikoa ba-da, ba'riz, ezin bi'indu izango dozue, zuen buruak Jaungoikoa'ren arerio agertu bage.*

9. Eretxi au ontzat artu eban Batza'arak, eta Apostoluak zigorkatu, ta Jesus izenez ez irakasteko aginduz, bialdu ebezan

10. Bialduak, ba'riz, Jesus'en izenagaitik irainga'ri aurkitu zirala-ta, pozik atera ziran batza'etik.

SASPI DIAKONOAK

11. Txiro ta beartsuen mai-ardurea izateko, saspi diakono aukeratu ebezan, Goteunez ta senaz beteriko gizonak.

12. Saspi onetatik bat zan Esteban. Jakituna ta adoret-sua zan Esteban, eta eskar ta indaéz beterik alatz eta ariñgari asko egin eroyazan erian.



LENENGO MARTIRIA

13. Biraolaritzat salatu eben judatar batzuk, eta eria, ta zar, ta idazlariak aizetu, ta Batzañera eroan eben.

14. An autorle guzurti batzuk esan eben: *Gizon au ez da jauretxe ta Legearen aurka itz-egitez inoiz be aspertzen*

15. Jaupari nagosiak esan eutson: *Ori orela ete da? Ta ba-*

tzaíreko guztiak berari begira-begira jaírita, aingeruena lakoxe arpegia ikusi eutsoen.

16. Esteban'ek, Jesus zala, Jaungoikoa'k Mois'i agindutako Igarle aundia erakutsi eutsen. *Baña zuek, lepogogor ta biotz ta belari erdaindu bageok, Goteuna'ri gogor dagiozue. Zuen asabak legez zuek be. Zein igarle ez eben ezetsi zuen asabak?*

17. Au entzunda, arein biotzak igertu beárez ta agiñak kařaskadaka, asi ziran aren aurka.

18. Esteban'ek, bařiz, goiruntz begira, iñotsen: *Zerua zabalik dakust, ta Jaungoikoa'ren eskumaldean Gizasemea zutunik.*

19. Orduan, belariak itxi ta gařazika asi ziran, eta eřitik atera, ta ařika erail eben.

20. Ařika egioenen txabusak, bařiz, Saul eritxon gasteak zaintzen ebazan.

21. Esteban'ek, belaunikoturik, ozengi deadar egin eban esanaz: *Jauna, ez egiezu oben au ezari.*

IKASBIDEA

Jesus'en alde gogor jokutzen dabena, garaitzale izango dira.

ITAUNAK

1. Ikasleak ereiten eben azia garatuaz ete joyan eta zer egiten eben gexoakaz?—2. Jaupari nagosi ta arein alderdikoak, bekaizkeriz eřeta, zer egin eben?—3. Nok atera ebazan baitegitik?—4. Batzařean batu ete ziran eta iñor idoro ete eben baitegian?—5. Non idoro ta eldu ordukoxe zer esan eutsen jaupari-buruak?—6. Zer erantzun Kepa ta Bialduak?—7. Erantzun onez eřeta, zer asmo erabilen?—8. Zer esan Gamaliel'ek?—9. Ontzat artu ete eben eretxi au ta zer egin?—10. Pozik atera ete ziran batzařetik Bialduak eta zergaitik?—11. Txiro ta beartsuen maiardurea izateko, nortzuk aukeratu ebezan?—12. Saspí oneitatik bat, nor zan?—13.

Biraolaritzat salatu ta nora eroan eben?—14. Zer esan eben an autorle guzurti batzuk?—15. Zer esan eutson jaupari nagosiak?—16. Zer erakutsi Esteban'ek?—17. Au entzunda, zelan asi ziran aren aurka?—18. Esteban'ek goiruntz begira, zer iñotsen?—19. Orduan, zer egin eben?—20. Nok zaintzen ebazan arika egioenen txabusak?—21. Esteban'ek belaunikoturik, ozengi deadar eginda, zer esan eban?

.....

Zetarako da abadegintza deritxon sakramentua?... Eleizearen ordezkoi itzal eta lotsa izan bear ete yake?... Zergaitik izan bear yake lotsa ta itzal aundia, abade ta gañerako eleizgizonai?... Noiz ez dogu zařago ta nagosiagoen agindurik egin bear?... Zeri deritxo guzuzeko testigantzea?... Zer da guzuzeko salakuntzea?... Zer eskatzen dozu «parkatu eiguzuz gure zořak, geuk gure zordunai parkatzen dautseguzan legez» esatean?... Zer besterik agintzen dausku boskařen aginduak?

LVVI

ELEIZAREN JAZARPENA EDO PERSEKUZIÑOIA

1. Esteban deuna il eben egun atan bertan, jazaři gogořa sortu zan Eleizaren aurka, eta ego-aizeak orbela legez zabaldu ta bařeyatu ebezan ikasleak ara-ta ořa.

2. Pilipe Samari'n zan eta ara joan ziran Kepa ta Yon be. Samari'tařak gogo onez entzun eben Jaungoikoa'ren itza ta asko kistartu ziran. Kepa ta Yon'ek eskuak ezaři ta Goteun edo Espiritu Santua artzen eben.

3. Bitartean, Jauna'ren aingeruak Pilipe'ri itz-egin eta esan eutson: *Jagi ta zoaz egoalderuntz, Jerusalem'dik Gaza'ra jasten dan bidera.*

4. Jerusalem'go elizkizunetara etoři zan Etiopi'ko eřegiñaren diruzaiña, burdian jezařita, Isai igarlea irakurten etořen.

5. Burdira elduki, Pilipe'k esan eutson: *Irakurten dozun ori, ulertzen dozu ala?*

6. —*Zelan ulertu, norbaitek azaltzen ezpa-daust?* erantzun eutson Pilipe'ri.

7. Orduan Pilipe'k Idazti Deuna 'k Jesus'etzaz iñona azaldu eutson. Onetan iturri batera eldu ziran eta diruzaiñak esan eutson Pilipe'ri: *Ora or ura. Uguzpen edo bateoa ezerk eragozten*



ete daust?—*Biotz-biotzez siñisten ba-dozu, ezerk bere ez, erantzun eutson Pilipe'k.*—*Jesukristo, Jaungoikoa'ren Seme dala siñisten dot, ba, erantzun eutson aundikiak. Eta burditik jatsi ta ugutzau edo bateatu eban.*

8. Orduan, Jauna'ren Gogoak Pilipe eroan eban eta ez eban aundikiak arenik ikusi.

SAUL'EN ONERATZEA

9. Eleiztañen goñotoz Damasko'ra joyan Saul, ango kistar guztiak, gizon naiz emakume, lotu ta Jerusalem'era ekarteko asmoz.

10. Uri ondora eldu zanean, bapatera argi bizi-bizi ta

istatsuz inguraturik aurkitu zan, eta lur-jota, abots ezezauna entzun eban berari esaten: *Saul, zergaitik esesten nozu?*

11. Saul'ek erantzun eutson: *Nor zaitut, Jaunoi?*

12. —*Zuk esesten dozun Jesus naz Ni. Eztenari ostikoka ekitea gogor yatzu.*



13. Saul'ek ikaraz ta izuriturik erantzun eutson: *Jauna, zer nai dozu dagian?*

14. Jauna'k berari: *Jagi ta urian sartu, ta zer egin bear dozun esango dautzue.*

15. Saul jagi zan, baña

begiak idigiañen, ezer ez eban ikusten. Eskutik elduta eroan eben, ba, Damasko'ra. Ta iru egunean egon zan ezer ez ikusi, ez jan, ez edaten ebala.

16. Anani eritxon ikasle bat zan Damasko'n. Oni Jauna'k irudipenez esan eutson: *Anani, zoaz Zuzena deritxon kalera, ta Tarso'tar Saul'egaitik itandu, ta eskua ezañi ta ikustun egizu.*

17. Anani'k erantzun eutson: *Jauna, askoi entzunda nago, zeinbat kalte egin izan dautsen gizon oñek Jerusalem'go zure deunai.*

18. Baña Jauna'k esan eutson: *Zoaz, orixe dot nire izena, atzeñi, nagosi ta Israelgo semeai eroateko langile autua-ta.*

19. Orduan Anani, Saul'enera joan-da, eskuak ezañi eutsozan esanaz: *Saul, ene anai: Onuntzko bidean ikusi dozun Jesus*

Jauna'k bialduta natorkizu, ikustun egin eta Goteunez bete zaitzan.

20. Ta bertantxe bere begietatik ezkata edo alako zerbaitzuk jausi yakozan, eta bañiro ikusten asi zan; eta jaiki ta ugutzau edo bateatu eban.

21. Geroztik, Jesukristo'ren Apostolu ta maitalerik sutsuena izan zan Saul, ta bai itzez, bai idazkiz, alde guztietan zabaldu ebazan Jesus'en irakatsiak.

IKASBIDEA

Saíi be saíi esan Jauna'ri: Jauna, zer nai dozu dagidan?

ITAUNAK

1. Esteban deuna il eben egun atan bertan, zer sortu zan Eleizaren aurka?—2. Nora joan ziran Kepa ta Yon eta zer egin eben Samari'n?—3. Bitartean, nok itz-egin eta zer esan eutson Pilipe'ri?—4. Nora eta zetan joyan Etiopi'ko e'egiñaren diruzaiña?—5. Burdira elduki, zer esan eutson Pilipe'k?—6. Zer erantzun aundikiak?—7. Orduan Pilipe'k Idazti Deuna azaldu ta zer egin eban?—8. Jauna'ren Gogoak eroan ete eban Pilipe?—9. Nora ta zer asmoz joyan Saul?—10. Uri ondora eldu zanean, zer jazo yakon?—11. Zer erantzun eutson Saul'ek?—12. Zer Jauna'k?—13. Zer esan Saul'ek ikaraz ta izuturik?—14. Zer Jauna'k berari?—15. Itsututa geratu ete zan Saul?—16. Nor zan Damasko'n eta zer esan eutson oni Jauna'k?—17. Zer erantzun Anani'k?—18. Zer Jauna'k?—19. Zer egin eban orduan Anani'k?—20. Zertzuk jausi yakozan begietatik eta ugutzau ete eban?—21. Geroztik, Jesus'en Apostolu ta maitalerik sutsuena izan ete zan Saul?

.....

Zetarako da sendatza?... Zelan artu bear da sendatza?... Zer egin bear dau, beraz, oben astunean dagonak sendatza artzeko?... Zer da maitasundamua? Zeintzuk sakramentu dira bein baño ezin artu daitekezanak?... Zergaitik ez dira bateoa, sendatza ta abadegintza bein baño artzen?

LXVII

KEPA, ESPETXEAN

1. Jaungoikoagazko maitasun-garrik eraginda, Apostolu ta ikasleak baster guztiak arakatzen ebezan Jesus'en irakatsiak zabaltzen.

2. Aldi atan, Erode eregeak esku latza erabilan Eleiztar batzuen kaltez. Jakob, Yon'en anaya, ezpataz il eban. Eta juduai eder egitearen, Kepa be lotu ta espetxean sartu eban, Paska-ondoan eñari aurkeztuteko asmoz. Launa gudamutileko lau talde ipiñi ebazan Kepa zaintzen.

3. Gudamutil bien erdian, kate bigaz loturik, lotan etzala, Jauna'ren aingeruak, espetxe-bařua argituz, sayetsean jo ta iratzartu eban esanz: *Jagi bizkor*. Eskuetako kateak ausi yakoan eta aingeruak esan eutson: *Geria lotu ta oñetakoak jantzi. Soinganekoa ezari ta jaraitu egidazu*. Aingeruaren atzetik urten zan, beraz. Baña burutantziñoa zalakoan egoan Kepa. Lenengo ta bigaren zain-taldea itxi ta burdiñezko atera eldu ziran. Ate ař berez idigi yaken. Kale bat igaro ezkerro, aingeruak bapatera alde egin eutson. Orduan Kepa'k bere kautan sartuta, esan eban: *Oraintxe, bai, ziñez ezagutzen dot, Jaungoikoa'k bere aingerua bialdu ta Erode'ren eskuetatik atara nauala*.

4. Markos deunaren amarenera joan zan. Lagun asko batu zan etxe onetan eta Kepa'ren alde otoi-egiten ziarduen. Kepa'k atea jo ebanean, mirabea joan zan atera, ta Kepa'ren abotsa ezagututa, pozařen, aterik zabaltzeke, bařura biurtu zan. *Kepa dago atetan*, esan eutsen. *Burutik zagoz zu*, erantzun eutsoen bařukoak: *Aren aingerua izango da*. Bitartean Kepa'k atea jo-ta-jo ziarduan. Idigi eutsoenean, ařitu ziran. Baña

Kepa'k kiñu-eginda ixildu-azo ebazan eta jazo yakon guztia esan eutsen. Eta andik urten-da bestiekana joan zan.

5. Eguna zabaldu ebanean igudamutilen laña, Kepa'ri zer egin ete yakon! Erodek, aurkitu ez ebenean, gudamutilak erail ebazan.

6. Baña laster zigortu eban bera be Jauna'k. Judai'ko Kaisarai'n zala, eñari itz egiten eragoyon, eta eñiak, zurikeriz, oyuka iñoan: *Jaungoikoa'ren mintzoa da au, ez gizonarena.*

7. Baña Jaungoikoa'ri zor yakon aintza biurtzen ez eutso-lako, Jauna'ren aingeruak bapatera jo ta añak iruntsita, il zan.

JERUSALEN'GO ELEIZ BATZAÑA

8. Mois'en Lege guztiak zaindu bear ete ziran ala ez, ezpaya sortu zan lenengo kistañen artean.

9. Auzi au erabagiteko, Jerusalemen batu ziran Apostoluak. Kepa'k Apostolu guztien Buru ta Jesukristo'ren oñordeko legez, itz egin eban, eta erabagi auxe artu eben: *Goteunak eta guk deritxogu, noraezeko onixek baño beste zamarik zuei ez ezartea: jainkoizunai eskiñitakoetatik, odoletik, itotik eta izorkeri edo aragikeritik alde egin dagizuela.*

10. Batzar onetan atondu ei eben Apostoluak «Kredoa» edo siñismen-agiria.

KEPA TA PAUL'EN ERIOTZA

11. Antioki'n bizi izan zan aldi baten Kepa deuna. Uri onetan ezañi eutsen lenengoz «kistar-izena», Jesus'en jañaitzaleai. Gero, Eñoma'ra etoñi zan eta ogei ta bost urtetan, emen, Eleizaren Buru izan ezkeroz, Neron'en erasoaldian, buruzbera gurutzean josita il eben, Jesus'ek iragañi eutsonez. Buruz

bera jostea berak eskatu eban, Jesus'en antzera gurutzean buruz-gora josita ilteko nor ez zalako.

12. Ibiliak-ibili egin ondoren, Paul be, lotuta Eroma'ra ekañi eben. Urte bi geroago, Kepa deuna gurutzatu eben egunean bertan, burua moztu eutsen, 65'gañen urtean.

IKASBIDEA

Jesukristo'ren alde oñen zintzo jokatu eben Bialdu oneik; zuk zelan jokatzen dozu?

ITAUNAK

1. Jaungoikoagazko maitasun-gañak eraginda, zer egin eben Apostolu ta ikasleak?—2. Aldi atan, esku latza ete erabilan Erode eñegek eta zer egin eban?—3. Gudari bien erdian lotan etzala, zer jazo yakon Kepa'ri?—4. Norenera joan zan eta atetan egoala zer jazo?—5. Eguna zabaldu ebanean, lañi ete ziran gudamutilak eta zer egin eban Erode'k?—6. Laster zigortu ete eban bera be Jauna'k?—7. Zergaitik jo eban Erode ta zelan Jauna'ren aingeruak?—8. Zer ezpai sortu zan lenengo kistañen artean?—9. Non batu ziran auzi au erabagiteko ta zer asmo artu eben?—10. Batzar onetan atondu ete eben Apostoluak siñismen-agiria?—11. Non bizi izan zan aldi baten Kepa deuna ta nora jo ta non il zan?—12. Ibili ta ibili egin ondoren, nora ekañi eben Paul ta zelan il zan?

.....

Siñiskitza zer da?... Zetarako esaten dozu Kredoa?... Zegaitik siñisten dozu ori ta siñismenak irakasten dauskun gañerako guztia?... Eta zegaitik siñisten dozu Eleizak irakasten dauskun guztia?... Eleizea zer da?... Eromako Aita Santua nor da?... Eromako Aitaren esanak egitera bearturik ete gagoz?... Eromako Aitari siñistera beartuak ete gagoz?... Zetan da uts-eziña Eromako Aita?... Eromako Aitaren uñengo Jaungoikoa'ren aginduz, nori zor dautsaguz itzal ta menbetasuna?... Zer dira Gotzañak?... Nortzuk laguntzen dautse Gotzañai arimak zaintzeko egikizunean?

ELEIZAREN ARERIOAK

1. Bitarikoak izan dira Eleizaren arerioak: batzuk agintariak, besteak siñausleak.
2. Lenengo iru gizaldietan, batez bere, gogor jazarkatu ta eraso eben Eleiza agintariak.
3. Amar doguz jazarkun edo erasoaldiak: Lenengo jazar-tzalea ta zakañenatarikoa Nero izan zan. Bigařena, Domitzian. Irugařena, Trayano. Laugařena, Marko Andoni. Boskařena, Seber. Seigařena, Maximin. Saspigařena, Deki. Zortzigařena, Balerian. Bederatzigařena, Aurelian. Amargařena ta gogořen-gogořena, Duklen. Amar eraso-aldi oneitan, zenbatu ezin ala kistařek emon eben bizia siñismen alde. Amazortzi miloitik gora dira, gizaldiz zier, Jesukristo'ren siñismena autortzeařen, odola izuri izan dabenak.
4. 312'gařen urtean, Konstantin Nagosia jabetu zan Eřo-mako agintaritzaz. Gudaketan ziarduala, lañoetan gurutzea agertu ei yakon esakun onegaz: *In hoc signo vinces*. Ikur one-gaz garaituko dozu. Ta Milbi-zubian azpiratu ta biřindu eban Maxentxi bere etsaya. Jauretxeak idigi ta bere irakatsiak za-baltzeko azkatasuna emon eutson Konstantin'ek Eleizari.
5. Geroago. 362'gařen urtean, Julen Ukatzalea deritxo-nak, jauretxeak bařiro eratsi ta kistařak gogorki zigortzen ekin eutson. Baña Jaungoikoa'k bera be zigortu eban. Guda-ketan zala, nondik ez ekien azkonak jo eban. Iltzer egoala, bulařetik erion odol-moltsoa artu ta goiruntz jaurti ei eban esanaz: *Garaitu nok, galilaitar ořek*. Gaizto arek isekaz deitzen eutson Jesus'i «Galilaitařa».
6. Boskařen eunkian, Ipar-eři basatiak jabetu ziran Euro-

pa geyeneko agintaritzaz. Eri oneik, Aritařak ziran, baña Eleizak osoro beraganatu ebazan.

SIÑAUSLEAK

7. Siñismena ausi edo siñiskairen bat ukatzen dabena deritxegu siñausleak.

ARI

8. Lenengo gizaldietan siñauslerik ospetsuena ta kaltegariena Ari izan zan. Alexandri'ko jaupari ta geroago, Konstantinopla'ko gongotzain izatera eldu zan ardi nařuz jantzitako otso au. Konstantinopla'n bertan, garaitzale-buru joyala, urdaileko miñez irolan sartu beara izan eban, eta Jaungoiko Semea kutsutu nai izan ebanak, sastegi ořetan estiekaz batera bota eban bere azken-arnasa 336'gařen urtean. Semea Jaungoiko zala ukatzen eban siñausle onek. Ari'ren siñiskeria gaiztesteko, Nike'n, 325'gařen urtean, egin eban Eleizak lenengo Batzar Nagosia. 318 gotzain eldu ziran Batzar onetara, ta Semea Jaungoiko dala ao batez autortu ta siñiskaitzat ebatzi eben.

MAOMA

9. 568'gařen urtean jayo zan Maoma. Berogei urte ebazala, bere burua igarletzat azaltzen asi zan. Kistar-batzaren etsairik gogořenak izan dira maomatařak. Jaungoikoa autoritzen dabe ta otoi egin be bai, baña itxusi ta aragikoi dira maomatařen siñiskeriak. Su-ta gar zabaldu ebezan euren irakatsiak. Lora-garan zan Aprika'ko Eleiza guztiz triskatu ta

suntsitu eben, eta Europaz jabetzeko be alegiñak-alegin egin izan dabez. Gaur egunean, 260.288.579 dira Maoma'ren jaiaitzaleak.

LUTER

10. Eisleben'en, 1483'gañen urtean jayo zan Martin Luter. Ogei ta bat urte edo, ebazala Agustindañetan sartu zan. Gizon aña ta berekoya zan Luter, ta aintzakotzat artu ez ebelako, bekaizkeriz eñeta, 1517'gañen urtean, parkamen aurka itz-egiten asi zan. Gero, beste guzur asko be zabaldu ebazan. Eleizaren aurka jaiki ziralako, *ostelari* edo protestanteak deritxe luterotañai. Batasunik ez dabe bein be izan luterotañak. Burutan aña alderdi sortu ziran. Kalte izugañiak egin ebazan Alemani'n eta VII'gañen Enrike'k, bere lizunkeria zuri-tzeañen, zabaldu eban Inglateñan. Gaur egunean, 185.454.607 dira *ostelariak*. Trento'n, 1545'gañen urtean batu zan Batzar Nagosiak gaiztetsi ebazan *ostelarien* irakatsiak. Baita gure Loyola'tar Iñaki ta bere Lagundia bere, ostelarien aurka jokatzeke sortu ebazala dirudi Jaungoikoa'k. Orixegaitik dautse ainbesterañoko goñotoa Eleizaren arerioak.

Luter'en irakatsietatik jayo izan dira añezkeroko uste oker ta siñiskeri guztiak.

NI ZUEKAZ NAGO...

11. Etsai gogoñak izan ditu Betlen'go abeletxean sortu zan Eleizak. Baña orain arteko arerio guztiak austu daroaz ta gerokoak be edo bereganatu, edo biñinduko ditu. Ez bildur izan. *Ni zuekaz nago*, iñotsen Jesus'ek bere ikasleai. Kepa'ri,

bañiz: Zu zara aitzia, ta aitz onen gañean eraikiko dot nire Eleiza, ta su-lezeko ateak ez dira aren aurka garaitzale izango.

Judai'ko zoko atan ernetako landareak, luñasoko baster



guztietara zabaldu ta edatu ditu bere abaræk: 373.569.779 dira gaur Eleizaren siñismena autortu ta bere kerizpean bizi diranak. Geroago ta sutsuago diñardue gure mixiolariak siñismena zabaltzen, eta geroago ta ugariago dira Jesukristo'ren artaldera datorzan ardi galduak.

KEPA'REN ONDORENGOAK

12. Kepa izan zan Jesukristo'ren lenengo oñordeko. Añezkero, belaunik-belaun, eten bage, izan dira Kepa'ren on-



dorengoak. Gaur, XI'gañen Pio dogu luñean Jesukristo'ren ordeko. Bere auñetikoai, uñatsez-uñats jañaituz, lan bikañak eta goragañiak egin ditu gure Aita Santuak: ugazaba ta langile arteko auzia ebazteko; umeak kistarki azteko; ezkontza ta ezkonduen eginbeañak; sortaldeko kistañen alde; siñismena zabaltzeko eta abar. Jaungoikoa'k luzaroko bizia emon begio ta bere arerioen eskuetatik zaindu begi.

13. Gure asaba zařak noz kistartu ziranik ez dakigu. Batzuen eretxiz, irugařen eunki erdiruntz-edo, Saturnin deunaren alegiñez, zabaldu ei zan kistar-siñismena Iruña aldean, eta gero andik polito-polito enparau eřietan. Beste batzuk, euskeldunak berandu kistartu zirala diñoskue. Edozelan bere, Lapurdi, Iruña ta Kalaořa'ko gotzaintzak zar-zařak dira; ta zortzi-bederatzigařen gizaldietan, ainbat lekaidetxe edo konbentu agiri dira gure eřiko sortalde ta egoaldean. Beraz ordu-rako, gure eřian siñismena zabal ebiřala dirudi.

IKASBIDEA

Eleiztar ta Eleiz-zale izan zaite beti. Amatzat artu ta ama bezain maite izan.

ITAUNAK

1. Zeinbatarikoak izan dira Eleizearen arerioak?—2. Nortzuk, batez bere, jazarkatu eben Eleiza lenengo iru gizaldietan?—3. Zeinbat eta zeintzuk doguz jazarkunak?—4. Zer jazo zan 312'gařen urtean?—5. Geroago, 362'gařen urtean, zer egin eban Julen Ukatzalea deritxonak?—6. Noz jabetu ziran Ipar-eřiak Europa geyenaz?—7. Nortzuei deritxegu siñausleak?—8. Nor izan zan siñauslerik ospatsuena lenengo iru gizaldietan?—9. Noz jayo zan Maoma?—10. Noz ta non jayo zan Luter ta zeintzuk bere irakatsiak?—11. Etsai gogořak izan ete ditu eleizeak eta garaitu ete?—12. Nor izan zan Jesukristo'ren lenengo oñordekoa ta ařezkero belaunik-belaun izan ete dira Kepa'ren ondorengoak?—13. Gure asaka zařak noz kistartu ziranik ete dakigu?

.....

Zer da siñismena?... Zer da zuk, kistar zareanez, siñisten dozuna?... Irutasun guztiz santua nor da?... Iru notin jaungoikozko onei zelan deritxe?... Aita Jaungoikoa ete da?... Semea Jaungoikoa ete da?... Espiritu Santua Jaungoikua ete da?... Aita eta Semea eta Espiritu Santua iru Jaungoiko ete dira?... Aita, Semea ete da?... Espiritu Santua, Aita edo Semea ete da?

Zergaitik ori?... Zer da, beraz, Irutasuna deritxon ezkutukia?... Jaungoikoa'ren Semeak gizon egitean galdu ete eban bere Jaungoikotasuna?... Zer dira parkamenak?... Eta zelan irebazten dira parkamenak?... Zeinbat Eleiza irasi zituan Jesukristo'k?... Egiazko Eleizaren ezaugañiak zeintzuk dira?... Zein da lau ezaugañi oneik dituan Eleiza bakaña?... Zeintzuk dira Eleiza Katolikoan ez dagozanak?... Éromako Aita Santua nor da?... Éroma'ko Aitaren esanak egitera bearturik ete gagoz?... Éromako Aitari siñistera beartuak ete gagoz?... Zelan da uts-eziña Éromako Aita?... Zetan da utseziña Éromako Aita?

A. M. D. G.


OARAK

LENENGOA:

Irañuts batzuk ba ditu idazti onek, baña irakasleak eñaz zuzenduko dabezala uste dogu.

BIGARENA:

«Eleiza» itza, kistar siñestedunen batzaña adierazteko darabilgu. «Jauretxea», Jauna'ren etxea adierazteko.



AURKI - BIDEA

ITUN ZAÑA

Lenengo aroa.=Adan'engandik Abraham arteragiño

Ludigintza	7	Kain, Abel eta Set	16
Aingeruak	9	Uriola	18
Adan eta Ebe	10	Babel'go Toíea	20
Adan eta Eberen obena.	12		

Bigarren aroa.=Abraham'gandik Mois'eraño

Abraham	23	Etxeruntz	37
Sodoma ta Gomora'ren zigora	25	Jose, anayak saldu ta atzeri- ra daroe	39
Isaak'en jayotza ta opalguntza	28	Jose, Aigito'n	43
Isaak'en ezkontza	29	Jose'ren anayak Aigito'ra	47
Esau eta Jakob	32	Anayai bere burua agertzen dautse Jose'k	50
Jakob, Laban'enera igesi	35	Job deuna	55

Irugañen aroa.=Mois'gandik Dabid arteragiño

Mois	58	tza	67
Israeldar'ak, basoan	63	Josue ta epaikariak	70
Mois'en zalantza.—Uraide' ko sugea.—Mois'en erio-		Eli ta Samuel	75
		Saul eta Dabid	79

Laugañen aroa.=Dabid'engandik Isra'el-er'ia erdibitzeraño

Dabid, artzain	79	Dabid, igarle	86
Dabid eta Goliat	80	Dabid'en obena ta zigo'ra	89
Dabid, e'lege	83	Dabid'en eriotza	91
Dabid, eleizkizunetan	85	Salomon	93

Boskañen aroa.=Isra'el erdibitzetik, Jesukristo'renganaño

Juda-er'ia

E'roboan.	97	Manase.	99
Akaz'	98	Judit	99
Ezeki	99	Sedeki	101

Isra'el-er'ia

Jeroboan	102	Akab	103
--------------------	-----	----------------	-----

Igarleak

Eli ta Elisai	106	Elisai	112
Eli'ren oparia	109	Jona	114

Israél'en azkena

Tobi ta Tobitxo	116	Etixeruntz	120
Tobi'ren azken-aguía ta To- bitxo'ren osterea	117	Isai ta beste igarle batzuk	124

Erbestean

Danel ta bere lagunak	128	Baltasar'en oturuntza	136
Danel ta Susane	129	Danel ta Bel jainkoizuna	137
Nabukodonosor'en amesa	133	Danel, legoyekaz	140
Iru mutilak laba gorian	134		

Aberian bañiro

Ester	144	Antiok'en eriotza	154
Eleazar	149	Juda'ren oparia	155
Saspi anai makabaitaíak	150	Juda'ren eriotza	156
Juda makabaitaía	153		

ITUN BAÑIA



Jesus'en eña	161	Jon Ugutzari edo Bateatza- learen jayotza	166
Agintaritzza.—Erode.	162	Jesus'en jayotza	168
Erode'ren ondorengoak.	162	Jesus'en umearoa	170
Eñi-arazoak	163	Jesus'en Bateo ta zirikaldiak	174
Eleizgizonak	163	Kana'ko ezteguak	177
Alderdiak	163	Jesus eta umeak	179
Jaungoiko - Semearen Giza- kundera	165	Jesus eta gasteak	181

Jesus, Jaungoikoa'ren Seme	183	kalea	194
Jesus, Irakasle	185	Eleiza	196
Irudi edo alegiak	187	Jerusalen'en saíera	199
Gari-ereílea	187	Eguen Guren—Bildots-apa- ria	202
Parisaitaía ta zergalaria	188	Belduai oñak garbitzen	202
Seme galdua	189	Eukaristia	204
Artzain Ona	191		
Aberats zekena ta Lazar es-			

Jesus'en nekaldi ta eriotza

Getsemani'ko baratzean	205	Obiratzea	214
Jesus atxilotuten dabe	206	Jesus'en bizkundera	216
Ana ta Kaipa'renean	208	Zeruetara igokundera	219
Jesus, Pilat'enean	209	Espiritu Santua'ren etorkun- dea	221
Astiñaldia ta arantzazko bu- runtza	210	Matai, Juda'ren ordez	221
Jesus, gurutzean	212	Goteuna etorkundera	222

Eleizaren Zabalgundera

Kepa'k eíena sendotu	224	Kepa espetxean	236
Kepa ta Yon Batzar Nagosi aúrean	226	Jerusalen'go Eleiz-Batzaía	237
Lenengo siñestunen batasun- a ta alkarmaitasuna	226	Kepa ta Paul'en eriotza	237
Anani ta Sapir	227	Eleizaren arerioak	239
Espetxean baíro	228	Siñausleak.—Ari	240
Saspi diakonoak	229	Maoma	240
Lenengo martiria	320	Luter	241
Eleizaren jazarpena	232	<i>Ni zuekaz nago</i>	241
Saul'en oneratzea	233	Kepa'ren ondorengoak	243
		Siñismena gure artean	244



IDAZLE BERONEN BESTE IDAZTI BATZUK

KRISTIÑAU-IKASBIDE-ATZALBENA

II. Jaungoikoaren Legeko ta Eleizearen Aginduak.

13 X 20 ta 314 ingoski. Azal edeñaz 6 lauerleko.

Beronetzaz 1926'gn. Epaña 15'gnko. «Boletin Oficial del Obispado de Vitoria»'n auxe diño:

«El libro del Sr. Ibarguchi llega muy oportunamente a continuar la tradición de los Añíbarro, Aguirre y Guerrico, completando las lagunas que la publicación principalmente del Nuevo Código de Derecho Canónico hacía se notasen en los textos clásicos de aquellos, ante los cuales tampoco por otros conceptos desmerece lo más mínimo.

Son notables en él la claridad y transparencia de las ideas dentro de una sobriedad de palabras y una concisión de estilo verdaderamente vizcaínas.

Su léxico es siempre castizo, y aun cuando alguien pudiera creer *a priori* que ello había de perjudicar a la claridad del lenguaje, con todo se da el Sr. Ibarguchi tal maña en el uso del sinónimo y del paréntesis, y maneja tan a la perfección la sintaxis vasca, que siempre su pensamiento procede con una nitidez y claridad que contrasta de manera sorprendente con la ininteligibilidad de otros muchos tratados escritos en léxico más vulgar, pero con construcción extraña al genio de la lengua, cosa tan perjudicial a la claridad como el más extremado neologismo.

El dialecto empleado es el vizcaíno, pero nunca tan cerrado que no se haga fácilmente asequible a un guipuzcoano medianamente culto».

III. **Eleiz Ama Deuna'ren Ikurtonak.**

13 X 20 ta 352 ingoski. Azal edeñaz 6 laurleko.

Beronetzaz Estefania Aba Josulagunak 1933'gnko. Garila 30'gn. «Gaceta del Norte»n ziñoan:

«Su euskera es un bizkaino castizo y abundante, y tan bueno como el de los que mejor usan este dialecto, aunque en la parte puramente artística, por tratar del género que se trata, pueden hacerle ventaja dos o tres autores. Hay pureza y copia y propiedad y exactitud, pero también claridad en el lenguaje.

La doctrina es segura, sólida, completa, bebida en las fuentes del Magisterio infalible de la Iglesia y sus comentaristas más autorizados. Utiliza, además, y como es razón, los escritos de esta clase o de otras afines, en euskera, y en concreto, los de Fray Bartolomé, Santa Teresa, Juan B. Aguirre, P. Sebastián Mendiburu y del celeberrimo Axular.

Su método es muy práctico para los párrocos y directores de catecismos euskeldunes: sigue, ordinariamente, el orden del texto oficial de la Diócesis, transcribiendo con letra distinta sus preguntas y respuestas, que desarrolla después cumplidísimamente. Abundan aquí y allí los ejemplos. Y es tan completa la explicación, y tan clara desde los fundamentos de la doctrina que declara, que no menos útil que para las personas dichas, resulta para los mismos predicadores. Nada tiene que envidiar a las publicaciones de su género y su extensión en otras lenguas.

Su necesidad, en todo caso, es patente. Sólo a la falta de la debida instrucción puede atribuirse el inconcebible abandono de su fe católica de esas grandes masas religiosamente analfabetas de que hemos sido y somos, por desgracia, testigos. La instrucción es indispensable; porque es el medio más seguro para lograr el afianzamiento y la perseverancia, y a la vez, para restituir al seno de la Verdad y de la salvación a los que han desertado. Un buen catecismo es la mejor apología de nuestra fe. Abundan las conversiones que en él tuvieron su principio, y es célebre entre ellas en nuestros mismos días la de Papini.

Por todos esos títulos merece que figemos en él la atención, el libro del señor Ibargutxi; y que le felicitemos y nos felicitemos porque lo ha publicado, y hagamos votos por que lleve adelante, hasta darla fin gloriosamente, su empresa, tan digna de un vasco, tan digna de un católico y tan digna de un sacerdote.

P. ESTEFANIA»

I ta IV. **Siñiskintza ta Otoya** laster argitalduko dira.



